

HIZKUNTZA PLANGINTZA HONDARRIBIAN, DIAKRONIKOKI ETA SINKRONIKOKI AZTERTUTA

"Puntu zentrala da hau, guretzat ez ezik Fishmanentzat ere: euskal ontzia hondoratu ala ez, frente honetan jokatzeko da beste inon baino gordinago.

Eskolak ondo daude, irrati-telebistak ere bai, berdin egunkari-aldizkariak...Hori dena oso ongi dago. Baina ezer gutxi (harrigarri gutxi) dezakete ekimen horiek guztiek euskara indarberritzeko. Ahulak dira neurri horiek, aldezturik (edo aldi berean) etxeko eta auzoko, lagunarteko eta kale-giro hurbileko euskal jarduera zaindu, indartu, babestu, oinarritu eta finkatzen ez bada. Gauza handiak egiten ari garela iruditzen zaigu askotan, euskararen alde. Perspektiba falta zaigu ordea, gehienetan, hizkuntza ahula indarberritzeko orduan handia eta txikia zer den ondo bereizteko." (Zalbide M., Erize X., HIZNET, 1.3: 50)

EGILEA: Maite Berruet Arbelaiz
TUTOREA: Mikeldi Zeberio Loinaz

HIZNET Hizkuntza Plangintza Graduondokoa 2016

AURKIBIDEA

1.	LABURPENA.....	4
2.	SARRERA	5
3.	HELBURUAK	6
4.	DATU SOZIOLINGUISTIKOAK.....	7
	4.1. 1988ko azterketa soziolinguistikoa.	9
	4.2. 1999ko euskararen kale erabileraren neurketa.	17
	4.3. Gazteen arteko euskararen erabileraren 2002ko neurketa.....	19
	4.4. Eskola kirolean euskararen erabileraren neurketa 2004-2005 ikasturtean.....	21
	4.5. Merkataritzan eta ostalaritzan 2002ko, 2006ko eta 2011ko euskararen erabileraren neurketak.....	23
	4.6. Soziolinguistika Klusterra, Datu soziolinguistikoek bilduma. Hondarribia 1986-2011.	30
5.	HONDARRIBIAN EUSKARAREN NORMALIZAZIOAN EGINDAKO LANA.	42
	5.1. Irakaskuntza.....	42
	5.2. Helduen euskalduntzea.	48
	5.3. Herri mugimenduak.....	52
	5.4. Hondarribiko Udala. HISTORIKOA: EBPN/ESEP plangintzen aurreko lana. 56	
6.	EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLANAK (EBPN 2005-2008 eta EBPN 2011-2015) eta EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA (ESEP 2015-2017) HONDARRIBIAN.....	60
	6.1. Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoak: EBPN 2005-2008 eta EBPN 2011-2015.	60
	6.2. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana, ESEP 2015-2017.....	77
7.	EUSKARA DEPARTAMENTUAREN AURREKONTUA ETA GIZA-	

BALIABIDEAK	81
7.1. Euskara Departamentuaren aurrekontua.	81
7.2. Euskara Departamentuaren giza-baliabideak.	84
8. ONDORIOAK.....	88
9. GOGOETA ETA AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENA.	102
10. ERANSKINAK.....	117
10.1.HISTORIKOA. 1986-2005 urteetan euskararen normalizazioan egindako lana. Informazio-iturri nagusia: Hondarribia aldizkaria.....	118
10.2.IRITZIAK, PERTZEPZIOAK...HONDARRIBIAN BIZI (IZAN) DEN EUSKARAREN EGOERARI BURUZ.	131
11. BIBLIOGRAFIA.....	155

1. LABURPENA

Hizkuntza Plangintza graduondokoaren Sakontze egitasmoan *Hizkuntza plangintza Hondarribian, diakronikoki eta sinkronikoki aztertuta* da landu dugun gaia.

Gaiari hasiera emateko hainbat hipotesi planteatu ditugu eta horiek frogatze aldera ikerketa lanari ekin diogu lehendabiziko fase batean.

Horrela, alde batetik, herriko datu soziolinguistikoak bildu ditugu. Bilketa lan horretarako gure informazio iturriak herrian egin izan diren neurketak eta Soziolinguistika Klusterrak egindako datu soziolinguistikoen bilduma izan dira.

Bestetik, Hondarribian azken hogeita hamar urteotan euskararen normalizazioan egindako lanari buruzko informazioa jaso dugu. Hau da, irakaskuntzan, helduen euskalduntzean eta herri mugimenduek egindako lana, baita Hondarribiko Udalak egindakoa ere.

Hondarribiko Udalak egindakoaren kasuan, bi epealdi bereizi ditugu: plangintzen aurrekoa, historikoa, eta plangintzen garaia, gaur egungoa. Lan honen bigarren fasean, beraz, azken hiru plangintzaldiko plan estrategikoak aztertu ditugu: EBPN 2005-2008, EBPN 2011-2015 eta ESEP 2015-2017.

Azkenik, informazio historikoa eta gaur egungoa aztertu ondoren, lanaren hirugarren fasean sartu gara, ondorioen eta aurrera begirako proposamenen fasean.

2. SARRERA

“Zein da, zein dira euskara bezalako ekosistema baten minimo bitalak?”, galdetzen du Jon Sarasuak hizkuntz ekologiari ari dela. “Minimo bital horietatik gora gaude edo behera gaude? Hau da, euskararena zer da, gripe bat edo minbizia?”.

Sarasuak dio ez dakigula ondo zein den gure gaur egungo egoera. Ez dakigula nola gauden benetan. “Badaukagu diagnostiko bat, diagnostiko minimamente zientifikoa, nola gauden, nora goazen, zein den momentu honetan euskararen egoera eta irtenbidea? Nik uste dut ezetz”.¹

Jon Sarasuaren baieztapen hori oinarri hartuta, Hondarribia aukeratu dut HIZNETeko ikasle naizen aldetik neure “diagnostiko minimamente zientifikoa” egiteko eta, nire iritzia apalean, Hondarribian nola gauden, nora goazen eta zein den momentu honetan euskararen egoera ikertzeko.

Eta, horrekin loturik, nire lanaren *hipotesiak* zera dira:

1-Ekintza puntualak eta egitasmoak ugariak dira Hondarribiko hizkuntza plangintzan eta euskararen sustapena/berreskurapena ez da estrategia lan batean oinarritzen.

2-Udalaren bitartekoak ez dira nahikoak. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Euskara Biziberritze Planetan hiru helburu aipatzen zituen udalerrietan lan eraginkor bat egin ahal izateko: Euskara Batzordea osatzea, Euskarako Zerbitzua sortzea edo osatzea eta euskarako aurrekontua aurrekontu osoaren %2ra, behintzat, iristea.²

3-Udal Euskara Departamenduaren aurrekontuan pisu handiagoa du euskararen ezagutza sustatzeak euskararen erabilera sustatzeak baino.

¹ Asier Arrieta, Iñigo Fernandez (2013). 1.6. Komunikazioa euskara sustatzeko. *HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista*. Donostia. Euskal Herriko Unibertsitatea. 67.or.

² Iñaki Arruti (2013). 5.1. Hizkuntza plangintza udalerr-mailan. *HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista*. Donostia. Euskal Herriko Unibertsitatea 12. or.

3. HELBURUAK

Helburu orokorra

Hondarribian euskararen normalizazioan egin den eta egiten ari den lanaren azterketa kritikoa egitea.

Helburu zehatzak

Sarreran aipatutako hipotesietan esandakoa halaxe den ala ez frogatzeko,

-Hondarribiko euskalgintzaren historiari hurbilpen bat egitea: ikastolaren eta euskaltegiaren sorrera, ikastetxeetako eredu linguistikoak, Euskararen Udal Ordenantza, Udal Euskara Zerbitzua, herri mugimenduen sorrera...

-Azken urteotako Udalaren hizkuntza plangintzak aztertzea, hau da, Euskara Biziberritzeko 2005-2008 Plan Estrategikoa eta Euskara Biziberritzeko 2011-2015 Plan Estrategikoa, baita egun indarrean dagoen plangintza ere, hau da, Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren 2015-2017 Plan Estrategikoa.

-Ondorioetan oinarrituz, hurrengo plangintzaldirako proposamen bat egitea.

4. DATU SOZIOLOGIKOAK

Asmoa paperera azken hogeita hamar urteotako datu soziolinguistikoak ekartzea izan arren, ezin orriotan aipatu gabe utzi Hondarribian XVIII. mende amaieran euskararen inguruan gertatutako auzia³:

Hondarribiko Hiria (Udal ordezkari eta jauntxoak) eta Roque de Salazar Bikarioaren artean sekulako istiluak izan ziren garai hartan mezetan erabili beharreko hizkuntzaren inguruan.

Udalak askotan salatu zuen Bikarioa Iruñako Eliz Tribunalaren aurrean; badirudi Bikarioak ez zekiela oso ongi erdaraz eta hitz egiterakoan arazoak aipatzen zituela meza erdaraz ez ematearren. Horietako batean Tribunalak erabaki zuen Bikarioak eman beharreko mezak euskaraz izatea, baina Hiriak, Kofradiak edota beste edozein erakundek ordaindutakoak, aldiz, erdaraz izatea.

Esan bezala, istiluak ugari izan ziren, baina horiek denek balio dute herriko hiztunen sailkapena egiteko.

Hondarribia aldizkariko artikuluan hauxe da aipatzen den sailkapena:

“Herriko hiztunak nagusiki hiru zatitan banatzen ziren:

Euskaldunak: Bikarioak, biztanleak, notarioak eta komisarioak euskaraz egiten zuten, eta euskara bere hizkuntza zela zioten. Mezak hizkuntza honetan ematea egokiena zela zioten. Baserrietan, Portuan eta hiri barruan, beste hizkuntzarik ez zekien jende asko zegoen.

Bi hizkuntza zekitenak: hauek euskara zuten ama hizkuntza eta erromantze edo gaztelania bigarrena. Hemen kleroa, jauntxoak, medizinar profesionalak, maixuak sartzen dira.

Erdaldunak: hauek oso gutxi dira, eta badirudi Espainiako Erregearen zerbitzura zeuden pertsonak daudela talde honetan: teniente, kapitain, soldadu, zaindari...” (HOND, 132. zkia.)

³ Gertakari honen berri Jose Maria Jimeno Juriok ematen du bere “Navarra, Gipuzkoa y el Euskera, siglo XVIII” liburuan eta Koldo Ortegak horretan oinarrituz idatzi zuen “Salazar bikarioa eta euskararen aldeko borroka” artikulua Hondarribia aldizkarian. Artikulua osorik irakurtzeko: Hondarribia aldizkaria, 132. zenbakia, 22-23 or.

Mendetan zehar horrelako egoera gehiago izango ziren arren, azken hogeita hamar urte hauetako egoera soziolinguistikoaren berri emango dugu atal honetan.

Horretarako, batetik, 1988tik 2006ra Hondarribiko Udalak Siadeco enpresari eskatutako hainbat ikerketaren emaitzak ekarriko dira orriotara.

Bestetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatuta, Soziolinguistika Klusterrak 1986tik 2011 urte bitarteko Gipuzkoako herrien datu soziolinguistikoen bilduma egin zuen, tartean Hondarribia, eta datu horiek ere azalduko ditugu.

Hauexek dira, beraz, ondorengo orriotan azalduko diren puntuak:

4.1)- 1988ko azterketa soziolinguistikoa.

4.2)- 1999ko kale erabileraren neurketa.

4.3)- Gazteen arteko euskararen erabileraren 2002ko neurketa.

4.4)- Eskola kirolean euskararen erabileraren neurketa 2004-2005 ikasturtean.

4.5)- Merkataritzan eta ostalaritzan 2002ko, 2006ko eta 2011ko euskararen erabileraren neurketak.

4.6)- Soziolinguistika Klusterra, *Datu soziolinguistikoen bilduma. Hondarribia 1986-2011.*

4.1. 1988ko azterketa soziolinguistikoa.

1988. urtean Hondarribiko Udalak eskatuta, SIADECOK Hondarribiko azterketa soziolinguistikosakona burutu zuen herrian. Azterketak hiru fase izan zituen eta bakoitzean laburbildurik aztertu zena ondokoa:

“Azterketa honetan bereziki ikertuko diren alorrak honako hauek dira:

1.-Zenbat jendeak dakien euskara Hondarribian eta jende horrek zein neurritan ezagutzen, mintzatzen, irakurtzen eta idazten duen hizkuntza.

2.-Zenbat erabiltzen den euskara. Nork, noiz, nola eta zertaz hitz egiteko erabiltzen den.

3.-Zer nolako iritzi, jarrera eta balorapen egiten duen herriko jendeak Euskararekiko. Nola ikusten den euskararen etorkizuna eta nolakoa izatea nahi luken.” (HOND, 19.zkia.)

Emaitzekin guztira 5 tomo osatu ziren, kopiak egin eta talde politikoen artean banatu ziren batzuk eta beste hogeit bat kopia herrian zabaldu ziren. Fase bakoitzaren emaitzen laburpenek, bestalde, Hondarribia aldizkarian ikusi zuten argia.

Datozen orriotan, beraz, SIADECOK aldizkarian emandako informazioa hartuko dugu kontuan eta laburbildu egingo dugu. Osorik irakurri nahi izanez gero, Hondarribia aldizkaria⁴ jotzea besterik ez dago eta, horretaz gain, are gehiago jakin nahi duena Udal Artxibategian jasotzen diren azterketaren bost tomoak koltsultatzerara gonbidatuko genuke.

1. FASEA: Zenbat jendeak dakien euskara Hondarribian eta jende horrek zein neurritan ezagutzen, mintzatzen, irakurtzen eta idazten duen hizkuntza. (HOND, 24.zkia.)

1986ko Erroldan oinarritutako datuak eman zituzten:

Euskaldunak	Ia-euskaldunak	Erdaldunak
%57,1	%16,3	%26,6

⁴ Ikerketaren 1. faseari buruzko informazioa Hondarribia aldizkariako 26. zenbakian topatuko da, 2. faseari buruzkoa 27. zenbakian eta 3. faseari buruzkoa 33. zenbakian.

-**1970**ean bildutako datu batzuen arabera, euskaraz ongi zekitenen proportzioa %65ekoa zen. Hamabost urte ondoren, beraz, **8 puntuko atzerapen nabarmena**.

-**1981**eko Erroldako datuekin konparatuz gero, **euskaldunen proportzioa** %1,5 eta **ia-euskaldunen proportzioa** %1,8 **igo** ziren; **erdaldunen proportzioa**, aldiz, %3,3 **jaitsi** zen.

SIADecok igoera nahiko eskasa izan zela baloratu zuen artikuluan eta **zergatien artean immigrazioa** aipatu zuen: Hondarribia izan omen zen 1981 eta 1986 bitartean Gipuzkoan gehien handitu zen herria eta handitze hori immigraziogatik gertatu omen zen.

Etorritakoen artean euskaldunak egonik ere, gehienak erdaldunak zirela adierazi zuten eta horrek nolabait Hondarribiak zeraman euskalduntze prozesua frenatu zuela zioten artikuluan.

-Baserriz osaturiko auzoez gain, **auzorik euskaldunenak** Portua eta Soroeta ziren. Hiriko erdigune geografiko-soziala suposatzen zutenez, bertan euskararen nagusitasuna mantentzeko neurriak hartzea aholkatu zuten.

-**Adinari zegokionez** datu hauek eman zituzten: **jenderik euskaldunena adinekoa zen** (%70), portzentaje hori zerbait gutxitzen zen 50 urte ingurukoekin (%50-60) eta gehien jaisten zen 30-40 urtekoekin (%40-50). **20 urtez behekoen artean**, ehunekoa berriro ere **igotzen zen** (%60 inguruan).

Azken 20 urtetan ikastolan eta irakaskuntzan egin zen ahaleginaren ondorioztat jo zuten datua eta gazteak euskara berreskuratze prozesuan sartuta zeudela adierazten omen zuen.

-**Idazteko gaitasunari zegokionez**: ongien idazten zutenak 10-20 urte bitartekoak ziren eta zenbat eta gorago egin adinean, orduan eta gaitasun txikiagoa—zuen jendeak.

2. FASEA: Zenbat erabiltzen den euskara. Nork, noiz, nola eta zertaz hitz egiteko erabiltzen den. (HOND, 27.zkia.)

Bizitza sozialeko alor guztiak neurtu zirela diote artikuluan. Martxoan neguko erabilera jasotzeko neurketa bat egin zuten eta abuztuan beste bat udakoa jasotzeko eta turismoak zeukan eragina ikertzeko.

Alorrez alor, hona emaitzak:

-Leku Publikoetan: kaleko erabileran hondarribiarren %38,3 agertu zen euskaraz mintzatzen. 1983an Diputazioak egindako neurketa batean %40,7 zenbatu zen euskaraz hizketan.

Hortaz, SIADECOn arabera, bost urtean "euskararen alde egin diren ahaleginak asko izan arren, euskararen erabilera jaitsi egin da Hondarribian."

Dena den, SIADECOn balorazio horri gehituko genioke, errore marjina kontuan hartuta, 5 urtean 2 puntuko jaitsiera, beharbada, ez dela hain adierazgarria.

Adinari begiratu gero, "haurrak dira bost urteotan euskaraz proportzio altuagoan mintzatzen diren bakarrak, gazteak, helduak eta zaharrak gutxiago erabiltzen dutelarik."

Udako erabilerari dagokionez: "euskaraz mintzatzen direnak %18ra beheratzen dira, beraz, turismoak Hondarribiko euskara, lehendik ere batere indartsu ez zegoena, desagertzeko eta itotzeko zorian jartzen du."

-Ekonomia alorra: euskara *arrantza* eta *nekazaritza* sektoreei esker **mantendu** dela dio SIADECOK, "Gaurregun ordea, pipiak jota ageri dela esan behar da, erdarak muturra sartzea lortu duelako, beraz, zailena egin du. Zulo hori, neurririk hartzen ez bada, erdararen inertziak ia bere kasa handitzen joango da".

Izan ere, **arrantzaleen %90 euskalduna** den sektorean, euskararen erabilera **laneko harremanetan %80koa** den bitartean, kanpokoekin, hots, **kaletarrekin, %60 ingurukoa** da. Arrantzaleen mundutik ateratzean erdarara jotzen dute.

Halere, gure ustez, ezagutza datu horrekin bi erabilera datuak, bai 80koa bai %60koa, ez dira txostenak adierazten duen bezain txarrak.

Nekazari giroan ere euskaldunak %91 gurasoen belaunaldian eta %100 seme-alaben belaunaldian ziren, baina etxeko erabilera ez zen guztiz ematen euskaraz: %91 gurasoen belaunaldian eta %82 seme-alabenean. Arrantzaleekin gertatzen zen bezala, etxetik kanpo erabilera horrek behera egiten zuen.

Etxetik kanpoko erabileraren datua ezagutzen ez dugun arren, arrantzaleen kasuan bezala, esan genezake ezagutza datu horiekin etxe barruko erabilera datuak ez direla hain txarrak.

Industrian, berriz, populazioaren %2,6k baino ez zuen horretan lan egiten eta **giroa hirikoa baino erdaldunagoa** zela adierazi zuten.

Zerbitzuak sektorean: langileen euskararen **ezagutza hiritarren parekoa** zen arren, lantokiaren arabera ezberdintasun handiak zeuden. Hau da, "Horrela, alor batzutan enplegatu guztiak euskaldun izatetik hasi, adibide gisara drogeri, farmazia, aseguru eta kirol alorretakoak, guztiak erdaldunak izatera ere iristen dira, posta, gestori eta etxe salmentatako enplegatuak kasu, (...)"

Erabilera: **hiritarrak ziren euskara gehien** erabiltzen zutenak (%33) **eta gero enplegatuak euren artean** (%31,8).

Bi taldeak elkartzean euskararen erabilerak ia erdira egiten zuen **behera** (%15,8) eta **bi hizkuntzak alternantzian** erabiltzea **asko** ematen zen (%60).

Elkarrizketa berean hizkuntza batetik bestera salto eginez hitz egitea asko egiten zen Hondarribian: "beste zenbat hirietan baino gehiago ematen da hizkuntza batetik besterako joan etorri hori. Beste hirietan gehiago ematen da erdara hutsean hitzegitea."

Euskara idatziari zegokionez, "erabiltzen hasi, hasia da (...) **Euskara idatzia borondate huts-hutsaren gain** uzten da. **Holako egoeran jendeak sinetsi ere ez du egiten euskarak funtzionatzeko balio dezakeenik.**"

Bestalde, uda garaian, enplegatu euskaldunen kopurua zeozer altuagoa izanagatik, **erabilera erabat behertzen** da: %12 herritarrek elkarren artean eta enplegatuak elkarren artean %4-5. **Enplegatuen eta herritarren arteko harremanetan ia desagertzeraino iristen zen (%0,6)!!!**

Euskara idatziaren kasuan uda garaian desagertu egiten zen "Aurrezki Kutxetako inpresio elebidunak izan ezik."

-Elkarteak: herriko elkarteetan biltzen zen **jendea hiritarra baino euskaldunagoa zela** ondorioztatu zuten ikerketan (%77). "Potenzial handi bat, beraz, herria euskalduntzen lagundu dezakeena."

Erabilerari erreparatuz, **ordea, euskaldunen erdiak baino ez zuen erabiltzen** beraien artean eta bilera nagusietan; zerbait gutxiago batzordeko bileretan eta apur bat besterik ez komisiorezietan (%13,6).

"Bakarrik kanpora begira egindako iharduerak dira euskaraz nagusiki (%83), agian herritar gehienak euskaldunak direla jabetuz edo itxura euskalduna emanaz..."

Idatziz ordea, "euskara hutsaren erabilpena asko beheratzen da eta elebitasuna dezente igo, erdara hutsaren erabilpena batzutan erdi-inguru eta besteetan ia desagertzen delarik."

-**Irakaskuntza:** Hondarribiko **ikasleen %46,5 D ereduan** ikasten ari zen, %21,1 B ereduan eta %32,2 A ereduan (bost urte beranduago A eredu derrigorrezko irakaskuntzatik desagertuko zela aipatzen da artikuluan). Institutuan, berriz, ikasle gehienek A ereduan ikasten zuten.

-**Helduen euskalduntze-alfabetatzea:** 163 gazte eta heldu ari ziren euskara ikasten edo sakontzen, hondarribiarren %2,6a.

3. FASEA: Zer nolako iritzi, jarrera eta balorapen egiten duen herriko jendeak Euskararekiko. Nola ikusten den euskararen etorkizuna eta nolakoa izatea nahi lukeen. (HOND, 33.zkia.)

-**Seme-alabei euskara irakasten ahalegindu** izana edo irakasteko asmoa altua agertzen dute (**%87**); beti euskaldunetan altuagoa (%93) erdaldunetan baino (%80).

-Euskaldunen artean, halere, **seme-alabak zein eredutan** ari ziren begiratzean: euskaldunen artean ez ziren erdira iristen (%46) D ereduan ikasten ari zirenak; B ereduan %23 ari zen; A ereduan %19 eta X ereduan (euskararik ez) %13 (Hondarribitik kanpo ikasten zuten).

Erdaldunen artean, %49 B eta D ereduetan ikasten ari ziren, %40 A ereduan eta %11 X ereduan.

-**Euskararen zabalkundea** lortzeko hartu beharreko neurriak: jendea ikastera bultzatuko zuten neurriak hartzea izan zen onartuena.

-**Irakaskuntzan euskarari sarbide emateko eredurik egokienak** D eta B ereduak eskaintzea zela zioen gehiengoak, euskaldunek D eredu gehiago aipatuz eta erdaldunek B eredu.

-**Eskaintza hori irakaskuntzaren maila guztietara**, eskolaurretik unibertsitateraino, zabaldu behar zela zioen euskaldunen %80k eta erdaldunen %67k.

-**Hizkuntza zerrenda baten** aurrean **lehentasunak** markatzerakoan, euskaldunek lehentasuna euskarari ematen zioten eta, ondoren, gaztelaniari, ingelesari eta frantsesari. Erdaldunen ia erdiek, ordea, gaztelaniari eta, ondoren

hurrenez hurren, ingelesari, euskarari eta frantsesari.

-Euskararen etorkizunari buruzko galderari gehiengoak **euskara Euskal Herrira zabalduko zela** erantzun zion: euskaldunen %58k eta erdaldunen %46k. **Eta nola izatea** nahiko luketen galderari **gehiengo garbiak** erantzun zion **Euskal Herri osora zabaltzea nahi zutela**: euskaldunen %91k eta erdaldunen %66k.

-Euskararen berreskurapenari buruzko iritzia: gehienek egokia zela erantzun zuten (batez ere erdaldunek, %51) edo beharrezkoa (batez ere euskaldunek, %76).

-Euskararen alde Jaurlaritzak edo Udalak hartutako neurriak gehiengoak ez zituela ezagutzen erantzun zuen eta ezagutzen zituztenek eskasak bezain mesedegarri zirela adierazi zuten. Eta gaur egun galdetuko bagenu zein izango litzateke erantzuna?

-Etorkizunari begira hartu beharreko **neurriei** buruz galdetutakoan: Jaurlaritzak hartu beharrekoak, euskarari lehentasuna ematea, erdararen parean sarbide handiagoa eta plangintza orokor bat burutzea aipatu ziren.

Udalak hartu beharrekoak, udal mailako **plangintza bat** burutzea, irakaskuntza sustatzeko kanpainak, euskara mintzatuaren eta idatziaren presentzia gehiagotzea.

Herritarrek hartu beharrekoak, euskara dakitenek erabiltzea eta ez dakitenek ikastea.

Euskararekiko iritzi, jarrera eta balorazio hauetaz gain, 3. fase honetan Hondarribiko bizitzan garrantzi handia zuten hizkuntza arazo berezi batzuei buruzko aipamena egin zuten:

1-Arrantzaleen eta nekazarien mundua.

2- Gazteak eta euskara.

3- Udako denboraldia.

1-Arrantzaleen eta nekazarien mundua.

Bi gizatalde hauen hizkuntza egoera antzekoa zen: laneko hizkuntza euskara izan arren, kaleko hizkuntzan gero eta gehiago nagusitzen ari zen gaztelania.

SIADECOK Hondarribia aldizkariko artikuluan aipatu zuenez, "Prozesu honen abiadura azeleratzen ari da udalerriko giroa erdalduntzen doan neurrian." Garai

batean kaleko giroa batez ere arrantzaleek sortzen zuten eta giroa guztiz euskalduna zen.

1988an, berriz, "kaleko giroa sortzen dutenak udalerrian bizi direnak hainbat kanpotik etortzen direnak izan ohi dira, eta kasu guztietan erdaraz funtzionatzen dutenak." Eta arazo hau gehiago nabarmentzen zen udako hilabeteetan.

"Guzti hau dela eta hiriko giroa aldatzen ari da eta giro aldaketa horrekin batera hizkuntzaren aldaketa bat ere burutzen ari da."

2-Gazteak eta euskara.

15-19 urteko gazteen artean euskara ongi hitz egiten eta idazten zuen jende gehiago zegoen 20-24 urteko gazteen artean baino.

Eta hau dena, ikastolan eta beste ikastetxeetan egiten zen lanari esker zen.

Baina, euskararen erabilerari zegokionez ezin gauza bera esan, gauzak zeharo aldatzen baitziren: **leku publikoetan gazteen euskararen erabilera %17,4koa zen neguko hilabeteetan eta %10ekoa udan.**

Inkesta pertsonaletan eman zituzten erantzunen artean:

-Gaitasun altuenak dituzten gazteak (15-19 urtekoak) ez dira euskaraz gehien mintzatzen direnak, 20-24 urtekoak baizik.

-Euskara guztiek zekitenean bakarrik erabiltzen zuten, eta ez beti.

-Gazte erdaldunek euskararen beharra, batez ere, lagunarte alorrean sentitzen zuten, eta gero alor guztietan. Euskara ikasteko prest zeudela zioten, gero aukerez ez baliatu arren.

"Hondarribiko gazteria orokorki hartzerakoan (...) Batetik, euskaldunenak, familian eta orokorki euskararekiko baikorragoak agertzen dira, gero zenbait momentutan, neurriak eskatzerakoan, erdaldunak izan badira ere neurri altuagoak eskatu dituztenak. Bestetik, eta nola euskaldun hala erdaldunen artean, bereziki euskaldunetan izan den arren, 15-19 urtekoak 20-24 urtekoak baino indiferenteagoak, hotzagoak e.a. ageri dira. **Badirudi euskararekiko giroa familian eta gizartean orokorki, azken bost urte hauetan epeldu egin dela, eragin berezia izan duelarik gazteenetan.**"

3-Udako denboraldia

-Neguko eta udako euskararen erabileraren konparaketak garbi azaldu zuen

udan leku publikoetan eta adin talde guztietakoen artean euskararen erabilera **beherakada nabarmena** egiten zuela.

Honetaz gain, gero eta indar handiagoa hartzen ari zen gertaera bat ere aipatu zuten artikuluan, hau da, urtean zehar (udaberrian eta udazkenean batez ere) **asteburuetan** herrira etortzen ziren kanpotarrek ezartzen zuten **giroa**: “Asteroko uholde honek inguruko udalerrri erdaldunetatik datorrenez (Irun, Errenteria, Pasaia, Donostia e.a.) Hondarribiko kaleak, ibilbideak, tabernak e.a. **erdaldundu** egiten ditu.”

-Erabilera kanpinetan: kanpinetara denbora luzerako etorritakoen artean %42,3 euskalduna zen eta erabilera altua zen (bostetik lauk euskara erabiltzen zuten). Denbora gutxirako etortzen zirenak askoz erdaldunagoak ziren (laurden bat euskalduna) eta erdiak erabiltzen zuten euskara.

-Erabilera hondartzan: hondartzan zaharrek erabiltzen zuten gehien (%38,5) eta gero haurrek (%15,2). Helduek ez ziren ia euskaraz mintzatzen eta gazteek ez zuten ezer erabiltzen.

-Erabilera kai berrian: zaharrek eta gazteek ez zuten euskara batere erabiltzen; helduek eta haurrek, ordea, hondartzan erabiltzen zutena baino 10 puntu gehiago erabiltzen zuten.

4.2. 1999ko euskararen kale erabileraren neurketa.

SIADecOk 1999an euskararen kale erabileraren neurketa burutu zuen abenduko lau egunetan Hondarribiko lau zonaldeetan: Portua auzoan, kiroldegi inguruan, Zumardia-Puntalan eta Sokoia- Soroeta-Eguzkilore-Zezen plazan.

EMAITZAK

-1996ko erroldaren arabera Hondarribian 2 urte edo gehiagoko 14.160 pertsona bizi ziren eta horietatik 8.560 euskaldunak (%60,5), 2.670 ia-euskaldunak (%18,9) eta 2.930 erdaldunak (%20,6) ziren.

-Behatutako pertsonetatik (3.888 lagun) **%36,9 ari zen euskaraz.**

1988an, berriz, %38,3 ari zen euskaraz mintzatzen **eta 1983an** Diputazioak egindako neurketa batean **%40,7.**

-Horrenbestez, indize orokorrak beheranzko joera erakusten zuen.

-Adinaren araberako erabilerari begiratuz.

	1988	1999
Haurrak (0-14)	45,8	48,0
Gazteak (15-24)	17,4	22,7
Heldu gazteak (25-39)		35,7
Heldu nagusiak (40-59)	44,2	27,6
Zaharrak (+60)	67,1	51,4
Guztira	38,3	36,9

1988an bezala, **zaharrenak** izan ziren **erabilera mailarik altuena** erakutsi zutenak; **halere, hamaika urte horietan ia 16 puntuko jaitsiera** izan zuen zaharren erabilera indize horrek.

Haurren eta gazteen erabilerak, aldiz, **gora** egin zuen eta **haurrena**, bereziki, **ia zaharrenaren pareko** jarri zen.

“Hizkuntza baten galerak edo berreskurapenak zerikusi handia du belaunaldi berrien hizkuntza jokaerekin eta Hondarribiako kasuan, **berreskurapen-prozesu xume batean murgildurik gaudela esan liteke.** Pixkanaka, belaunaldi berrienak ari dira erabilpenaren aitzindaritzaz hartzen, zaharrei lekua irabaziz. Euskararen erabilera indizerik baxuena gazteen artean neurtu bada ere, kontuan izan behar dugu talde hau dela 1988ko datuekiko igoerarik nabarmenena erakutsi duena eta goranzko joera hori azkartuz gero, garrantzitsua izan daiteke gazteek,

hurrekin batera, euskararen erabileraren berreskurapenean joka dezaketen papera.” (SIADeco 1999)

Puntu honi amaiera emateko, **Euskararen Kale-Erabileraren VI. Neurketako**⁵ hainbat **emaitza** ekarri nahi dira hona:

Neurketaren I. edizioa 1989an egin zen eta azkena, VI.a, 2011n. Hortaz, hogeita bi urteko bilakaera ezagutzen da.

“Euskal Herriko Kale-Neurketa egiten hasi zenetik, hogeita bi urteko epean, 2,5 puntu egin du gora euskararen erabilerak Euskal Herriko batez bestekoan. Hasierako edizio hartan, 1989an, %10,8ko erabilera jaso zen.

Azken hamar urteko epea hartuz gero, erabilera trabatu egin dela esan behar da. Geldiune batean dago, 2001eko erabilera 2011koaren berdina izan zen: %13,3.” (2. or.)


Emaitzei lurraldeka erreparaturaz gero, **lurralderik euskaldunena Gipuzkoa** dela ondorioztatu da: **azken hogeita bi urteotan goranzko joera** nabarmendu da.

1989an euskararen kale-erabilera Gipuzkoan **%23,3koa** zen eta **2011n %32,7koa**.

Bestalde, erabilera ezagutzaren araberako **zonaldeka ikertuta**, euskaraz dakiten hiztunen portzentajea %50-%75eko tartean dagoen zonaldean kokatuko litzateke Hondarribia.

Hondarribiari buruz datu gutxi baino ez ditugunez ezin dugu urtez urteko konparaketa egin. Dakigun bakarra da Hondarribiko 1999ko ehunekoa Euskal Herriko datuaren oso anzekoa dela. Ikus dezagun ondoko grafikoan zonalde horretan eman den bilakaera:

Ezagutza %50-%75eko tartean dagoen zonaldeetan



⁵ Soziolinguistika Klusterra (2011). Hizkuntzen Kale-Erabileraren VI. Neurketa, 2011. Andoain. <http://www.soziolinguistika.eus/files/VI%20Kale%20Neurketa-%20Emaitzen%20xostena.pdf>

4.3. Gazteen arteko euskararen erabileraren 2002ko neurketa.

Hondarribiko Udal Euskara Zerbitzuak eskatuta, SIADECOK Hondarribiko 12 eta 17 urteko gazteen euskararen ahozko erabilera ikertu zuen. Ikerketa 2002an egin zen eta emaitzak 2006ko apirilean aurkeztu ziren prentsaurrekoan. Hauexek labur-labur⁶:

“EUSKARAREN EZAGUPENA:

Hondarribiko (ia) gazte guztiak (%91,1) euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiteko gai dira.

Euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiteko gai direnak	%91,1
Ama hizkuntza euskara soilik edo gaztelaniarekin batera dutenak	%78,0
Euskaraz errazago egiten dutenak	%22,1
Gaztelaniaz errazago egiten dutenak	%42,6
Bietan berdin egiten dutenak	%35,2
Bi gurasoak euskaldunak dituztenak	%41,4
Bat euskalduna eta bestea erdalduna dutenak	%34,1
Biak erdaldunak dituztenak	%24,5

EUSKARAREN ERABILERA:

Hondarribiko 12 eta 17 urte arteko gazteak kaleko lagunekin %13,5 egiten dute euskaraz.

Irakasleekin	%43,5
Telefonoa hartzean	%45,6
Ikaskideekin gelan	%18,7
Kirol ekintzetan	%18,8
Tabernan	%16,4
Denbora libreko beste ekintzetan	%14,-
Kaleko lagunekin	%13,5
Patioan lagunekin	%12,6

Datu hauek ikusita **Euskara Zerbitzuak gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko kanpaina** bati ekin dio, eta horren lehen urratsa, egun hauetan abian jarri dugun Komunikazio Plana da, irudi erakargarri batzuk kaleratuz gazteengana hurbildu nahirik.”

⁶ Iturria: Hondarribia aldizkaria (2006), 185. zkia.

Horrenbestez, bi taula horietan ageri diren datuek dena adierazten dute garbi, ez da asko esan behar gure ustez: **ezagutzaren eta erabileraren artean alde izugarri handia dago!** Eta erabilera oso eskasa da.

Hori ikusita, gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko kanpaina puntual bat baino lanketa sakonagoa eskatuko lukeen plangintza bat beharko litzateke.


Bestalde, ezagutzari buruzko taulan badira datu batzuk oso esanguratsuak erabileran bete-betean eragingo dutenak eta euskara sustatzeko plan batean kontuan eduki beharko liratekeenak: **euskaraz errazago hitz egiten dutenak %22,1** dira, **gaztelaniaz errazago egiten dutenak %42,6** dira eta **bietan berdin egiten dutenak %35,2**.

Bukatzeko, 2002ko neurketa honetan beste adin tarte (12-17) aztertu bada ere, **1988ko eta 1999ko** neurketen **emaitzak** aipatu nahi ditugu:

1988an 15-24 urte bitarteko gazteen %17,4 euskaraz mintzatzen ziren eta 1999an %22,7.

2002koa baino adin tarte zabalagoa hartzen dute bi neurketa horiek, halere, egokia iruditu zaigu datu horiek hona ekartzea, **erabileran aurrerapena baino atzerapena gertatu zela** adierazten baitute: 2002an 12-17 urtekoen gazteen arteko erabilera kalean %13,3koa izan zen.

Datuak grafikoan:



4.4. Eskola kirolean euskararen erabileraren neurketa 2004-2005 ikasturtean.

Irungo eta Hondarribiko Eskola Kirolak kirolaren nahiz hizkuntzaren ikuspegitik bizi zuen egoera ezagutzeko, Bidasoaldeko Kiroletako Lan-mahaiak ikerketa bat eskatu zion SIADECOrri 2004-2005 ikasturtean.

Hizkuntzaren ikuspegitik hona Hondarribiko **EMAITZAK**⁷:

-Hondarribiko ikastetxe guztietan egin zen neurketa:

Ikastetxea	Taldeen hizkuntza eredia	Taldeak	Partaideak	Hezitzaileak
Ama Guadalupekoa LHI-DBH	B	18	268	30
San Jose ikastetxea	B	9	100	14
Talaia LHI	D	20	206	29
Talaia DBH	D	4	52	4
Guztira		51	620	77

Entrenatzaileen euskara gaitasunari dagokionez, **%80k euskaraz** ongi hitz egiten zekien, ulertu bai eta hitz egin zerbait %12,9k eta %5,7k ez zekien euskaraz.

Datu hauen arabera, beraz, entrenatzaileen artean euskaldunak ziren nagusi.

Erabileraren datuei erreparatuz:

	Erdara bakarrik	Erdara euskara baino gehiago	Entrenatzaileak euskaraz eta ikasleek erdaraz	Informaziorik ez	Euskara erdara baino gehiago	Euskara bakarrik
Euskararen ahozko erabilera entrenatzaile eta ikasleen artean	%9,8	%17,6	%3,9	-	%13,7	%54,9
Euskararen erabilera ikasleen arteko ahozko harremanetan	%17,6	%31,4	-	-	%11,8	%39,2
Lehiaketa partiduetan	%19,6	%27,5	-	%2	%2,0	%49,0

LABURBILDUZ, datu hauek honakoa erakusten digute:

A)- Eskola Kirolean euskara ahozko harremanetan, ikasleen artean baino gehiago (%39,2) entrenatzailea eta ikasleen artean (%54,9) erabiltzen zela.

⁷ SIADECO (2005), Eskola Kiroleko kalitatea hobetzeko programa Bidasoaldean. 2004-2005 ikasturteko datu-bilketaren emaitzak. Hondarribiko Udala.

Hizkuntza Plangintza Hondarribian, diakronikoki eta sinkronikoki aztertuta

B)-1988ko eta 1999ko neurketen 0-14 urteko haurren euskararen erabilera kontuan hartuta, 2004-2005 ikasturteko Eskola Kirolean euskararen erabileraren indizea urte haietako baino dezente baxuago dagoela.

0-14 urteko haurrak kale erabileran	Eskola Kirolean ikasleen artean
1988: %45,8 1999: %48,0	2004-2005 ikasturtea: %39,2

Halere, lehiaketa partiduetan ikasleek erabiltzen zuten hizkuntzari erreparatuta, 1988ko eta 1999ko indizeen parekoa zela ikusten da, hau da, euskaraz bakarrik ikasleen %49,0.

4.5. Merkataritzan eta ostalaritzan 2002ko, 2006ko eta 2011ko euskararen erabileraren neurketak.

SIADeco enpresak Hondarribiko Udalarentzako egin zuen ikerketaren emaitzak eman ziren ezagutzera **2006ko** uztailan. Horrela laburtu zituzten Hondarribia aldizkarian⁸:

“Euskara Hondarribiko Merkataritzara” izeneko egitasmoa burutu da laugarren aldiz 2006. urte honetan. Herriko establezimenduetan euskararen erabilera sustatzea du helburu, eta merkataritza, ostalaritza eta bestelako zerbitzuetako establezimenduak bisitatu dira datuak lortu ahal izateko. (...)

2006ko otsailean herriko 267 establezimenduak bisitatu ziren. Horietatik inkesta erantzun dutenak 227 dira, 40k ez dutelarik erantzunik eman. (...) 3 hizkuntza aztertu dira: euskara, gaztelania eta frantsesa (...).

Hondarribiko merkataritza eta ostalarien artean **euskaraz dakitenen kopuruak gora egin du 2002tik hona**. Zehazki, 2002. urtean, merkataritza %55,2 euskalduna zen eta %18,5 ia euskalduna. Aurtengo datuek diotenez, euskaldunen kopurua puntu bat igo da, %56,2raino, eta ia euskaldunak %27,5 dira orain.”

SIADecok **2011n**⁹ ostalaritzan nahiz merkataritzan euskararen presentziaren ikerketa egin zuenean **2006ko datuekin konparaketa** egin zuen.

Goazen, beraz, hiru urte hauetako **GAITASUNA**ri buruzko DATUAK TAULATAN azaltzea:

	2006.urtea				2002. urtea			
	GUZTIRA	Txikikazko Merkataritza	Ostalaritza	Beste zerbitzuak	GUZTIRA	Txikikazko Merkataritza	Ostalaritza	Beste zerbitzuak
Euskaldunak	56.2	58.9	54.0	54.8	55.2	60.2	48.4	75.0
Ia euskaldunak	27.7	29.4	25.1	32.1	18.5	22.9	16.0	12.5
Erdaldunak	16.1	11.7	20.9	13.1	26.3	17.0	35.6	12.5

	2011. urtea			
	GUZTIRA	Txikikazko Merkataritza	Ostalaritza	Beste zerbitzuak
Euskaldunak	52.9	60.1	46.4	56.4
Ia euskaldunak	25.1	21.8	25.9	30.7
Erdaldunak	22.0	18.1	27.6	12.9

⁸ Hondarribia aldizkaria (2006), 188.zkia.

⁹ SIADeco (2011): “Euskara Hondarribiko merkataritzara”. 2011ko lan-egitasmoaren ebaluazio txostena.

-Datu orokorrei erreparatuz gero, EUSKALDUNAK 2002tik 2006ra gorantz egin zuten (%55,2etik %56,2ra) eta 2011n behera egin zuten duela bederatzi urte baino portzentaje txikiago batera (%56,2tik %52,9ra).

IA EUSKALDUNEK gorakada nabarmena izan zuten 2002tik 2006ra (%18,5etik %27,7ra) eta 2011n zeozer jaitsi ziren 2011n (%25,1).

ERDALDUNEK beherakada nabarmena izan zuten 2002tik 2006ra (%26,3tik %16,era) eta berriro %22rainoko gorakada 2011n.

Hortaz, esan genezake 2002tik 2011ra euskaldunen ehunekoak jaitsiera xumea izan duela, ia-euskaldunenak igotzeko joera, eta erdaldunen ehunekoak 2002tik 2006ra nabarmen behera (10 puntu) egin bazuen ere, 2011n berriro ere gora egin zuela (6 puntu).

-Sektoreka aztertuta:

A)-2011ko DATUAK.

2011ko establezimenduetako langileen hizkuntza gaitasuna Hondarribiko herritarren hizkuntz gaitasunarekin alderatu dugu.

2011	Euskaldunak	Ia-euskaldunak	Erdaldunak
Herritarrak	60%	23%	17%
Ostalaritzan	46,40%	25,90%	27,60%
Merkataritzan	60,10%	21,80%	18,10%
Beste zerbitzuetan	56,40%	30,70%	12,90%

Taulan adierazi bezala, herritarren %60 euskalduna da, %23 ia-euskalduna eta %17 erdalduna. Eta establezimenduetako langileen gaitasun-mailarekin konparatuz hauexek ondorio batzuk:

-Merkataritzako langileen eta herritarren hizkuntza gaitasuna ia berdina da. Izan ere, merkataritzan %60,10 euskalduna da, %21,80 ia-euskalduna eta %18,10 erdalduna.

-Ostalaritzan herritarren artean baino euskaldun gutxiago dago (ia 14 puntu) eta erdaldun gehiago (10 puntu).

-Beste zerbitzuetan herritarren artean baino zeozer euskaldun eta erdaldun gutxiago dago eta askoz ere ia-euskaldun gehiago (7 puntu gehiago).

Beste datu batzuk:

-Euskaldunak gehiengo dira esparru guztietan, ostalaritzan izan ezik.


-Ia-euskaldunen ehuneko handiena beste zerbitzuetan topatu dugu, ondoren ostalaritzan.

-Erdaldun gehien ostalaritzan dago.

-Euskaldunak eta ia-euskaldunak batuz gero, merkataritzan %81,9 euskaraz ulertzeko gai da, ostalaritzan %72,3 eta beste zerbitzuetan %87,1.

Sektore hauetan denetan euskararen aldeko sustapenean lan egin behar bada ere, datu hauek ikusita, gure ustez, lehentasuna ostalaritza sektoreak izan beharko luke.

B) BILAKAERA



Ostalaritzan:

- EUSKALDUNEN kopuruak 2002tik 2006ra gorantz egin zuen arren, berriro jaitsi egin zen eta **2011n 2002an baino bi puntu baxuago** dago: %48,4tik %54ra eta hortik % 46,4ra.

-IA-EUSKALDUNEN taldea **igo** egin da **urte hauetan denetan**.

-ERDALDUNEN portzentajea 2002tik 2006ra nabarmen jaitsi zen eta berriro ere **igo** egin da 2011n: %35,6---%20,9---%27,6.

Merkataritza:

- EUSKALDUNEN ehunekoa **ez da gehiegi aldatu urte hauetan**. Jaitsiera

Hizkuntza Plangintza Hondarribian, diakronikoki eta sinkronikoki aztertuta

xumea izan zuen 2006an, baina berriro 2002ko indizera iritsi zen 2011n: %60,1.

- IA-EUSKALDUNEN taldeko ehunekoa orain dela bederatzir urtekoaren antzekoa da.

- ERDALDUNEI dagokienez, 2002tik 2006ra ehunekoa jaitsi egin zen eta berriro 2011n **igo**: %17---%11,7---%18,1.

Beste zerbitzuak:

- EUSKALDUNEK nabarmen egin zuten behera 2002tik 2006ra eta gero zeozer igo 2011n: %75etik %54,8ra eta hortik %56,4ra.

- IA-EUSKALDUNEN taldeak nabarmen egin zuen gora 2002tik 2006ra eta 2011n bi puntu jaitsi arren, bere horretan geratu dela esan genezake.

- ERDALDUNEN ehunekoa ez da gehiegi aldatu urte hauetan. 2011n %12,9 da erdalduna.

Badirudi urteotako datuek erakutsi dituzten gorabehera hauek, establezimenduetan egin beharreko lanketa sakonago baten premia adierazten dutela.

AHOZKO ERABILERA

A)-2011ko DATUAK:

EUSKARAZ	Merkataritzan	Ostalaritzan	Beste zerbitzuetan	BATEZ BESTE
Langileen artean	%22,5	%20,9	%11,5	%19,7
Bezeroekin	%35,3	%27,7	%42,1	%33,3

-2011ko datuen arabera, bezeroekiko ahozko harremanetan euskararen erabilerarik altuena beste zerbitzuetan ematen da (%42,1) eta baxuena ostalaritzan (%27,7).

-Langileen artean bezeroekiko harremanetan baino erabilera baxuagoa ematen da orokorrean. Batez beste, %19,7 langileen artean eta %33,3 bezeroekiko harremanetan.

-Aipatzekoa da beste zerbitzuetan gertatzen dena: bezeroekiko harremanetan euskararen erabilerarik altuena erakusten duten bitartean, langileen artean erabilera mailarik baxuena ematen da. Badirudi beste zerbitzuetan euskara zerbitzu hizkuntza dela eta ez lan hizkuntza.

B)-BILAKAERA:

Ahozko harremanetan euskararen erabilerari dagokionez, datu hauek bildu dira 1988an, 2006an eta 2011n.

AHOZKOA	1988	2006	2011
Langileen artean	%31,8	%23,3	%20
Bezeroekin	%15,8 ¹⁰	%35,2	%34

Taulan ikusten denez, langileen artean euskararen ahozko erabilera jaitsi egin da, bezeroekiko harremanetan igo den bitartean. Hemen ere badirudi langileentzat euskara lan hizkuntza baino zerbitzu hizkuntza dela.

Honetaz gain, 2006an eta 2011n **bezeroekiko harremanetan** erabiltzen ziren **hizkuntzak** aztertuta:

BEZEROEKIN	Euskara	Gaztelania	Besterik
2006	%35,2	%57,1	%7,7
2011	%33,9	%61,4	%4,7

-Datuek adierazten dute euskararen erabilera jaitsi dela eta gaztelaniarena igo.

-Bezeroekiko harremanetan euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza baten erabilera ere aipatu behar da.

IDATZIZKOAREN ERABILERA

A)-ERROTULU NAGUSIA.

-2006an establezimenduen %33,9k euskaraz zeukan errotulu nagusia eta 2011n %31,4k.

-2011ko datu baten arabera, multzorik nagusia errotuluan marka edo izen propioa zutenak ziren (%42,2).

-Sektoreka 2011n, euskarazko errotuluen presentziarik altuena merkataritza establezimenduetan ematen da (%35,2 euskaraz edo ele bietan), zer edo zer baxuagoa da bestelako zerbitzuetan (%32,1), eta baxuagoa ostalaritzakoetan (%25,0). Azken honetan aipagarria da izen propioa besterik adierazten ez duten errotuluek (%48,0) duten pisua, ia erdia horrelako errotulua baita.

¹⁰ 1988ko ikerketa behaketa bidezkoa izan zen eta bezeroekin hizketan **bi hizkuntzak alternantzia** erabiltzen zituztenen datua eman zuten (**%60!**). 2006koa eta 2011koa, aldiz, inkesta bidezkoa izan ziren eta ez zen hizkuntzen alternantziaren datua jaso, beraz, ez dakigu euskaraz aritzen zirenek urte horietan ere bi hizkuntzak alternantzia erabiliz egiten zuten ala euskara hutsean. GAUR EGUN ere, leku askotan alternantzia hori ematen dela esango genuke.

B)-BESTELAKO IDATZIZKO ELEMENTUAK, KANPOKOAK NAHIZ BARRUKOAK.

2011ko diagnosiaren arabera,

“Euskararen erabilera **mailarik altuena, publizitate eta komunikazio iragarkietan (%37,8) eta** establezimenduen **kanpo aldean nahiz barnean** ipinitako **errotulu komertzial eta idazkietan ematen da (%33,9)**. Nabarmen baxuagoa da (...) bestelako euskarrietan (bisita txartelak, fakturak, kutxako tiketa...) (%20,2) eta oso-oso baxua establezimenduaren barne kudeaketarako dokumentuetan (kontu liburuak, gizarte segurantzako inprimakiak...) (%5).” (18.or)

Eta SEKTOREKA aipamen batzuk:

-**Merkataritzan datu orokorretan baino altuagoa** da euskararen idatzizko erabilera galdetutako **maila guztietan**: publizitatean, kanpoko eta barruko errotulazioan eta idatzietan...

-Bestelako zerbitzuetan batez bestekoan baino zertxobait altuagoa da euskararen erabilera kanpo eta barruko errotulazioan eta idazkietan.

-**Ostalaritzan**, aldiz, **euskararen maila baxuagoa da atal guztietan**, eta batik bat bezeroarekiko harremanetan erabilitako elementu desberdinetan (%14,74).

2010ean OSTALARITZAN egindako neurketa

Atal honi amaiera emateko, 2010ean Hondarribiko Udalak SIADECORI eskatu zion beste ikerketa baten emaitzak ekarri nahi ditugu orriotara, hain zuzen, **ikerketa ostalaritzako establezimenduetan soilik** egin zelako, hau da, 2011ko ikerketan bai langilegoaren ezagutza-mailan bai ahozko erabileran bai establezimenduko idatzizko elementuetan **euskararen presentzia baxuena eman zuen sektorean**.

Emaitzak labur:

-**Langileak: %48 euskaldunak**, %10 ia euskaldunak eta %42 erdaldunak.

-Establezimenduko **arduradunak: langileena baino ezagutza maila altuagoa** zuten. %62,3 euskaraz ongi edo nahikoa ongi hitz egiteko gai ziren, ia euskaldunak %7,4 ziren eta erdaldunak %30,3.

-**Idatzizko elementuetan hizkuntzaren erabilera:**

“Honela, ikus daiteke **errotulu nagusietan euskara hutsezko erabilera dela nagusi (%48,8)**; ordutegien %9,4 eta bisita txartelen %5,3 ere euskara hutsez dira, baina apenas dago gainerako elementurik euskara hutsean duen ostalaritza establezimendurik.

Establezimendu **barruko ageriko idazki eta oharren, menuen** eta aurkezpen/bisita txartelen **erdiak** gutxi gorabehera **erdara hutsez** daude, **eta beste erdiak euskaraz eta gaztelaniaz edota frantsesez.**

Eta gainerako elementuetan erdarazko erabilera da erabat nagusi: ordutegietan, ogitartekoen kartetan (...)ticketean, loteria-partizipazio txarteletan.”


11

¹¹SIADeco (2010): “Euskara Hondarribiko merkataritzara” egitasmoa. Ostalaritza establezimenduak.

4.6. Soziolinguistika Klusterra, Datu soziolinguistikoen bilduma. Hondarribia 1986-2011.

4.6.1. GAITASUNA

-Hondarribiko hiztunen euskara gaitasuna, 2011.



-Hondarribiko hiztunen euskara-gaitasunaren bilakaera, 1986-2011.

	1986		1991		1996		2001		2006		2011	
Euskaldunak	7.376	%58	7.725	%58	8.560	%60	8.858	%61	9.352	%61	9.557	%60
Ia-euskaldunak	2.069	%16	2.789	%21	2.670	%19	2.707	%19	3.113	%20	3.648	%23
Erdaldunak	3.281	%26	2.766	%21	2.930	%21	3.067	%21	2.976	%19	2.723	%17
Hiztunak	12.726	%100	13.280	%100	14.160	%100	14.632	%100	15.441	%100	15.928	%100


2011ko datuen arabera, euskaldunak biztanleen %60 dira, ia-euskaldunak %23 eta erdaldunak %17.

Eta azken hogeita bost urteotako datuek zera adierazten dute:

-Euskaldunak: portzentajea 2001a arte igotzen aritu zen eta azken hamarkadan zeozer jaitsi.

-Ia-euskaldunak: igoera nabarmena %16tik %23ra.


-Erdaldunak: ehunekoak behera egin du, %26tik %17ra.




Baina, Hondarribian gertatu dena ez da kasu isolatu bat, ez da hemengo egoera berezi bat.

Iñaki Lurrebasok egindako ikerketan¹² garbi ikusten denez, joera orokorra izan da. Hauxe:

1981ean euskaldunen dentsitatea %50-%60 zituzten udalerrietan “euskaldunen ehunekoan gora egin dute epealdi osoa kontuan hartuta, baina azken hamarkadan beherako joera apala hartu dute horiek ere.” (36.or.)



HONDARRIBIAN 1981ean euskaldunak hiztunen %57,1 ziren, hau da, %50-%60 euskaldunen dentsitatea zuten herrien multzoan sartuko litzateke eta bere bilakaera grafikoan:



Bi grafikoak begiratuta, hogeita hamar urteotan Hondarribian euskaldunen ehunekoaren igoera %50-%60 euskaldunen dentsitatea zuten herrietan baino igoera apalagoa eman dela ikusten da.

Izan ere, Hondarribian 1981ean euskaldunak hiztunen %57,1 ziren eta 2011n, berriz, hiztunen %60.

1981ean %50-%60ko euskaldunen dentsitatea zuten herrietan, ordea, 1981ean

¹² Iñaki Lurrebaso (2015): Udalerri euskalduna EAEn: egoera eta bilakaera, 1981-2011. Soziolinguistika Klusterra.Andoain.

euskaldunak %54 izatetik 2011n %62 izatera iritsi ziren.

-Hondarribiko euskara-gaitasuna adin-taldeka eta bere bilakaera, 1986-2011

	1986		1991		1996		2001		2006		2011	
2-14 urteko euskaldunak	2.327	%69	1.489	%69	1.428	%77	1.279	%73	1.418	%73	1.840	%82
2-14 urteko ia-euskaldunak	553	%16	479	%22	289	%16	324	%19	393	%20	257	%12
2-14 urteko erdaldunak	487	%14	201	%9	130	%7	142	%8	126	%7	135	%6
2-14 urteko hiztunak	3.367	%26	2.169	%16	1.847	%13	1.745	%12	1.937	%13	2.232	%14
15-34 urteko euskaldunak	1.482	%43	2.514	%56	2.982	%63	3.120	%68	2.874	%69	2.547	%73
15-34 urteko ia-euskaldunak	818	%24	1.177	%26	1.023	%22	813	%18	804	%19	499	%14
15-34 urteko erdaldunak	1.176	%34	831	%18	732	%15	632	%14	508	%12	441	%13
15-34 urteko hiztunak	3.476	%27	4.522	%34	4.737	%33	4.565	%31	4.186	%27	3.487	%22
35-64 urteko euskaldunak	2.674	%58	2.682	%53	2.957	%52	3.162	%51	3.636	%52	3.646	%49
35-64 urteko ia-euskaldunak	625	%14	1.005	%20	1.177	%21	1.333	%21	1.590	%23	2.330	%31
35-64 urteko erdaldunak	1.314	%28	1.379	%27	1.590	%28	1.753	%28	1.740	%25	1.436	%19
35-64 urteko hiztunak	4.613	%36	5.066	%38	5.724	%40	6.248	%43	6.966	%45	7.412	%47
>=65 urteko euskaldunak	893	%70	1.040	%68	1.193	%64	1.297	%63	1.424	%61	1.524	%54
>=65 urteko ia-euskaldunak	73	%6	128	%8	181	%10	237	%11	326	%14	562	%20
>=65 urteko erdaldunak	304	%24	355	%23	478	%26	540	%26	602	%26	711	%25
>=65 urteko hiztunak	1.270	%10	1.523	%11	1.852	%13	2.074	%14	2.352	%15	2.797	%18
HIZTUNAK	12.726	%100	13.280	%100	14.160	%100	14.632	%100	15.441	%100	15.928	%100

Taula hau oinarri hartuta mota askotako interpretazioak eta balorazioak egin litezke; datuok horrela laburtuko nituzke:

A) 2011ko datuei dagokienez, **2-14 urte** bitartekoak dira euskara gehien dakitenak, hots, adin horretakoen artean **%82 euskalduna** da (%6 baino ez erdalduna). Ondoren, **15-34** urte bitartekoak daude, alegia, adin horretakoen artean **%73 euskalduna** da. Jarraian, 65 urte baino gehiago dutenak aurkituko ditugu, hauen artean %54 euskalduna delarik. Azkenik, 35-64 urte bitartekoak; hauen artean %49 da euskalduna.

Beste datu batzuk:

-Ia-euskaldun gehien dagoen taldea: 35-64 urtekoak (%31).

-Erdaldun gutxien dagoen taldea: 2-14 urtekoak (%6), ondoren 15-34 urtekoak (%13).

-Erdaldun gehien dagoen taldea 65 urte baino gehiagokoak (%25).

B) Bilakaerari kasu eginez, 1986tik 2011 bitarte:

-Hogeita bost urteotan euskaldunen kopurua 2-14 urtekoen artean handitu da eta, batez ere, 15-34 urtekoen artean (30 puntuko igoera!).

	1986	2011
2-14 urtekoak	%69	%82
15-34 urtekoak	%43	%73

-Euskaldunen kopurua jaitsi da 35-64 urtekoen artean eta, batez ere, 65 urte baino gehiagokoaren artean (16 puntuko jaitsera!).

	1986	2011
35-64 urtekoak	%58	%49
65 baino gehiago	%70	%54

-la-euskaldunen kopurua hazi da 35-64 urtekoen artean (17 puntuko igoera) eta 65 urte baino gehiagokoaren artean (14 puntuko igoera).

	1986	2011
35-64 urtekoak	%14	%31
65 baino gehiago	%6	%20

-Erdaldunen kopurua adin-talde guztietan jaitsi egin da, 65 urte baino gehiagokoaren artean izan ezik.

	1986	2011
2-14 urtekoak	%14	%6
15-34 urtekoak	%34	%13
35-64 urtekoak	%28	%19
65 baino gehiago	%24	%25

HORRENBESTEZ, laburtuz, gaur egun Hondarribian **euskaldun gehien** dagoen adin-taldea **2-14 urtekoak** (%82) dira eta ondoren, **15-34 urtekoak** (%73).

Gainera, azken hogeita bost urteko **bilakaerari** begiratzen badiogu, adin-talde horietan ere **hazi da gehien euskaldunen** portzentajea:

- 2-14 urtekoen artean 13 puntuko hazkundera eta **15-34 urtekoen artean 30 puntuko hazkundera!**

Aipatzekoa da **65 urte baino gehiago** dutenen artean **euskaldunen** portzentajearen 16 puntuko **jaitsiera**.

Bestalde, gaur egun **erdaldun gehien** dagoen taldea **65 urte baino** gehiagokoak dira, %25, eta adin-talde honetan **azken hogeita bost urte hauetan ez da erdaldunen kopurua jaitsi** (1986an %24a zen).

Gainerako adin-taldeetan, ordea, **erdaldunen portzentajeak behera** egin du, batez ere, 2-14 eta 15-34 urtekoen artean (%6a da 2-14 urtekoen artean eta %13a 15-34 urtekoen artean)

Azkenik, gaur egun **ia-euskaldun gehien** dagoen taldea **35-64 urte** bitartekoak dira eta nabarmendu egingo genuke 1986tik 2011ra horien portzentajearen gorakada, %14tik %31ra (17 puntu).


65 urtetik gorakoen artean ere ia-euskaldunen ehunekoak gora egin du: 1986an %6a, 2011n %20a.

Beste modu batera esanda, zenbat eta gorago adinean orduan eta jendea erdaldunagoa, eta zenbat eta beherago orduan eta jendea euskaldunagoa.

Haurrak (%82) eta gazteak (%73) euskaldunak dira gehien bat; helduen artean erdia euskalduna da eta beste erdia ia-euskalduna (%31) edo erdalduna; adinekoen artean ere erdia euskalduna da eta beste erdia ia-euskalduna edo erdalduna (%25).

4.6.2. LEHEN HIZKUNTZA

-Hondarribiko hiztunen lehen hizkuntza, 2011.



-Hondarribiko hiztunen lehen hizkuntza. Bilakaera 1986-2011.

	1986		1991		1996		2001		2006		2011	
Euskara	6.520	%51	6.730	%51	7.107	%50	6.530	%45	6.528	%42	6.509	%41
Gaztelania	5.021	%39	5.374	%40	5.953	%42	6.255	%43	6.937	%45	7.198	%45
Biak	1.022	%8	1.046	%8	950	%7	1.593	%11	1.663	%11	1.733	%11
Beste bat	163	%1	130	%1	150	%1	254	%2	313	%2	488	%3
Hiztunak	12.726	%100	13.280	%100	14.160	%100	14.632	%100	15.441	%100	15.928	%100

A) 2011ko datuek adierazten dute **hondarribiarren %41en** lehen hizkuntza **euskara** dela eta **%45ena gaztelania**. Biak %11rena eta bestelako hizkuntza bat %3rena.

B) 1986-2011 **bilakaerari** erreparatuz honakoa ikusten da:

- **1986tik 1996ra** bitarte euskara zela hondarribiarren lehen hizkuntza, **gaztelania 10 puntura** zegoelarik.


-**2001etik aurrera** euskara eta gaztelania **parekatzen** hasten dira eta 2006an eta **2011n**, alde handirik gabe baina, **gaztelania da** hiztunen **lehen** hizkuntza.

-Urteotan poliki bada ere, hazkunde txiki bat ere aipatu behar da: hiztunen lehen hizkuntza euskara eta gaztelania ez den **beste hizkuntza baten hazkundea**.

Iñaki Iurrebasok bere ikerlanean aipatu bezala, azken hogeita bost urteotan


lehen hizkuntza euskara duten herritarren kopuruak behera egin du **EAEn** eta **jaitsiera** hau, batez ere, 2001-2011n gertatu da. Datuak dentsitate multzoen arabera aztertuta, ehunekoak behera egin du dentsitate multzo guztietan, erdaldunean izan ezik. Gainera, **beherakada handiagoa izan da, zenbat eta euskaldunen dentsitate handiagoa** zuten udalerrietan.

Hondarribiko datuek ere euskaldunen dentsitatea %50-%60 duten udalerrien beheranzko joera bera erakusten dute.



4.6.3. ETXEKO HIZKUNTZA

-Hondarribiko hiztunen etxeko hizkuntza, 2011.



-Hondarribiko hiztunen etxeko hizkuntza. Bilakaera 1991-2011.

	1991		1996		2001		2006		2011	
Euskara	4.224	%32	4.524	%32	4.188	%29	4.231	%27	4.685	%29
Gaztelania	6.080	%46	6.708	%47	7.143	%49	8.072	%52	8.612	%54
Biak	2.907	%22	2.861	%20	3.185	%22	3.074	%20	2.341	%15
Beste bat	69	%1	67	%0	116	%1	64	%0	290	%2
Hiztunak	13.280	%100	14.160	%100	14.632	%100	15.441	%100	15.928	%100

A) 2011ko grafikoan garbi ikus daiteke Hondarribiko hiztunen erdia baino gehiagoren (**%54**) **etxeko hizkuntza gaztelania** dela. **Euskara %29**arena da eta **biak %15**ena. Azkenik, Hondarribiko etxeetan euskara eta gaztelania ez den **beste hizkuntza baten** presentzia aipatu behar da: **%2ren** hizkuntza da.

B) 1991-2011 urte bitarteko **bilakaera**:

-**Urteotan gaztelania beti** izan da **nagusi** Hondarribiko etxeetan, baina **2006tik aurrera are gehiago**: hogeita bost puntuko aldea dago gaztelaniaren alde. Hau da:

1991n etxeko hizkuntza euskara %32 eta gaztelania %46; hogeit urte beranduago etxeko hizkuntza euskara %29 eta gaztelania %54.

Hizkuntza Plangintza Hondarribian, diakronikoki eta sinkronikoki aztertuta

Bestalde, datuek erakusten dute gaztelania etxeko erabilera beti nagusi izan bada ere, hogei urteotan pixkanaka igotzen eta euskararen erabilera jaisten aritu dela.

-2006tik 2011ra euskara eta gaztelania ez den **beste hizkuntza baten erabilera ageriago** egin zen etxeetan: 64 hiztun izatetik 290ra pasa zen bost urtean (**%0tik %2ra**).

Bestalde, **Iñaki Lurrebasoren ikerlanean** honelaxe dio:

“Horrela, euskararen erabilerak gora egin du eta gaztelaniarenak behera hiru multzo erdaldunenetan, abiapuntuko ezagutza maila %30etik behera zuten udalerrietan. Aitzitik, gainerako multzo guztietan behera egin du euskararen erabilerak eta gora gaztelaniarenak. Zenbat eta jatorriz euskaldunagoa multzoa, orduan eta gehiago egin du atzera euskararen erabilerak eta aurrera gaztelaniarenak. (...)”

Euskararen erabilerak udalerrri euskaldunetako etxeetan izan duen atzerakadak azken hamarkadan hartu du indar gehien, 1991-2001 hamarkadan ere gertatu den arren.” (39.or)

	1991	1996	2001	2006	2011
Euskaldunak %50-%60 diren herrietan *	%38,2		%36,3		%33,3
Hondarribian	%32	%32	%29	%27	%29

*Hiru urte horietako datuak ageri dira Lurrebasoren lanean.

Dentsitate multzoan gertatu den berbera ez da Hondarribian pasa. **Badirudi Hondarribian beheranzko joera askoz ere apalagoa izan dela** eta motelago joan dela %50-%60 dentsitate multzoan baino.

Gainera, 2001-2011 urteetan erabilera ez da jaitsi, mantendu baizik; 2006an bai, behera egin zuen eta 2011n, berriz, gora.

-Hondarribiko hiztunen etxeko hizkuntza adin-taldeka. Bilakaera 1991-2011.

	1991	1996	2001	2006	2011
Euskara (2-14)	%34	%34	%32	%28	%36
Gaztelania (2-14)	%40	%38	%39	%45	%48
Biak (2-14)	%25	%28	%28	%27	%15
Beste bat (2-14)	%1	%1	%1	%0	%1
Hiztunak (2-14)	%16	%13	%12	%13	%14
Euskara (15-34)	%25	%28	%27	%27	%27
Gaztelania (15-34)	%49	%49	%48	%53	%51
Biak (15-34)	%26	%23	%24	%20	%18
Beste bat (15-34)	%0	%0	%1	%1	%3
Hiztunak (15-34)	%34	%33	%31	%27	%22
Euskara (35-64)	%32	%30	%25	%25	%26
Gaztelania (35-64)	%48	%51	%54	%56	%58
Biak (35-64)	%20	%19	%21	%19	%14
Beste bat (35-64)	%1	%0	%1	%0	%2
Hiztunak (35-64)	%38	%40	%43	%45	%47
Euskara (>=65)	%49	%47	%41	%35	%35
Gaztelania (>=65)	%37	%41	%44	%47	%53
Biak (>=65)	%13	%12	%15	%18	%11
Beste bat (>=65)	%1	%0	%1	%0	%1
Hiztunak (>=65)	%11	%13	%14	%15	%18

Lehenik eta behin, **2011**ko datuei erreparatuz, esan behar dugu **etxean euskara gehien** hitz egiten duten adin-taldeak **haurrak eta adinekoak** direla (%36 eta %35 hurrenez hurren). **Gaztelania**, berriz, **helduek** hitz egiten dute gehien (%58), nahiz eta gainerako adin-taldeak ehuneko horretatik oso urruti ez ibili.

Bestalde, 1991tik 2011ra BILAKAERA aztertuz:

a)-2-14 urteko hiztunak: 2001ean eta 2006an euskarak beheraznko joera erakutsi zuen arren, 2011n 2-14 urtekoen **euskararen erabilera** etxeetan **gora** egin du datuen arabera. Euskara **1991n, %34; 2011n, %36**.

Gaztelaniak, bestalde, 1996tik aurrera, eta batez ere 2006tik, **goranzko** joera erakutsi du. **Gaztelania 1991n, %40; 2011, %48**

Haurren adin-multzoan gaztelaniaren etxeko erabileraren hazkundera euskararena baino handiagoa izan da hogeitun urtean: gaztelania 8 puntu, euskara 2 puntu.

b)-15-34 urteko hiztunak: 1991etik 2011ra **euskararen** erabilerak **2 puntu**ko igoera izan du, 1991ean %25 eta 2011n %27 izan delarik. **Gaztelaniaren** erabilerak adin tarte honetan **2 puntu**ko igoera ere izan du hogei urte horietan (%49tik %51ra).

Aipagarria da euskara eta gaztelania ez diren **beste hizkuntza baten erabileraren igoera**: 1991n %0 izatetik 2011n %3 izatera pasa da.

Haurren adin taldean ez bezala, gazteen etxeko erabileran gaztelaniak nahiz euskarak hazkunde berbera izan dute hogei urtean, biak 2 puntukoa.

c)-35-64 urteko hiztunak: adin tarte honetan **euskararen** erabilerak **sei puntu**ko beherakada izan du hogei urteotan. 1991n %32 izatetik 2011n %26 izatera iritsi da. Eta **gaztelaniak**, berriz, **hamar puntu**ko igoera; 1991n %48 izatetik 2011n %58ra ailegatu da.

Adin tarte honetan ere, euskara eta gaztelania ez diren **beste hizkuntza baten erabileraren igoera** era sumatu da: 1991n %1etik 2011n %2ra igo da.

Helduen adin-taldean hogei urtean gaztelaniak nabarmen egin du gora etxeko erabileran (10 puntu), euskararen erabilera jaitsi den bitartean (6 puntu).

d)-65 urtetik **gorako** hiztunak: **euskarak** izan duen **jaitsierarik** eta **gaztelaniak** izan duen **igoerarik nabarmenenak** adin tarte honetan gertatu dira.

Euskararen erabilera etxeetan 1991n %49koa zen eta hogei urte beranduago %35 (14 puntu gutxiago). Gaztelaniaren erabilera etxeetan 1991n %37koa zen eta 2011n %53koa (%16 puntu gehiago).

Adinekoen artean hogei urtean eman da euskaren etxeko erabileraren jaitsierarik handiena (14 puntu gutxiago) eta gaztelaniaren igoerarik handiena (16 puntu gehiago).

HORRENBESTEZ,

Gaur egun, etxean euskara gehien hitz egiten duten adin-taldeak haurrak eta gazteak dira eta gaztelania gehien hitz egiten dutenak helduak.

Bestalde, bilakaerari dagokionez, haurren eta gazteen adin-taldeetan euskararen etxeko erabilerak igoera xumea ezagutu du azken hogei

urteotan eta, helduen eta adinekoen artean azpimarratzeko jaitsiera.

Gaztelania izan da hogeit hamar urteotan etxeko erabileran nabarmen igo den hizkuntza, batez ere helduen eta adinekoen adin-taldeetan. Gazteen adin-taldean igoera gertatu bada ere, haurren adin-taldean gaztelaniak izan duen zortzi puntuko hazkundeak aipatu eta kontuan hartu behar da.

5. HONDARRIBIAN EUSKARAREN NORMALIZAZIOAN EGINDAKO LANA.

5.1) Irakaskuntza.

5.2) Helduen euskalduntzea.

5.3) Herri mugimenduak.

5.4) Hondarribiko Udala. HISTORIKOA: EBPN/ ESEP plangintzen aurreko lana.

5.1. Irakaskuntza.

Hasteko bitxikeria moduan mende batzuk atzera egingo dugu Hondarribian XVIII. mendeko gertakizun bat azaltzera¹³.

Garai hartan Udal eskola bakarra zegoen eta maisu berriari egin zioten kontratuan baldintzen artean euskarari zegokiona honako hauze izan zen:

“Que el dicho Aramburu haia de poner toda la posible aplicacion y cuidado en que los muchachos dentro y fuera de la Escuela ablen castellan poniendo para el efecto las precauciones necesarias como son Anillos señales Fiscales y otros equivalentes castigandolos en defecto siendo necesario. (...)”

Zorionez, garaiak aldatu egin dira.

Hondarribian **1965-1966** ikasturtea aipatzekoa da, orduan sortu baitzen **Hondarribiko Ikastola**¹⁴.

Garai zail haietan ikastetxe guztietan gaztelaniaz irakasten zen. Euren seme-alabak euskaraz hezteko helburuz hainbat guraso elkartu ziren eta Jose Ormazabal apaizarekin hitz egin ondoren San Jose ikastetxean gela bat eskaini zitzaien. Etxez etxe eta lagun artean galdetu ondoren, 26 haur biltzea lortu zuten.

Legez onartuak ez zeudenez, Ikastola Elizaren babesean jaio zen eta

¹³ XVIII. mendeko irakaskuntzari buruzko informazio hau Hondarribia aldizkari 40. alean irakur liteke osorik.

¹⁴ Informazio-iturria I. Nogerasek Hondarribia aldizkarian idatzitako artikuluak izan dira. (HOND, 91.zkia. eta 92. zkia.)

Hondarribian "Kristau Ikasbidea" bezala ezagutzen zen. 26 ikasle haietatik 16 neska ziren eta 9 mutil. Nesken notak San Jose ikastetxeko zuzendariak sinatzen zituen eta mutilenak Hondarribiko La Salle ikastetxeko zuzendariak.

Urte haietan aitortza berezia merezi duen lan izugarria egin behar izan zuten ikastolako irakasleek eta gurasoek.

1975-1976 ikasturtea arte egon ziren San Jose ikastetxeko ikasgela haietan eta gela gehiagoren premiagatik Biteri eskola zaharrera pasa ziren.

Handik aurrera haurren izen-ematea handitu ahala, Ikastola bestelako eraikinetan ere egon zen: Jaizubiko ikastetxean, Arma Plazan, Pedro Aginagalden...

80. hamarkadaren erdi aldera Ikastola Eusko Jaurlaritzaren eskuetara pasa zen Ikastolako gurasoen Batzarrak halaxe erabakita.

1996an Hondarribiko Biteri-Soroeta Eskola, Hondarribiko Ikastola eta Institutua batu egin ziren. TALAIA izena jarriko zioten sortutako ikastetxe berriari. Gaur egun, Talaiako ikasleak lau eraikinetan banatuta daude: alde batetik, Talaiia institutua (DBH eta Batxilergoa) eta, bestetik, Talaiia Eskola (Satarka ikastetxean HH2, HH3, Biteri ikastetxean HH4, HH5 eta LH1, LH2 eta Bordari ikastetxean LH3-LH6).

Talaiaz gain, Hondarribian gaur egun **beste bi ikastetxe** daude, **Ama Guadalupekoa ikastetxea** bata, **eta San Jose ikastetxea** bestea.

Bi ikastetxe hauek ere ibilbide luzekoak dira eta ondo errotuta daude herrian.

Bietan A ereduan irakastetik B eta D ereduan irakastera pasa dira: San Jose ikastetxeak D eredua dauka ezarrita ikasketa prozesu osoan (DBHn ere B eredua badu) eta Ama Guadalupekoak, aldiz, ikasketa mailaren araberako eredu ezberdina dauka: Haur Hezkuntzan D eta B ereduak, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan B eredua eta Batxilergoan A eredua.

Jarraian, hainbat ikasturtetako datuak azalduko dira **EREDUEN BILAKAERAZ** jabetzeko:

EREDUEN BILAKAERA HONDARRIBIAN

	A eredia		B eredia		D eredia	
	Ikasle kopurua	%	Ikasle kopurua	%	Ikasle kopurua	%
1999-2000 ikasturtea	84	%6	854	%42	1.067	%52
2005-2006 ikasturtea	70	%3	821	%37	1.352	%60
2015-2016 ikasturtea	90	%4	642	%24	1.905	%72

Iturriak: HOND, 106 zk. eta 180.zk

Datuetan ikusten denez, hamabost urteotan **D ereduaren aldeko bilakaera** nabaria eman da Hondarribian, 20 puntuko igoera izan duelarik. Gaur egun, ikasleen %72k eredu honetan ikasten du.

B ereduan eskolatutakoen indizea, berriz, hamabost urteotan **jaitsi** egin da (18 puntu) eta **A ereduan** eskolatutakoena alde handirik gabe bere horretan **mantendu** dela esan genezake (ikasleen %4a A ereduan ikasten du gaur egun).

EREDUEN BILAKAERA IKASTETXEETAN

	TALAIIA ikastetxea						TALAIIA institutua						AMA GUADALUPEKOA ikastetxea								SAN JOSE ikastetxea												
	HH			LH			DBH			Batxilergoa			HH			LH			DBH		Batxiler goa			HH			LH			DBH			
	A	B	D	A	B	D	A	B	D	A	B	D	A	B	D	A	B	D	A	B	D	A	B	D	A	B	D	A	B	D	A	B	D
1999-2000 ikasturtea			X			X			X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
2005-2006 ikasturtea			X			X			X			X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
2015-2016 ikasturtea			X			X			X			X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Taulan ikusten denez,

-**Talaia ikastetxean** D ereduan ikasten da ikasketa prozesu osoan, hots, Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara azken hamabost urteotan.

-**Talaia institutuan** duela hamabost urte Derrigorrezko Bigarren

Hezkuntzan D ereduaren ikasten zen eta Batxilergoan A ereduaren eta D ereduaren. Gaur egun ere DBHn D ereduaren ikasten da, eta Batxilergoan A ereduaren desagertu egin da eta D ereduaren irakasten da.

- **San Jose ikastetxeak** duela hamabost urte B ereduaren irakastetik gaur egun ikasketaren prozesu osoan D ereduaren irakastera pasa da (DBHn badira gaur egun batzuk B ereduaren ikasten dutenak).

-**Ama Guadalupekoa** ikastetxean Haur Hezkuntzan D eta B ereduaren irakasten da gaur egun, eta baita duela 15 urte ere.

Lehen Hezkuntzan gaur egun B ereduaren irakasten da duela hamabost urte bezala, baina duela hamar urte D eta B ereduaren irakasten zen. Beraz, D ereduaren desagertu egin da Lehen Hezkuntzatik.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan duela hamabost urte bezala gaur egun ere B ereduaren irakasten da.

Batxilergoan duela hamabost urte B eta A ereduaren irakasten zen, baina duela hamar urte A ereduaren bakarrik, gaur egun bezala.

Datu hauen arabera, *Ama Guadalupekoa ikastetxean zenbat eta ikasketaren maila altuagoa izan, orduan eta euskararen presentzia txikiagoa dago ikasketetan.*

EREDUEN BILAKAERA ZIKLOKA

Ereduen bilakaera zikloka aztertzeko, 1999-2000 ikasturtea eta 2015-2016 ikasturtea aukeratu ditugu:

		1999-2000 ikasturtea		2015-2016 ikasturtea	
		Ikasleak	%	Ikasleak	%
HH (2-5 urte)	D	365	%70	555	%87
	B	160	%30	83	%13
LH (6-11 urte)	D	344	%46	826	%73
	B	396	%54	310	%27
DBH (12-15 urte)	D	243	%45	423	%63
	B	296	%55	249	%37
Batxilergoa (16-17 urte)	D	135	%56	101	%53
	B	22	%9		
	A	84	%35	90	%47
GUZTIRA		2.045		2.637	

Taulan ikusten denez, Hondarribian **ziklo guztietan** hamabost urteotan eboluzioa **D ereduaren aldekoa** izan da nabarmen, **Batxilergoan izan ezik**.

Batxilergoan D ereduak hiru puntuko jaitsiera izan du (%56tik %53ra) eta **A ereduak hamabi puntuko igoera** (%35etik %47ra).

Bestalde, **zenbat eta zikloa altuagoa** izan, orduan eta **portzentajea txikiagoa da D ereduan** eta handiagoa B ereduan. Hau da,

-D ereduan HHn %87, LHn %73, DBHn %63 eta Batxilergoan %53.

-B ereduan HHn %13, LHn %27, DBHn %37 eta Batxilergoan %0.

-A ereduan Batxilergoan %47.

Eta, azkenik, **hausnarketarako** datu bat: 16-17 urte bitarteko gazteen **%47k A ereduan** ikasten du gaur egun **Hondarribian** (1999-2000 ikasturtean %37k eta 2005-2006 ikasturtean %54k).

Gure iritziz, gazte hauen ingurune soziolinguistikoa (familia, lagunak...) euskalduna izan beharko du edota aisialdian egiten dituzten jarduerak euskaraz izan beharko dute, edota euskaraz mintzatzeko gogoia eta kontzientzia izan beharko dute... euren egunerokoan dakitena erabiltzeko eta ez herdoiltzeko.

EZAGUNA eta EREDUGARRIA da Euskal Herrian **irakaskuntzan** egindako lana euskararen sustapenean, eta **Hondarribian ere lan handia** egin da horretan. Hori aitortu egin behar da. **Irakaskuntzari zor** dizkiogu gaur egungo haurren eta gazteen euskararen **ezagutza indize altuak**.

Halere, Hondarribia aldizkariko 1. alean adierazi zutena gehitu nahiko genuke:

"Hau ikusita, Hondarribiko eskoletan dabilzan 2.247 haurretatik, erdia baino gehiago euskaldunak dira edo euskalduntzeko bidea aukeratu dute. Lan hau ezin da utzi eskoletako eskuetan bakarrik. Herriak ere zer esanik badu! Denen baitan dago arazo hau bideratzeko! (...) LOLI" (HOND, 1. zkia.)

Azkenik, irakaskuntzaren **beste hainbat erronka** azalduko ditugu:

1- Erronka ezaguna da eskolan ikasitakoa kanpoan ere erabiltzea nahi dela, baina badago ikastetxe barruan bestelako erronka bat: eskolan ikasitako

euskara eskolan bertan ere **erabilia** izatea, euskara eskola barruko harremanetarako hizkuntza izatea.

2002ko neurketa batean (txosten honen 4.3 atalean) gazteen %43,5ek irakaslearekin, %18,7k ikaskideekin gelan eta %12,6k patioan egiten zuen euskaraz. Egungo daturik ez dugun arren, zabaldua dagoen kezka da haurrek gero eta gazteago egiten dutela gaztelaniaz ikastetxean bertan.

2- Honetaz gain, garai hauetan euskaraz **komunikatzeko estandarrak malgutzeaz** eta aberasteaz hitz egiten ari gara, hau da, zuzentasunaren irizpide bakarretik komunikagarritasunarena eta adierazkortasunarenera pasatzea.

Gauza bera esan zuen 1991n J.A. Letamendiak Hondarribia aldizkarian¹⁵:

"Egungo gaitza (...). Belaunaldi berriko euskaldun askok ba omen dakite h non ezarri, baita ekuazio, inekuazio eta buruketa bihurriak euskara zaluz ebazten (...) baina hala eta guztiz motz dabilzkizu (gabilzkizu) poz-haserreak euskaraz adierazi edota txiste arrunt bat kontatzeko garaian. Nolabait, premiazkoa genuen ikasgelako euskara aseptikoa lortu dugu baina bitartean bizitzakoa indargabetzen utzi dugu. (...)."

¹⁵ Osorik irakurtzeko jo eranskinetako 10.2.11 puntura.

5.2. Helduen euskalduntzea.

1986ko Hondarribia aldizkariko 7. zenbakian euskara ikasteko deia irakur genezake:

“Baina, gizon edo emakume jakitun hauei bi gauza esan nahi genieke: batetik, gure AMA EUSKARA ere ikasi eta landu egin behar dela, euskara ongi menderatzen ez duen edozeini, asko falta zaiolako oraindik.

Hondarribian asko dira, zoritxarrez, euskaraz mintzatzeko kapaz ez diren ikasleak. Guraso batzuk ez diete irakatsi euskara beuren seme-alabei; eskolarako orduan ere, ez dituzte ikastolara bidali; kalean eta etxean erdaraz egiten dute barra-barra; eta orain adin heldura iristen direnean, ez dira mintzatzeko gauza.

Beste batzuk badakite, bai, euskaraz hitz egiten; baina ez dakite euskaraz idazten eta irakurtzen. (...)

Guzti hauei egiten diegu deia, gure euskara ikasi eta landu dezaten. Bada aukera hartarako hemen herrian bertan: AEK, gau eskolak.” (HOND, 7.zk.)

SIADecok 1988an burututako azterketa soziolinguistikoan Hondarribiko helduen-euskalduntze alfabetatzearen historia eta garaiko egoera jaso zuen¹⁶. Hauxe da bertan emandako azalpena:

“-Lehenik **Klink** elkarte sortu zen. Elkarte hau bereziki **haurrek euskalduntzera** zuzendua zegoelarik. 1972 urtean sortu zen 45 ikaslerekin.

Geroztik jarraitu du 1975ean 15 ikaslekin (gazte-helduak), 1980an 15 ikaslekin (gazte-helduak), 1985ean 10 ikaslekin (gazte-helduak), 1988an 3 ikaslekin (gazte-helduak).

-Gero **Hondarribiko AEK** sortu zen 1975ean 300 ikaslekin, 1980an 200 ikaslekin, 1985ean 150 ikaslekin, 1988an 103 ikaslekin.

-Azkenik, 1981 geroztik **HABE** erakundeak sorturiko barnetegi bat ere bada 90 ikasleekin Hondarribian. Bertan ikasten ari direnak hondarribitarrak ez direnez ez ditugu hemen kontuta hartzen.”

1988an Udal Euskara Kontseiluak hurrengo ikasturterako **euskaltegi**

¹⁶ SIADecO (1988). Gazte eta helduen euskalduntze-alfabetatzea IN Hondarribiko Azterketa Soziolinguistikoa. II. ZATIA: Euskararen presentzia bizitza sozialean. 1. liburusk. 130. or. 1988ko uztaila. Donostia.

publiko bat irekitzeko asmoa erakutsi zuen eta horretarako Hondarribiko AEKrekin, HABEKO inspektorearekin eta Irungo Udalarekin izan zituen elkarrizketak. (HOND, 20.zk.)

1988-1989 ikasturtean Herri Euskaltegia sortu zen. Hasieran euskaltegiaren kokapena izan zen arazoa eta, adibidez, 1988ko maiatzaren 5eko Plenoko puntuetako batean gaiari buruz aritu ziren:

“(...) Harresilandako etxea euskaltegi bihurtzeko projektua (...) HBko ordezkariak etxe hori Amuitzak, Euskal Herrian Euskaraz, eta AEKri zor zaiela defenditu zuten. Azkenean, ordea, beste taldeen botuez onartu zen euskaltegia egiteko projektua, baina gela banaketa HABE legeak eskatzen dituen arauak egokitzeko baldintzarekin. (...)” (HOND, 22. zk.)

Azkenean, 1.ikasturtean neguan Mugaire etxeko hiru gela eta Biteri eskolako gela bat erabili zituzten eta udan Kiroldegiaren ondoko Alondegia egokitu zitzairen.

Jarraian Hondarribian aldizkarian (HOND, 33.zk.) irakur litekeen **1. ikasturtearen balantzea**:

“140 ikasle, 11 talde (5 goi-mailakoak), 6 irakasle izan ziren 1988-89 ikasturtean. Ikasleen adina, batzaz beste, 25 urte eta hondarribiarrak jaiotzez ikasleen %54. Azkenean, neguan Mugaire etxeko 3 gela eta Biteri eskolako gela bat erabili bazuten ere, “uda ikastaroak behar legez emateko eta behin betirako kokalekua izango delakoan, Polikiroldegiaren ondoko Alondegia egokitu zitzaigun.”

Bigarren ikasturtearen balantzea are positiboagoa izan zen 162 ikasle eta 14 talde izan baitzituzten:

“**eskererakutsia** eman nahi genieke gure aurretik euskeraren beharra (praktikoa eta bestelakoa) herritarrari helarazten saiatu den edonori, eta nola ez euskera erakusten aritu den orori. Guztiak aipatu nahi ditugu: Auzo elkarteetan klaseak eman zituztenak, Institutoan eman zituztenak, zenbait Elkarteren bidez (Klink, Marlaxka, Kerizpe...) eman zituztenak, eta batez ere Ikastolan, Gau eskoletan eta AEKn klaseak ematen aritu direnak.” (HOND, 40.zk.)

Herri Euskaltegiaren ibilbide eta funtzionamendu ona ikusirik, Hondarribiko Udalak **1991**ko martxoaren 21ean **Udal Euskaltegia sortzeko** eskaera egin zion HABEri eta HABEK ontzat eman zuen.

Udal Euskaltegiaren **hogeita bost urteko ibilbide** luze honetan **MATRIKULAZIOAN GORA-BEHERAK** izan dira.

	1988-1989 ikasturtea	1989-1990 ikasturtea	1997-1998 ikasturtea	2001-2002 ikasturtea	2006-2007 ikasturtea	2015-2016 ikasturtea
Ikasle kopurua	140	162	115	<100	200	290

Ikasleak ia ehunera iristen ez ziren garai zailak pasata, aurreko taulan ikusenezake hamar urtean matrikulazioa bikoiztu egin dela eta hemezortzi urtean hirukoiztu.

2006-2007 ikasturteko **gorakadaren arrazoi**etako bat **modulu txikien sistema** izan zela argitu zuen Arantxa Ezeiza Udal Euskaltegiko zuzendariak (HOND, 192.zk.).

Modulu txikien, hau da, bi eguneko edota astean ordu gutxiagoko moduluen gero eta eskaera handiagoa jasotzen zutela ikusirik, euskaltegiak horiek antolatzeke apustua egin zuen eta izen-ematea bikoiztea lortu zuten.

Gainera, modulu horien **kostua** HABEK finantzatzen ez zuenez, **Hondarribiko Udalak bere gain** hartzea erabaki zuen.

Urteotan denetan euskaltegia garaian garaiko beharrei egokitzen aritu da. Irakasleen formakuntza etengabekoa (izan) da eta garaian garaiko ikasleen beharrei erantzuteke modulu bereziak sortu izan dituzte, hala nola, HABEK finantzatzen ez zituen ordu gutxiko moduluak, gurasoei edota merkatariari zuzenduriko ikastaroak... eta, gaur egun esaterako, garaiko eskaerari egokitutako C2 mailako eta On-line ikastaroak eskaintzen ditu.

Hala ere, esan behar da matrikulazioaren gorakadak azpiegitura egokiago baten beharra erakutsi duela. Izan ere, matrikulazioak goranzko joerarekin jarraituz gero, espazio faltagatik ezingo liokete eskaerari erantzun.

Bestalde, matrikulatzen diren **IKASLEEN ADIN**ari erreparatuz, ondoko taulan azken hogeitun urteotan aldaketa handiak eman direla ikusiko dugu:

	16-20 urte	21-30 urte	31-40 urte	41-50 urte	>51 urte
1997-1998 ikasturtea	%20	%30	%30	%15	%5
2015-2016 ikasturtea	%5	%12	%24	%31	%27

Iturria: 1997-1998 ikasturteari buruzkoa Hondarribia aldizkarian, 83. zenbakian.

Adin-piramidea irauli egin dela esan genezake, hau da:

Duela hogeit hamar urte zenbat eta gorago joan adinean orduan eta matrikulazio gutxiago, gaur egun, ordea, zenbat eta gorago adinean, orduan eta jende gehiago matrikulatuta.

Beste modu batera esanda, 1997-1998 ikasturtean %50a 16-30 urte bitartekoa zen eta gaur egun %17a baino ez da.

41 urtetik gorakoak, aldiz, 1997-1998 ikasturtean %20 ziren eta gaur egun %58.

Aldaketa handia da eta ziurrenik **irakaskuntzan egindako lanaren ondorioa**. Izan ere, irakaskuntzaren atalean azaldu bezala, D eremuan eskolatutakoak hogeit hamar urtean hogeit hamar puntu hazi dira, %52tik %72ra.

Bestalde, hasierako ikasturteetan klaseez gain **MAKINA BAT EKINTZA** antolatzen ziren. Izan ere, euskaltegiaren helburua euskara ikasteaz gain, **euskal hiztunak sortzea** ere bada eta hizkuntza bat ondo ikasteko erabili behar dela garbi dago.

1997an "Disfrutatuz euskara ikasi" izeneko artikuluan euskara ikasteko giro atseginak ere laguntzen zuelakoan euskaltegiak antolatzen zituzten ekintzak zerrendatu zituzten: elkarrekin bazkariak, mus txapelketak, sagardotegira bisita eta afaria, Gernikako azokara irteera, Abbadia gaztelua, mendi irteerak... Ziotenez, ekintza hauei esker herriko jendearekin euskaraz mintzatzeko aukera ere izan zuten. (HOND, 80.zk.)

Gaur egun, berriz, ikasleek **ez** omen dituzte **horrelako ekintzak** hainbeste eskatzen eta ikasturtean **pare bat baino ez** dira antolatzen: 2015-2016 ikasturtean, esaterako, Sareuskak antolatutako Mintzodromoan izan ziren euskaltegiko ikasleak, sagardotegian afaltzen eta ikasturte amaitzeko irteera bat egin zuten.

Dena den, erabiliz ikasi egiten denez, azken hiru ikasturteotan euskaltegiak **MINTZALAGUNA** mintzapraktika egitasmoa sustatu du Hondarribiko Udalarekin elkarlanean. Bertan, lehenengo ikasturtean guztira 54 lagunek hartu zuten parte, bigarreanean 74k eta azkenekoan 79k.

Azkenik, Hondarribiko Udalaren **BEKA SISTEMARI** buruzko informazioa ekarriko dugu orriotara:

Udal Euskaltegiko klase-orduen kostua gaur egun 1,15€/orduko da eta ikasle guztiek beka eskuratzeko eskubidea dute, baldin eta baldintza batzuk betetzen

badituzte:

- a) Matrikularen %35eko beka jasotzeko, besteak beste¹⁷, bete beharreko baldintzen artean: Hondarribian bizi izatea, gutxienez %80ko asistentzia bermatzea eta azterketak egitea.
- b) Matrikularen %75eko beka jasotzeko goian aipatutako baldintzez gain, familia ugariko txartela izatea.
- c) %100eko beka jasoko dute a)puntu b) baldintzez gain, EABA langabetu txartela daukatenek. (azken puntu hau 2016an gehitu dute)

HORRENBESTEZ, beka sistema dela edo modulu txikien finantziarioa dela, Hondarribiko Udalak helduen euskalduntzea sustatzeko euskaltegiak izan dituen beharrei erantzuteko baliabide ekonomikoak inbertitu ditu.

Euskaltegiak, bere aldetik ere, lan handia egin du garai eta eskaera berriei erantzuteko.

Aurrerantzean ere bide horretatik jarraitu beharko dute helduen munduan eskararen ezagutza sustatzen. Eskaintza nori zuzendu ez zaie faltako, 2011ko daten arabera hondarribiarren %23 ia-euskalduna eta %17 erdalduna baita.

5.3. Herri mugimendua.

Duela 50 urte, 1965-1966 ikasturtean, **Hondarribiko Ikastola** sortu zen. Horixe izan da Hondarribian euskararen inguruan sortu den lehenengo herri-mugimendua.

Garai haietan Euskal Herri mailan euskal kultura eta nortasuna biziraun zezan euskararen alde makina bat mugimendu sortzen hasita zeuden eta Hondarribiko Ikastolaren sorrera ere testuinguru horretan kokatuko genuke.

Gure iritziz, garaiak batere laguntzen ez zuela ere aintzat hartuta, irakasleek, gurasoek eta norbanakoek Ikastola aurrera ateratzeko eskaini zioten lanagatik, borondateagatik, denboragatik eta beste hainbat arrazoiengatik aitoren berezia merezi duen herri mugimendua da.

Gainera, M. Karmen Balerdik¹⁸ Ikastolan irakasle izandakoak esan bezala, "positiboena iruditu zaidana ikastolak Hondarribian eman eta bultzatu duena da. Baina ez irakaskuntzan bakarrik, kultura mailan ere asko landu da; dantza taldea dela, oro har ikastolak Euskal Herriko kulturari aportatu diona balio handikoa

¹⁷ Beka jasotzeko bete beharreko baldintza guztiak ikusteko Udalaren web orrian (www.hondarribia.eus) Ordeantza atala begiratu 2016 Ordenantza Fiskalak azpiatalean 89. orrian: http://www.hondarribia.eus/dokumentuak/menu/20161511427_2016%20Ordenantza%20Fiskalak.pdf

¹⁸ Irakurri osorik eranskinetan 10.2.14 puntuan.

iruditzen zait. Batez ere herri honetan egin denaz ari naiz. Alegia, ni ikastolan sartu aurretik eta, gazte nintzela, herrian oso aukera gutxi zegoen euskararen inguruan ekintzak burutu edota antolatzeko, eta ikastolaren lana horretan ezinbestekoa izan da. (...) "

Herri-mugimendu horren ondoren, **hainbat urtetan ez** dugu bera bezain dinamikoa eta eraginkorra izan den **beste mugimendurik** ezagutu. Aipatzekotan bi kontu baino ez:

1) 80-90 hamarkadetan Hondarribian **Euskal Herrian Euskaraz** mugimendua topatu dugu.

2) Horretaz gain, **kanpaina edo jarduera batzuen inguruan** elkartutako jendea eta entitateak aipatuko genituzke.

a) 1988ko Euskal Herri mailako "Bateginik" kanpaina, euskararekiko ardura berpiztea eta hizkuntz egoeraren kezka eta kontzientzia indarberritzea helburu zuena. Diru eta sinadura bilketak egin ziren kanpainan eta Hondarribian ondoko hauek egin zuten bat:

"Saski Baloia taldea, Esku Baloikoa, Kirol Elkarte, Arraun Elkarte, Txirrindulari Elkarte, Judokoa, Xakejoko, Marlaxka, Txanpa, Eskifaia, Haizehots, Garikoitz, Ama Guadalupeko ikastetxea, Biteri eskola, Ikastola, Amute-Kosta auzo elkarte, Gazteen Asanblada, Amnistia Batzordea, Euskal Herrian Euskaraz, AEK, HABE eta Udal Euskara-Kontseilua (...)" (HOND, 21. zk.)

b) 2003an BERRIA egunkariaren aldeko herri batzordea jarri zuten martxan eta talde hori egunkari berrirako diru-bilketa egiteaz arduratu zen.

Handik urte batzuetara, 2008an, hainbat herritar ere bildu ziren HITZA egunkariaren alde antzeko kanpaina egiteko. 2009an egunkariaren lehen alea argitaratuko zen.

c) Bi urtez behin AEK-k antolatzen duen KORRIKAREN inguruan ere makina bat hondarribiar elkartzen dira. Honetaz gain, aipatu ere egin nahi ditugu Herri olinpiadetan eta Gazte Asanbladak antolatzen dituen jardueretan bezala, euren ekintzetan euskara euren komunikazio hizkuntza izatea erabaki duten entitate/talde/elkarte guztiak.

Azkenik, **herri-mugimendua ez izanagatik**, Hondarribian euskararen alde urte hauetan denetan euren lana egin duten **norbanakoek** atal honetan aipatzea **merezi dutela** pentsatzen dugu: Hondarribia aldizkariaren hasierako urteetan

borondatezko lana egin zutenek eta gerora ere aldizkarian idazten parte hartu duten kolaboratzaile guztiek, euskara seme-alabei transmititzea erabaki dutenek, euskara ikastera edo alfabetatzera euskaltegira joan direnek, lehenengo hitza euskaraz egiten dutenek, euskaraz ahalik eta esparru gehienetan egiten saiatu direnek...

Mugimendu antolatuaren faltan, norbanakoen eragina, **norbanakoen alea eraginkorra** suertatu dela pentsatzen dugu.

Eranskinetako 10.2.23 iritzi-emailearekin bat eginez, "-Nik uste, neurri handi batean, gutariko bakoitzarengan dagoela ardura. Euskara erabili, euskaraz galdetu, euskaraz erantzun, ikasi... Banako konprometituen mikroekintzen potentzian sinesten dut, eta hauek mugimendu kolektibo bilaka daitezkeela".

Eranskinetan jaso ditugun beste iritzi hauek ere orriotara ekarri nahi ditugu:

a) 10.2.28 puntua: "(...) Hasieran 80. hamarkadan zerbait piztu zen (ikastolak eta abar) eta gero maila hori mantendu beharrean, pixkanaka jaitsi da dena. (...) Ez dute eta ez dugu sarerik sortu ez. Euskara hor zegoen eta euskaldun ginen besterik gabe."

b) 10.2.30.puntua: "Nire ustez Hondarribiko iruditegi kolektiboan "herri txiki, herri euskaldun" irudia oso txertatua dago (baina ez da hain herri txiki eta ezta hain euskaldun ere), eta horrek euskararen inguruko lanketa erlajazio moduko giroak sortu izan du."

2010. hamarkada arte itxoin beharko dugu berriro euskararen aldeko herri-mugimenduaz hitz egiteko. Urte asko, beraz!

2014an hiru-lau bat norbanako baino ez, ahoz ahokoari esker hamar bat izatera iritsi zirenak. Denek kezka bera buruan: Hondarribian euskararen erabilera eskasa zela eta egoerari buelta emateko zerbait egin beharko zela.

Euren kezka herritarrekin partekatzeke asmoz "HONDAR ale euskararen IBIAN" hausnarketa prozesu parte-hartzaile arrakastatsua antolatu zuten 2015eko maiatzean. Arrakastatsua diogu prozesuren saio bakoitzean batez beste berrogeita hamar bat lagun elkartu zirelako. Prozesuaren amaieran herrian euskara elkarteak eratzea erabaki zuten.

Horrela, 2015ko irailaren 27an **BLAGAN euskara elkarte**¹⁹ sortu zen.

¹⁹ <http://www.blagan.eus>

Zertarako sortu duten horrelaxe azaltzen dute 2016ko ekaineko aurkezpen ekitaldirako argitara eman zituzten euskarrietan. Besteak beste: arlo eta eremu guztietan euskaraz bizi ahal izateko, erabileraz kontzientziatzeko, euskararen erreferente eta herritarron bilgune plural eta dinamikoa izateko, euskaltzaleak aktibatzeke eta saretekeo...

BLAGAN herritik sortutako eta herritarrek osatutako euskara elkarte da, orain arte herrian inoiz izan ez dena.

Euskararen aldeko horrelako herri mugimendu bat ez da Hondarribian ezagutu duela 50 urte ikastolaren sorreran eta bere sustapenean lanean aritu ziren hondarribiar haiek egindako lan eskergaz geroztik.

1989an Martin Iturbek esandakoa gogora ekarriz,

"Orduan, alderdi pozgarria izan bada, zabaldu egin dira euskerazko gauzak ikasteko, lantzeko, publikazioak, ugaritu egin dira denak, pozgarria den bezela, nik uste dut oso kontutan hartu beharreko gaitz iluna eta izkutukoa izango dugula lasaikeria hori. Orduan nik ez dakit martxa zer izango den, baina beste garaialdi batek etorri beharko du, lasaitasun batez jabetu edo kontzientziatu gaitzela nor geran, non gauden eta zer daukagun esku artean eta orain hemen zimentuak sendo bota behar ditugu, eta izango dira jabetasunaren zimentuak, kontzientziarenak, eta orduan seriotasunarekin aurrera, eta ez dut esan nahi orain arte seriotasunik izan ez denik.

Neri bildurrik gehiena horrek ematen dit, moteltasunak. Gogor egitea, eta batak bestearen iritzi ezberdinak izateak ez dit bildurrik ematen lanbidea eta egiteko eragina baldin badute. Moteltasunak ez du eginbiderik, ez batetik ez bestetik, hori da txarra, eta giro hortan egon gintezke, seguru asko."

(HOND, 33. zk.)"

5.4. Hondarribiko Udala. HISTORIKOA: EBPN/ESEP plangintzen aurreko lana.

Hondarribia aldizkaria izan da informazio iturririk nagusia atal hau osatzeari begira. Atal honetan Hondarribiko Udaleko Euskara Sailak 1986tik lehendabiziko Euskara Biziberritze Plan Estrategikoa (2005-2008) abian jarri zuen arte egindako lana azaltzen saiatuko gara.

Laburpena baino ez da izango; halere, informazio gehiago eta zehatzagoa txosten honen eranskinetan (10.1 atala) urtez urte egindako lanari buruzko informazio gehiago eta zehatzago aurkituko dugu eta jarraian horren laburpena baino ez dugu egingo . HAS GAITEZEN:

1980ko hamarkada

Hondarribiko Udalak **1981ean itzultzailea** kontratatu zuen, handik urte batzuetara Kultur Batzordearen menpe **Udal Euskara Azpibatzerdea** sortu zen eta itzultzaile zenak **euskara teknikariaren** lanak eta funtzioak ere bere gain hartu zituen.

" Udaleko Euskara Azpibatzerdea sortzeko arrazoia horixe izan zen, gure herriko biztanleak euskaraz bizitzeko laguntza emateko, eta euskararen bizitza bultzatu eta zuzpertzeko. (...)" (HOND,1.zk.)

1987an Kultura Batzordetik bereizi zen eta **Euskara Kontseilua** sortu zen. Aurreko Azpibatzerdean edozeinek har zezakeen parte, baina Kontseilu berrian "talde politiko bakoitzeko ordezkari bat, eskola bakoitzeko ordezkari bat, eta klink, AEK eta HABEtik beste ordezkari bana".

Urte haietan gaur egun arte iritsi diren bi egitasmo sortu ziren: **Hondarribia aldizkaria** (aurten 30 urte) eta **Bordari eta Satarka literatur lehiaketak**. Aldizkariak bere lehendabiziko alean bere helburua azaldu zuen:

"Aldizkari batek eragin handia izan dezake gure herrian, eragina euskararen aldetik, noski, euskara utsean izango bait da, eta eragina jendeak irakurtzea lortzen badugu, hauxe bait da kasu honetan daukagun helburua, hondarribiarrak euskaraz irakurtzen jartzea."

80. hamarkada honetan ere antolatu ziren lehenengo aldiz **"Euskal I hardunaldiak"**, gaur egungo Neguko Jardunaldiak.

"Hondarribiko herri euskaldun erdaldunduan beharrezko egiten dira, hala

ere, Euskal Ihardunaldiak, eta horixe da Udal Euskara Azpibatzerdeak antolatutakoa Azaroaren 11tik 14ra." (HOND, 9.zk).

Eta jardunaldietako jardueren artean burututako batzuk, ondokoak: mahai-ingurua, afaria bertsolari eta txiste kontalariekin, pailazoak, Tasio pelikula Patxi Biskert bertan zelarik, bertsolariak, Bordari eta Satarka sarien banaketa.

Hogeita hamar urte geroagoko egitarauaren hezurdura nahiko antzekoa dela esan genezake.

Horretaz gain, urteotako **bestelako kanpainak eta jarduerak** hauexek: diruetxetako kanpaina bezeroei bidaltzen zizkieten inprimakietan euskara erabil zezaten eskatuz, txekeak euskaraz betetzen zituztenentzako sariak, Hondarribiko ikastetxeetako jaialdia euskara sustatuz, udaleku irekia (egungo Uda Jolas), haurrentzako udako euskara ikastaroak ikastetxeetan, Hitzez hitz lehiaketa aldizkarian (bertako hizkerari buruzkoa)...

Hauetako batzuk gaur egun ere interesgarri izan litezke, gure ustez.

Bestalde, hamarkada honetan **Udalak zenbait erabaki** hartu zituen:

- Herriko kartel guztiak euskaraz jarriko zituela,
- Udal lanpostuetarako egingo ziren azterketetan 1.proba euskara izango zela.
- Hiriko armarrian euskarazko orla jarriko zela ondoko tituluekin: Hondarribiko hiri oso prestu oso leial oso adoretzu eta beti oso zintzoa.

Eta hauen aurretik hartutako beste bat: "1979ko maiatzeko plenoan, Hondarribiko Udalak inoiz ez bezalako erabakia hartu zuen: "Hondarribiko Udalaren Hizkuntza Ofiziala Bakarra EUSKARA izango zela"."(HOND,11.zk)

Hamarkada bukatzeko, **Herri Euskaltegia**²⁰ sortu zen eta Udalak SIADECORI **azterketa soziolinguistiko** sakon bat egiteko agindu zion (azterketaren zenbait emaitza txosten honen 4.1 atalean daude).

1990eko hamarkada

Hamarkada hasieran, Herri Euskaltegia **Udal Euskaltegi** bihurtu zen eta 1992an <<Hondarribiko Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauak ematen dituen **Udal Ordenantza**>> onartu zuen.

Hamarkada hasiera honetan ere sortu ziren: **Euskal Txiste Grafikoen** lehiaketa, **Herri Kanta** jaialdia, haurrentzako **ludoteka**, "Uda euskaraz"

²⁰ Herri Euskaltegia sortu aurretik helduen euskalduntzean beste batzuk ere aritu ziren lanean Hondarribian. Horretaz txosten honen 5.2 atalean hitz egin dugu.

turistentzako hiztegitxoa, euskara praktikatzeko **udako egonaldiak** herriko baserrietan, **abizenak euskal grafiaz** idazteko kanpaina... eta Neguko Jardunaldien barruan *Hondarribia euskaraz* izeneko ekintzez beteriko **egun osoko marathoia** antolatu zuten 1995ean.

Horietaz gain, hauexek ere aipatu behar ditugu: Euskara Kontseiluak **Hondarribiko Bertso Eskola** jarri zuen martxan, bi urteko ikerketa-lanen ondoren Hondarribiko **Ikerketa Toponimokoa** amaitutzat eman zuten, barnetegietara eta Udako Euskal Unibertsitatera joateko **diru-laguntzak** sortu zituzten, **poltsikoko egutegia** kaleratu zuten eta familia bidezko transmisioak duen garrantziaz sentsibilizatzeko "**Ahoz aho, belaunez belaun**" erakusketa ibiltaria herrira ekarri zuten.

Hamarkada amaierakoak dira **Euskararen Kale Erabileraren Neurketa** (ikusi emaitzak txosten honen 4.2 atalean), Bidasoako Kirol lan mahaiak kirolean euskararen egoerari buruzko diagnosis egiteko azaldu zuen helburua eta **Kirol begirale poltsa** osatzeko egin zuten deialdia.

Azkenik, azpimarratu nahi dugu hamarkada amaieran **Udalak trebatzaile bat kontratatu** zuela Udal langileen euskara maila hobetzeko, batetik, eta, bestetik, Udalerriari begira normalkuntza-teknikari lanak egiteko. Zeregin hauetan hiru bat urtez aritu zen.

2000ko hamarkada

2000. urtean **Udalak Euskararen Erabilera Plana** onartu zuen eta Kultura, Udaltzaingoa eta Kontuhartzailletza Sailak lehenetsi zituzten euren eguneroko jardueran euskararen normalkuntzan eragiteko.

2001ean Udalak "**Euskara Merkataritzara**" egitasmoa sortu zuen, 2011 urterarte iraungo zuena. Ia urtero merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduetan hizkuntzaren egoerari buruzko diagnosis egiten zen eta Udalaren hizkuntza zerbitzuak eskaini (zenbait urtetako emaitzak txosten honen 4.5 atalean).

Bestalde, hamarkada honen hasierakoak dira beste **bi neurketa** hauek: *Gazteen arteko euskararen erabileraren 2002ko neurketa* eta *Eskola kirolean euskararen erabileraren neurketa 2004-2005 ikasturtean* (horien zenbait emaitza txosten honen 4.3 eta 4.4 ataletan, hurrenez hurren).

Eta neurketez gain, herriko **hizkuntz ondarea** bildu zuten **bi argitalpen** aipagarr hauek: bata, Hondarribiko mapa toponimikoa eta liburua (Euskaltzaindiak Onomasticon Vasconiae bilduman argitaratutakoa) eta, bestea, Irungo eta Hondarribiko beka batzuei esker argitaratu zen *Hondarribiko eta Irungo euskara* liburua.

2002an Hendaia, Irun eta Hondarribiko euskara ordezkariak eta teknikariak osatutako **Bidasoa-Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoko Euskara lan-mahaia** sortu zen. 2003an eskualdean euskaraz egin zitezkeen jardueren **Badian euskaraz gida** argitaratu zuten eta Txingudiko **Bertso Eskola** sortu zuten (ordurako Hondarribiko Bertso eskola desagertuta zegoen).

2004an Udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzeko asmoa agertu zuen eta horretarako **Aholku Batzorde** bat eratu zuen herriko esparru guztietako ordezkariak.

2004ko abenduan Osoko Bilkurak **Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia** (2005-2008) onartu zuen.

"Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia Udalarena ez ezik, gizarte osoarena ere izango da, hori garatzeko ezinbestekoak izango baitira Udalaren konpromisoa eta gizartearen partaidetza eta lankidetzeta." (HOND,171.zk)

Euskararen normalkuntzan **aro berria** ekarri zuten Euskararen Biziberritze Plan Estrategikoek. Planei esker, estrategia lan batean oinarrituz eta herriko eragileekin batera elkarlanean, herrian euskararen normalizazioan eragiteko lehentasunezko esparruak lehenetsi zitezkeen eta beraietan eragiteko beharrezko neurriak eta jarduerak... txertatu, egikaritu eta ebaluatu.

Hondarribiko Udalak hiru Plan Estrategiko izan ditu handik aurrera: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (2005-2008), Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (2011-2015) eta Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (2015-2017).

Hauetaz datorren atalean hitz egingo dugu.

6. EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLANAK (EBPN 2005-2008 eta EBPN 2011-2015) eta EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA (ESEP 2015-2017) HONDARRIBIAN.

6.1.) Euskara biziberritzeko Plan Estrategikoak: EBPN 2005-2008 eta EBPN 2011-2015.

6.2.) Euskara Sustatzeko Ekintza Plana, ESEP 2015-2017.

6.1. Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoak: EBPN 2005-2008 eta EBPN 2011-2015.

Euskara Biziberritzeko Plan Estrategiko baten **helburu nagusia** ondokoa da:

“Euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea.

Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.”²¹

Hondarribiko Udalak **bi plan estrategiko** onartu eta garatu zituen: bata, EBPN 2005-2008 eta, bestea, EBPN 2011-2015.

Bi Plan estrategiko hauen esparruak, neurriak, helburuak eta ekintzak paperera ekartzea orritan luze eta edukiz zenbaitetan errepikakor suerta litekeenez, praktikotasunaren izenean plangintza horietako baten hezurdura aukeratuko da lan honetan azaltzeko, bietan berriena hain zuzen.

Hortaz, 2011-2015eko Euskara Biziberritze Plan Estrategikoaren egitura hartuko dugu oinarri eta bertan zehazten diren lanerako esparruak, helburuak eta ekintzak ekarriko dira txosten honetara. Bestalde, aurreko Plangintzaldian (2005-2008) honetan ageri ez zen bestelako helbururik, ekintzarik... egonez gero, esparru bakoitzaren barruan gehituko litzateke. HORRENBESTEZ:

²¹ EBPNren helburu nagusia: http://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/eu/contenidos/informacion/941/eu_2383/eu_12372.html

ESPARRUA: 1. FAMILIA TRANSMISIOA

HELBURUA: 1.1. Euskararen erabilera handitu etxeko esparruan, eta transmisioa ziurtatu familia kideen arteko hizkuntza izan dadin.

2011-2015eko Plan Estrategikoan aukeratu zituzten ekintzetatik Familia transmisioa esparruan **jarduera edo egitasmo hauek eraman zituzten aurrera:**

Ekintza
<p>1. Haur jaio berrien gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako bildumak igorri: ipuinak, kantuak, euskarazko gela apaingarriak, euskal izendegia...[Gutunak, disko digitalak, haur-hizkera erakusten duten liburuxkak, egutegiak, "speak up" materiala, autoetako pegatinak, gidak, euskararen "merchandising"-a (amantalak, sukaldeko arbelak...) eta gisakoak]</p> <p>KONTU TXIKIAK izeneko liburuxka eta CDa aurreko urtean jaiotako haurren gurasoei banatzen zitzaizkien; bertan haur hiztegia, kantuak, ipuinak, jolasak... daude jasota.</p> <p>Aurreko Plangintzaldian, 2005-2008, horiek oinarri harturik gurasoentzako ikastaroa ere antolatu zen.</p>
<p>2. Derrigorrezko ez den ikastaldian (0-3 urte) euskarazko haurreskolak eskaintzea. DIRU-LAGUNTZAK: udal haurtzaindegirik ez zegoenez, 0-2 urteko gelak zituzten bertako ikastetxeek diru-laguntzak ematen zizkien Udalak.</p>
<p>3. Euskarazko produktuen katalogoa ezagutzera eman: web orrian, gurasoei bidali, udalaren menpeko guneetan eskuragarri jarri... Euskarazko produktuen katalogoa banatzen zen ikastetxeetan.</p>
<p>4. Ekitaldiak antolatu familia osoa aintzat hartuta, eta ikastetxeekin eta guraso elkarteekin elkarlanean: Gabonetan, Santo Tomas egunean, Santa Ageda egunean edo tokian tokiko ohiturak kontuan hartuta. [Euskarazko zinea, pailazoak eta gisakoak].</p> <p>Euskal tradizioari lotutako jaialdiak Kultura Sailak antolatuta: Haurren Gabon-kanta jaialdia, Helduen Gabon-kanta lehiaketa, Herri-giroa, San isidro, Bazko astelehena...</p>
<p>5. 2005-2008 plangintzaldian: Familia osatu berria duten bikote edo guraso erdi-euskaldunak euskalduntzeko ikastaroak eta erabilera sustatzeari begirako jarduerak: Udalak antolatzen zituen gurasoei komeni zitzaaien ordutegian eta erritmoan.</p>

Beste hauek, berriz, **ez ziren aurrera eraman:**

1. Kultura, ekonomia edo politika munduko **pertsona erreferentzialen** bitartez mezuak zabaltzeko komunikabideetan, musika bidez, kirolaren bitartez.

2. **Familia barruan** euskararen erabilera bultzatzeko **egitasmo zehatzak** martxan jarri: Gurasolagun... ["Kontaidazu ipuin bat" lehiaketa, "Mihiluze"

lehiaketa, Jolasen Eguna, "Euskera olgetan errotu" lehiaketa, eta gisakoak].

ESPARRUA: 2. EUSKALDUNTZE-PRESTAKUNTZA

HELBURUA: 2.1. Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen ezagutza handitu herritarren artean.

Euskalduntze-prestakuntza esparruan aukeratutako ekintzetan jarduera edo egitasmo **hauek burutu ziren:**

Ekintza
1. Etorri berriei bereziki zuzendutako sentsibilizazio kanpainak antolatu, euskara ikasteak ekar lizkiekeen onurak azpimarratuaz. Etorri berrientzako harrera programekin uztartu. Matrikulazio eta sentsibilizazio kanpainak euskaltegian.
2. Eskualdeko euskaltegien gaineko gida osatu: zerbitzuak, ordutegiak, helbideak... eta herritarrengana zabaldu. Web orrian egiten zen.
3. Euskara ikasteko prozesuaren gaineko informazio orokorra eskaini modu erakargarrian: web orria erabilita, triptikoak, eskualdeko aldizkaria (prozesua, udalak zer laguntzen duen, metodologia, ziurtagirien baliokidetzeak, egonaldiak familia euskaldunetan programa...). Web orrian egiten zen.
4. Euskara ikasteko diru-laguntzak eskaini baldintza batzuk betetzearen truke: klasera joateko edota autoikaskuntza bidez ikasteko. Euskaltegiko beka.
5. Diru-laguntzak eman: udako euskarazko ikastaroetara joateko, bestelako euskarazko jardunaldi edo topaguneetan parte hartzeko. Diru-laguntzak UEUra joateko; errefortzu gisa euskara ikastaroak ikastetxeetan; Herri Urrats, Nafarroa Oinez...ikastolen aldeko jaialdiei diru-laguntzak.
6. "Mintzalagun" proiektua jorrazeko taldeak sortu herrian (atzerritarrak eta adin guztietako euskaldun zaharrak eta berriak aintzat hartuta). Formula berriak aztertu: bazkari-laguna, kirol-laguna... [Mintzalagun, Berbalagun, Mintzakide egitasmoak eta gisakoak]. Mintzalaguna egitasmoa Irun eta Hondarribia elkarlanean Irun Iruten elkarteak kudeatuta. Honen aurretik, urte batean Hondarribiko Udal euskaltegiak bere gain hartu zuten egitasmoa.

7. Euskararen ezagutza beharrak aintzat hartu eta ikastaroak antolatu herriko edo eskualdeko euskaltegiekin elkarlanean: galdutako trebetasunak berreskuratzeko edo birziklatzeko; euskarazko terminologia lantzeko; mintzamena lantzeko; jendaurrean hitz egiteko; herri hizkeraz; hitanoaz... Begirale, kirol entrenatzaile, eskolaz kanpoko jardueretako arduradun, irakasle, euskaltegietako irakasle, komunikabideetako esatari, merkatari, ostalari, udaltzaintzako hobekuntza ikastaroak antolatu. [Euskara ikasteko ikastaro bereziak eta tailerrak; HABEK laguntzen ez dituen taldeak, ratoria iristen ez direlako edota aldi motz baterako direlako; eta gisakoak]. [HABEK laguntzen ez dituen taldeak, modulu txikiak, finantzatzen ditu Udalak.](#)

8. Talde zehatz bakoitzari egokitutako hiztegitxoak sortu euskaltegiekin elkarlanean: etorri berrientzat, merkatariarentzat... [Merkataritza eta ostalaritzako hiztegitxoak zabaltzen ziren.](#)

9. [2005-2008an Merkataritza kanpainaren ondorioz, merkatari eta ostalarientzako euskara ikastaroak antolatzen ziren beraiei komeni zitzaien ordutegian eta erritmoan.](#)

Eta plangintza estrategikoan hautatu arren, **burutu ez zirenak**:

1. Herritarrengan modu erakargarrian eragin, dakiten euskara hori plazan ere erabiltzeko. Ekimenak definitu eta martxan jarri, herriko eta inguruko eragileekin elkarlanean: kartelak, tokian tokiko komunikabideetan mezuak, euskararen egunean agintari politikoaren agerraldiak, pegatinak, egutegiak... Kanpainak sustatu. [Errenta Aitorpena euskaraz egiteko kanpaina eta gisakoak].

2. Gazteengan eragin adin talde horietarako **erreferente diren pertsonetan** oinarrituta: bide telematikoak, sakelekoa... [Solosalduak pertsonaia ezagunekin, motibazio saioak eta gisakoak].

3. Motibazioa landu: motibazio praktikoa (lana bilatzera bideratua...), motibazio sentimentala (gurea da, aspaldikoa...) eta motibazio kulturala (eskaintza kultural bat galtzen den sentsazioa...).[Euskaltegietan izena emateko matrikulazio kanpainak, TELP tailerrak eta gisakoak].

4. Euskara komunikatiboa sustatu eta zabaldu. Tokian tokiko **euskalkiari** lekua egin.

5. Euskararen aldeko ekimenetan parte hartzea sustatu: garraio bideak ahalbideratu, sarrerak zozketatu... [Ikastolen aldeko jaietara joateko garraio gastuak: ibilaldiak euskara ikasleekin, ibilaldiak Mintzalaguna egitasmoko kideekin eta gisakoak].

HELBURUA: 2.2. Helduen prestakuntza eskaintzan euskararen erabilera handitu.

Helburua betetzeko plangintzan proposatutako ekintzetatik **egin ziren jarduerak** edo egitasmoak:

Ekintza

1. Informazioa eman herritarrei euskarazko helduen prestakuntza zerbitzuez: triptikoak osatu, udaleko aldizkarian agertu, web orrian zintzilikatu... [Wen orrian jartzen zen.](#)

Egin gabe geratu zirenak:

1. Helduentzako **era guztietako ikastaro eta ekimenak** antolatu euskaraz: erlajazioa, sukaldaritza, lehen arreta, dantza ikastaroak, reflexoterapia...

2. **Laguntza** eskaini, beste eragileek antolatzen dituzten **ikastaroak** (jubilatutako elkarteak, kultur elkarteak, merkatari elkarteak...) **euskaraz izateko**: matrikula merkeagoak, diru-laguntzak, irakasleak topatzeko bideak...

ESPARRUA: 3. IRAKASKUNTZA

HELBURUA: 3.1. Euskarazko ikaste-ereduak sustatu.

Helburu hau betetzeko, plangintzatik ekintza hauek **aukeratu ziren**, baina **ez zen ezer** berezirik egin:

1. DBH, Batxiller, Lanbide Heziketan sartzear dauden **gazteengan eragin, euskarazko ereduetan ikasten jarraitzeak** dakartzan abantailak azaltzeko: gutunak, smsak, hitzalditxoak... [Matrikulazio kanpainak, besteak beste].

2. Gurasogai eta guraso berriei banan-banako informazioa eman **0-3 adin taldean** udalerrian **dauden zerbitzuez**.

3. **Hitzarmena** sinatu gaztelaniazko zerbitzua eskaintzen dutenekin euskarazko zerbitzua garatzeko.

4. **0-3 arteko euskarazko udal zerbitzu berri bat sortzea** sustatu.

HELBURUA: 3.2. Eskolaz kanpoko prestakuntza jardueretan euskararen erabilera areagotu.

Ekintza

1. Hitzarmena sinatu eskolaz kanpoko prestakuntzan dihardutenekin (musika eskolak, hizkuntza eskolak, margo eskolak...), euskarazko eskaintza handitzeko. [Eskola Kirola ere bai, besteak beste]. Hainbat elkarterekin hitzarmena sinatu zen, hala nola, Pilota eskola, Arraun elkarte, eta Hondarribia Futbol elkarte.

2. Euskara sustatzeko programa bereziak gauzatu (ahozkotasuna, bertsolaritza...) Bertsolaritza eta Urtxintxa programak (euskal kantu eta jolasak) garatzen ziren ikastetxeetan.

Goiko ekintzetan hainbat jarduera edo egitasmo egin arren, ondoko ekintza hau ez zen aurrera atera:

1. **Informazioa** eman herritarrei euskarazko **eskolaz kanpoko prestakuntza zerbitzuez**: triptikoak osatu, udaleko aldizkarian agertu, web orrian ezagutzera eman...

ESPARRUA: 4. ADMINISTRAZIOA

HELBURUA: 4.1. Euskara Normalizatzeko Erabilera Plana administrazio barruan abian jarri, ezagutzatik erabilerara beste urrats bat eman dezan udal administrazioak.

Hondarribiko Udalak udal barruan euskararen erabilera normalizatzeko onartuta dituen azken bi planak hauexek dira:

IV. Plangintzaldiko Hondarribiko Udalean Euskara Normalizatzeko Plana 2008-2012 eta V. Plangintzaldiko Hondarribiko Udalean Euskara Normalizatzeko Plana 2013-2017²².

HIZNETeko gure lan honetan Udal barruko euskararen erabilera sustatzeko Plangintzak baino Udalerriari begirakoak interesatzen zaizkigunez, ez ditugu lan honetan Erabilera Planak aztertuko.

Halere, badira Plan horietan hainbat puntu txosten honetara ekarri nahi direnak

²² HONDARRIBIKO UDALAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA V. plangintzaldia – 2013-2017 urtea.
http://www.hondarribia.org/dokumentuak/menu/20131226132335_1_PLANA%202013-2017.pdf

udalerrriaren bizitzan eta hizkuntzaren erabileran bete-betean eragiten dutelako.

Hona hemen V. Plangintzaldiko txostenean dioena:

1) "5.7. Diru-laguntzak. Hondarribian euskararen erabilera normalizatzeko udal-ordenantzaren 30. artikuluan xedatutakoari jarraiki, Hondarribiko Udalarengandik diru-laguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek, diruz lagundutako beren jardunaren bitartez sortutako agerpen publiko orotan euskara edo euskara eta gaztelania erabili beharko dute, ahoz zein idatziz. Euskaraz eta gaztelaniaz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko zaio lehentasuna.

Diru-laguntza kudeatzeko eskumena duten udal organoek, bidezkoak diren neurriak hartuko dituzte onuradunek artikulua honetan xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzeko eta hizkuntza ofizialen erabileraren zuzentasuna zaintzeko." (17.or)

2) "5.11.- Errotulazio finkoa eta noizbehinkako oharrak

1.- Hondarribiko Udalak dituen bulego, egoitza zein lagatako lokal guztietako kanpoaldeko nahiz barrualdeko errotulazio finkoa eta noizbehinkako oharrak (askotan paperean egindakoak), euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz agertuko dira.

2.- Errotuluetako testua euskara hutsean idatziko da ondoko kasuetan, betiere euskararik ez dakiten herritarren hizkuntza eskubideak urratu gabe:

a). Errotuluetako hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean.

b). Mezuak piktograma batez lagundurik direnean eta haren bitartez ulergarriak direnean." (18.or.)

3) "5.15.- Kontratazio administratiboak

1.- Kontratu bidez emandako jarduerak edo zerbitzuak Hondarribiko Udalak berak emanak izango balira bezala jasotzeko eskubidea aitortzen zaie herritarrei. (...)

3.- Kontratuaren bidez eman beharreko zerbitzuaren prestazioak herritarrekiko harreman zuzenak dakartzanean, baldintza hauek beteko dira:

a). Erabiltzaileek eta, oro har, herritarrek bi hizkuntza ofizialetan hartuak izateko duten eskubidea errespetatuz eman beharko du prestazioa kontratistak.

b). Herritarrentzako inprimakiak, oharrak eta jakinarazpenak euskaraz eta

gaztelaniaz eman beharko ditu enpresa esleipendunak, herritarrak berariaz inolako aukeraketarik egin ez badu.

c). Hondarribiko Udalaren edo bere erakunde autonomoen kontratu bat esleiturik duten entitateek edo pertsona fisikoek, kontratuaren jardunaren ondorioz sortutako agerpen publiko orotan bi hizkuntza ofizialak erabili behar dituzte, euskarari lehentasuna emanaz. (...)

Esleipenaren helburua herrilan bat denean, jende aurrerako seinale, txartel eta oharrak bi hizkuntza ofizialetan idatzirik ezarri behar dira." (20.or.)

4) "5.16.- Udal instalazioen eta materialen erabilera

Hondarribian euskararen erabilera normalizatzeko udal-ordenantzaren 30. artikuluekin bat etorriz, udal instalazioak eta materialak erabilia antolatzen diren jardueretan, euskara edo euskara eta gaztelania erabili beharko da, ahoz zein idatziz. Euskaraz eta gaztelaniaz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko zaio lehentasuna." (21.or.)

Goian aipatutako 5.7 artikuluan dioen bezala, *udal organoek, bidezkoak diren neurriak hartuko dituzte onuradunek artikulua honetan xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzeko eta hizkuntza ofizialen erabileraren zuzentasuna zaintzeko.*

Herrian zabalduta dagoen ideia da ordenantzako artikulua hauek ez direla ehuneko ehunean betetzen. Horri begira, Udalaren Sail guztietan horren kontzientzia hartzea eta beharrezkoak diren bitartekoak edukitzea garrantzitsua da.

ESPARRUA: 5. LAN MUNDUA

HELBURUA: 5.1. Lan munduan euskararen erabilera handitu.

Egindakoa hauxe:

Ekintza
1. Herrian eragin handia duten enpresekin banan banako elkarrizketak egin, eta azaldu. 2005-2008 plangintzaldia: Euskararen erabilera sustatzeko hitzarmena sinatu zuten Udalak eta Done Pedro Arrantzaleen Kofradiak 2008ko otsailean.

Plagintzan ageri zen beste ekintza bat, **burutu ez zena**:: enpresei ezagutzera eman beste eskualde batzuetan alor honetan izan duten esperientzia, enpresari euskararen erabilera plan batek dakarzkion onurak, LanHitz programa...

HELBURUA: 5.2. Merkataritza eta ostalaritzan euskararen erabilera handitu.

Ekintza
1. Errotulazioa finkoa eta noizbehinkakoa euskaraz ere jartzeko kanpainak martxan jarri, merkataritza elkarteekin bitartez... Udalak Merkataritza Euskaraz kanpainak burutu zituen SIADeco ren aholkularitzapean 2001etik 2011ra.
2. Ezagutzera eman euskararen erabilera normalizatzeko udalean bertan eta beste erakundeetan eskaintzen diren aukera eta programak: diru-laguntzak errotuluak euskaraz jartzeko, laguntza tekniko itzulpenetarako... [Euskararen ordenantzen berri ematea, besteak beste]. Udalaren itzulpen zerbitzuaren laguntza teknikoa .
3. Arloko merkataritza eta ostalaritza elkarteekin koordinatuz proposamen orokor bat luzatu euskararen erabilera gehitzera bideratuta: ezagutza lantzeko, errotulazioa eta papeleria euskalduntzeko, material idatzien katalogoa (merkealdiak, itxita/zabalik)... 2005ean Merkataritza euskaraz kanpainaren barruan harategietan kanpaina berezi bat egin zen hitz erabiliarekin harategietan horma-irudiak jarriz eta bezeroen artean hiztegiak banatuz.
4. Laguntza tekniko eta ekonomikoa eskaini errotuluak aldatzeko (toldoetan, ibilgailuetan...) itzulpenak bideratzeko... [programa informatiko euskaldunak ezartzeko diru-laguntzak eskaintzea eta gisakoak]. Errotulaziorako diru-laguntza deialdia .
5. Ereduak, inprimakiak, hiztegiak, eta abar proposatu, eskaini eta sustatu. Merkataritza eta ostalaritzako hiztegitxoak zabaltzen ziren.

Ondoko hau, ordea, **egin gabe geratu zen**: euskararen presentzia kalitatezkoa bermatu noizbehinka egiten diren feria, azoka edota merkatuetako, kartel, ohar eta informazio orrietan.

ESPARRUA: 6. AISIA

HELBURUA: 6.1. Aisialdi eskaintzan euskararen erabilera handitu.

1. **Haurrentzako ekintzak antolatu:** udako eskaintza (udaleku irekiak, udako ludoteka...); opor garaietako (tailerrak, informatika...); jolasak (herri-kirolak, jokoak...) ["Euskera agoan" programa, eta gisakoak]. Gazteria Sailak antolatutako Uda Jolas udaleku irekiak eta Uda Abentura programak.

2. **Saritu euskararen erabilera kontuan hartu eta sustatzen duten aisialdi elkarteak.** Irun Iruten eta Betti Gotti elkarteei diru-laguntzak udaleku itxiak antolatzeagatik.

3. **Informazioa eman herritarrei euskarazko aisialdi eskaintzaz:** triptikoak osatu, udaleko aldizkarian agertu, web orrian zintzilikatu...

2005-2008 plangintzaldia: "Badian Euskaraz" izeneko gida 2004ko urrian argitaratu zuen Partzuergoko Euskara lan-mahaiak.

3. 2005-2008 Plangintzaldian: gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko sensibilizazio kanpaina bat antolatu zuen Udalak 2006an; kanpainaren oinarri kartelak, gazteei banatutako postalak eta prentsaurrekoa izan ziren eta herriko ikastetxeekin eta gazte arloko beste erakundeekin bisita eta bilerak egin ziren. (HOND,185.zkia.)

Egin gabe geratutako ekintzak:

1. **Hitzarmena sinatu aisialdi taldeekin,** euskararen erabilerearen normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko.

2. **Urte osoko gazte-programa** planifikatu, diseinatu eta garatu. Ekintza berritzaileak bultzatu.

3. **Helduentzako aisialdi programa** garatu.

4. **Laguntza eskaini,** aisialdi taldeetan sortu eta herritarrei helarazten zaien **papeleria euskaraz egon dadin** edota kalitatezkoa izan dadin: tarifa merkeagoak, diru-laguntzak, hizkuntza aholkularitza...

5. **Diru-laguntza eskaini begirale-agiri ofiziala lortzeko** ikastaroa edo aisialdiko formazioa hobetzeko ikastaroak euskaraz egiten dituzten herritarrei.

ESPARRUA: 7. KIROLA

HELBURUA: 7.1. Kirol eskaintzan euskararen erabilera handitu.

1. **Hitzarmena sinatu herriko Klub eta kirol taldeekin, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko.** Hainbat elkarterekin hitzarmena sinatu zen, hala nola, Pilota eskola, Arraun elkarte, eta Hondarribia Futbol elkarte.

2005-2008 plangintzaldia: Hondartza Kiroldetxean ere egoeraren diagnosis egin zuen Siadecok eta euskararen erabilera sustatzeko plan bat proposatu 2006an (HOND,183.zkia)

5. **Herriko kiroldegietako haur eta gazteentzako kirol ikastaroetan euskarazkoen eskaintza handitu.** Irun Irutenek kudeatzen zuen Eskola Kirolerako diru-laguntza

2011-2015 Plangintzaldian Kirol esparruan hobetsi ziren ekintzetatik **hauexetan ez zen ezer aipagarririk burutu:**

1. **Informazioa** eman herritarrei **euskarazko kirol eskaintzaz:** triptikoak osatu, udaleko aldizkarian agertu, web orrian zintzilikatu...

2. **Jendaurreko kirol jardueretan euskararen presentzia** bultzatu (futbol zelaian, saskibaloia kantxan, pilotalekuan...) kartelak, megafonia, esatariak...

3. Herriko kiroldegietako **Kirol monitoreentzako ikastaro bereziak** antolatu.

4. Herriko kiroldegietako **helduentzako kirol ikastaroetan euskarazkoen eskaintza handitu**

5. Laguntzak bideratu kirol jardueretan **euskaraz dakiten begiraleen presentzia** bermatzeko: begiraleen zerrenda, pizgarri ekonomikoak, bitartekaritza... [Entrenatzaile euskaldunen eskolak eta gisakoak].

6. **Diru-laguntzak** eskaini euskarazko **eskolaz kanpoko kirol jarduerak** antolatzeko, boladan dauden kontuak aintzat hartuta eta arreta berezia jarrita orain arte euskarari lotuak egon ez diren alor eta ekintzei.

7. **Baliabide teknikoak** eskaini kirol taldeetan sortu eta herritarrei helarazten zaien **papeleria euskaraz** egon dadin edota kalitatezkoa izan dadin: diru-laguntzak, hizkuntza aholkularitza...

8. Euskaraz antolatu nahi diren ekintzetan beharrezkoak izan daitezkeen

baliabideak erraztu eta eskaini (polikiroldegia, bileretarako gelak, hitzaldietarako guneak...).

Bestalde, 2005-2008ko Plan Estrategikoan Kirola esparruan ekintza hauek ere proposatu zituzten:

1-Eskola Kirolekoek erabiltzen duten materiala euskaraz prestatzea eta kirol-klub eta elkarteetara helaraztea.

Irungo eta Hondarribiko Udaletako euskara eta kirol zinegotzi eta teknikariz osatutako lan-mahaiak lehenetsitako eginkizuna Eskola Kirola izan zen eta horretarako teknikari bat kontratatu zuten. Teknikari honek hainbat material prestatu zuen euskaraz eta, aldi berean, ikastaroak ere eman zizkien Eskola Kiroleko begiraleei.

2-Sentsibilizazio ekintzak Kirolean ere euskararen erabilera areagotzeko.

3-Kirol taldeei zuzendutako dirulaguntzetarako deialdietan hizkuntza-irizpideak ezarri.

4-Jendaurreko kirol-jardueretan euskararen presentzia bermatzeko hizkuntza-irizpideak ezarri.

ESPARRUA: 8. KULTURGINTZA

HELBURUA: 8.1. Kultur eskaintzan euskararen erabilera handitu.

Ekintza
1. Herriko kultur elkarteekin hitzarmenak sinatu, haietan euskararen erabilera sustatzeko. Udalaren eta Musika eskolaren arteko euskararen aldeko lankidetzak hitzarmena sinatu zuten 2009ko urrian.
2. Euskara sustatzeko programa berezietan ikastetxeak ere parte hartzera bultzatu: "Euskara zine aretoetara"... Klik eta Klik programa .
3. Haurrentzako kalitatezko kultur emanaldiak antolatu. Ipuin kontalariak liburutegian .
4. Gazteentzako kalitatezko kultur emanaldiak antolatu: erakusketak, hitzaldiak, proiektzioak, zinema, kantak eta bestelako musika emanaldiak, dantzak, antzerkiak, bertso dramak... Ikastetxeetan eta euskaltegian eskola orduz kanpoko ekitaldiak .

5. **Helduentzako kalitatezko kultur emanaldiak antolatu:** erakusketak, hitzaldiak, proiektzioak, zinema, kanta eta bestelako musika emanaldiak, dantzak, antzerkiak, bertso dramak... Bertso saioak, bertso afariak, Kanean Kantuz, Neguko jardunaldiak

6. **Euskarazko kultur zirkuituetan parte hartu.** LABURBIRA, euskarazko film laburren zirkuitoa, Hondarribira ekarri zen 2014an eta 2015ean.

9. **Euskararen aldeko eguna, asteburua, astea.** Euskararen egunean Mintzodromoa antolatu izan da.

Bestalde, ondoko ekintza hauek aurrera ateratzeko **ez zen** ezer aipagarririk burutu:

1. **Etorri berriei** zuzendutako **sentsibilizazio ekintzak**, euskarazko kultur jarduerak kontsumitzera animatzeko.

2. **Herriko jaietan** antolatzen diren ekitaldietan **euskararen erabilera bermatu** (kartelak, esku orriak, megafonia, esatariak...).

3. **Bideo emanaldiak** antolatu **kultura ezberdinak** ezagutzera emateko.

4. **Hizlaritzat etorri berriak** hartu eta ekitaldiak antolatu haien esperientzia eta jatorriaren gainean ezagutza izateko.

5. **Baliabide teknikoak** eskaini kultur elkarteek sortu eta plazaratu nahi duten **papeleria euskaraz** egon dadin edota egokia izan dadin: diru-laguntzak, hizkuntza aholkularitza...

6. **Euskaraz antolatu** nahi diren kultur ekintzetarako beharrezkoak izan daitezkeen **baliabideak eskaini** (zine aretoak, megafonia, hitzaldietarako gunea, bestelako azpiegitura...).

HELBURUA: 8.2. Euskarazko kultur ekoizpenak eta sormena bultzatu.

Ekintza

4. **Kulturgintza lantzeko tailerrak antolatu:** marrazkiak, idazketa, argazkigintza, zinema, bideoa, web bidezkoa, literatura, dantza, kanta... Gazteria sailak gazteentzeko tailerrak eta ikastaroak antolatzen ditu urtero Saindua gaztelekuan.

5. Kultur arloko lehiaketak antolatu, generoa eta adina aintzat hartuta: literatura (sms-ena; ipuinak webean; maitasun istorioak; lekuan lekuko lehiaketak (Peru Abarka...); argazkigintza, bideoklipak (sakelekoaz egindako grabazioena...), marrazkiak, dantza (koreografiak...)... [Literatur lehiaketak: ipuinak, ipuin marraztuak, postalak, hiz xebreak, piropoak, bertso-paperak, laburmetraiak...]. [Txiste Grafikoen lehiaketa eta Bordari eta Satarka literatur lehiaketa.](#)

Plangintzaldiko ekintza hauetan **ez dago** egin den **aipatzeko deus** berezirik:

1. **Herritarren artean** euskarazko kultur produkzioen **sormena eta kontsumoa bultzatu.**

2. Herritarren artean euskarazko **kultur produkzioa ezagutarazi:** gida, katalogo, web orri, euskaltegi eta udaleko gune ezberdinetan...

3. **Kultur estreinaldiak** ezagutzera eman eta sarrerak zozketatu: dantza, erakusketa, zinema, antzerkigintza...

HELBURUA: 8.3. Euskaraz irakurtzeko zaletasuna handitu.

Ekintza
4. Herriaren neurriko liburu azokak antolatu. Liburu azoka antolatzen da 1995az geroztik.
5. Irakurketa tailerrak antolatu. Irakurketa tailerra euskaraz hilero liburutegian 2006az geroztik.
3. Zentro publikoetan (osasun zerbitzua, udalaren bulegoak...) irakurgai utzi euskarazko aldizkari eta liburuak. Hondarribia aldizkaria herrian banatzen da.

Euskaraz irakurtzeko zaletasuna handitzeko ekintzen artean, besteak beste, **ondoko hauek ere bazeuden:**

1. **Modan dauden idazleen hitzaldiak** antolatu: idazteko teknikak, ohiturak, inspirazioa, bidaiak, liburuen komentarioak...
2. Urtean zehar euskaraz liburu gehien alokatu dituen pertsonentzako **sariak antolatu.**
3. **Liburuaren eguna** ospatu.
4. Liburutegiko bazkideen artean aldian-aldian **liburuak oparitu.**

HELBURUA: 8.4. Tokian tokiko hizkera, toponimia, historia, ohiturak jaso eta hedatzea sustatu.

Ekintza

1. Tokian tokiko hizkera eta toponimia ondarea jaso, argitaratu eta hedatu (ahozkoa zein idatzizkoa): toponimia, inguruko azpieuskalkiaren ezaugarriak, bilakaera, haur eta gazteen ezagutza eta erabilerari buruzko azterlana... 2002ko azaroan Hondarribiko **Toponimiari** buruzko liburua eta mapa aurkeztu ziren.

2005eko abenduan "**Hondarribiko eta Irungo euskara**" liburua aurkeztu zen: 2000. urtean Irungo Udalak emandako Loidi beka eta 2001ean Hondarribikoak bertako hizkera aztertzeko emandako beka dira liburuaren oinarria.

2006an Hondarribiko Udalak diruz lagundu zuen **Lurdes Zubeldiaren** olerkiak, abestiak eta Hondarribia aldizkarian urtetan idatzitako idazlanen bilduma den *Nere sukaldetxoan* liburuaren argitalpena.

2. Herriko istorio zaharrak, kondairak, ohiturak... ezagutzera eman: hitzaldiak ikastetxeekin elkarlanean; herriko adineko jendearekin elkarlanean, jai esanguratsuetan hizlari bat ekarri, grabaketak egin eta web orrian jarri...

Hondarribiko Udalak eta Badihardugu euskara elkarteak hitzarmena izenpetu zuten 2011 urtean herriko ahozko ondarea eta euskara biltzeko. Guztira 54 lagun elkarriketatu ziren.

Egiteke geratu ziren ekintzak:

1. Tokian tokiko **hizkera prestigiatzeko jardunaldiak** edo saioak antolatu: berezitasunak gizarteratu, hitanoa...
2. **Tokian tokiko euskararen erabilera bultzatu.**

HELBURUA: 8.5. Erlijio saioetan euskararen erabilera handitu.

Egin zitezkeen ekintzen artean hauexek aukeratu ziren 2011-2015 plangintzaldian, baina ez zen deus aipagarririk egin:

1. Gurasoengan eta komunitate bakoitzeko partaideengan eragin, oroigarrietan euskararen erabilera bultzatzeko (bataioa, Jaunartzea, ezkontza, heriotza...).
2. Laguntza teknikoa eskaini, erlijio saioetako materialaren itzulpenerako eta testuak kalitatezkoak direla bermatzeko.

ESPARRUA: 9. KOMUNIKABIDEAK

HELBURUA: 9.1. Herri edo eskualde mailan euskarazko komunikabideen garapena sustatu edota euskararen erabilera bultzatu egungo komunikabideetan.

Ekintza
1. Udalerrri bakoitzaren beharretara egokituko den euskarazko komunikabideen bideragarritasuna aztertu: aldizkari xume bat, web orriaren bitartezko komunikazioa, blogg-ak , sms bidezko albisteak... Hondarribia aldizkaria argitaratzen du Udalak.
2. Eskualdeko euskarazko komunikabideen hedapena diruz lagundu. Partzuergoko Euskara Lan mahaiaren bidez Antxeta irratitari diru-laguntza ematen zitzaion.

Plangintzan hautatutako beste ekintza bat:

1. Komunikabideetan **herritarren eta, bereziki, gazteen partaidetza sustatu**: emanaldietako sarrerak oparitu...

HELBURUA: 9.2. Publizitatean euskararen presentzia bultzatu.

Ekintza
1. Udalak egiten dituen publizitate ekimenetan euskarazko komunikabideak lehenetsi. Euskara Zerbitzuak euskarazko komunikabideetan publizitatea txertatzen du.

Publizitatean euskararen presentzia bultzatzeko **egiteke** geratu zen bestelako ekintza bat:

Enpresa, merkataria eta elkarteei zuzendutako **sentsibilizazio ekintzak** martxan jarri **publizitatean** euskararen erabilera bultzatzeko.

ESPARRUA: 10. TEKNOLOGIA BERRIAK

HELBURUA: 10.1. Teknologia berrietan euskararen erabilera handitu.

Egindakoa:

Ekintza

1. **Web-guneak euskaratu.** [Web-guneak euskaraz jartzeagatik diru-laguntzak eskaintzen zituen Udalak.](#)

Plangintzan ageri ziren eta **burutu ez ziren** beste ekintza batzuk:

1. Herritarrengan **eragin**, batez ere gazteenengan, **euskaraz** jo dezaten **sarrera, informazio bila**.
2. Herritarrengan **eragin**, batez ere gazteenengan, sakelakoetan, ipodetan eta gainerako **tresnetan euskarazko menuak, mezuak... euskaraz** izan daitezten.
3. Herritarrei teknologia berrien arloan **euskaraz sortzen dena aditzera** eman.
4. Teknologia berriak euskaraz erabiltzeko **ikastaroak** antolatu adin guztietarako.
5. Euskarazko **eskaintza bermatu KZ** guneeetako ikastaroetan.

LABURBILDUZ

Plangintzek ahalbidetzen dute herriko eragileekin batera elkarlanean herrian lehentasunezkoak diren esparruak aukeratzea eta ekintzak/egitasmoak burutzea.

Berri ona da Hondarribiko Udalak herrian euskararen normalizazioa lortzeari begira horrelako plangintzak sustatzea eta aurreko urteetan zegoen ekintza solteen dinamikarekin puskatzea.

Baina, plangintza edukitzea ez da nahikoa. Plangintza horretan txertatutako neurriak egikaritzeko beharrezko baliabideak jartzea eta elkarlan egonkorra sustatzea beharrezkoa da.

Gure ustez, alde batetik, plangintzaldi hauetan euskararen normalizazioan eragiteko hainbat ekintza interesgarri bezain eraginkor burutzeke geratu dira giza-

baliabide nahiz baliabide ekonomiko nahikorik jarri ez zelako (horietaz txosten honetan aurrerago hitz egingo dugu), eta, beste aldetik, plangintza hauen diseinua elkarlanean oinarritu bazen ere, plangintza bera egikaritzeko orduan elkarlan hori eta koordinazioa epeldu egin zirelako (horren arrazoia giza-baliabide eskasian ere oinarri liteke).

6.2. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana, ESEP 2015-2017.

EBPNrekin alderatuz, Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren **helburu nagusia EUSKARAREN ERABILERA** handitzea da.

“Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen normalizazioa bilatzen duen hizkuntza politika hogeita hamar urte betetzera doan garai honetan, gero eta argiago nabaritzen da egungo eta **etorkizuneko erronka nagusia**, Euskara 21 gogoeta prozesuan azpimarratu zen bezala, hizkuntzaren erabilera dela. Errealitate ezaguna da euskararen erabilera ezagutza baino apalagoa dela. Hala adierazten digute ikerlan soziolinguistiko guztiek (...)

Hortaz, eta **ezagutzaren eremuan oraindik ere urrats sendoak egin behar diren arren**, ezagutzaren eta erabilerearen arteko aldea murrizteko bidean, plan **honen helburu nagusia euskararen erabilera indartzea** izango da. **Horretarako**, eta euskararen **hiztun-elkartearen kohesioa** areagotzeko, ekimen eraginkorrak bultzatuko dira. Helburu horren peskizan, **euskal gizarteari bere osotasunean dagokio** euskara erabiltzeko aukerak eta guneak bermatu, zaindu eta sustatzea, eta **herri administrazioek zeregin horretan lagundu** behar diote, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legearen 5. artikulua dioena gauzatze bidean jartzeko: “Euskal Herriko herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz”. Euskararen erabilera sendotu eta zabaltzea gizarte egiatan elebidun bateranzko urrats ezinbestekoa da.”²³ (11.or.)

ESEP hiru helburu estrategikoen inguruan antolatzen da, bata, nagusia, euskararen erabilera eta, beste biak euskararen jabekuntza eta euskararen elikadura. Eta helburuak lortzen lagunduko duten bi zehar-lerro aipatzen dira: euskararen aldeko motibazioa eta euskararen zabalkundea.

²³ Euskara Sustatzeko EkintzaPlana (ESEP). Euskararen Aholku Batzordea. Kultura Saila. 2012ko iraila: [http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/esep_sarrera/eu_esep/adjuntos/Euskara%20ustatzeko%20Ekintza%20Plana%20\(ESEP\).pdf](http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/esep_sarrera/eu_esep/adjuntos/Euskara%20ustatzeko%20Ekintza%20Plana%20(ESEP).pdf)

Hauen denen azpian esparruak, neurriak eta jarduerak aurkituko ditugu. Hauxe beraz, plangintza baten hezurdura:

Helburu estrategikoak	Helburuak lortzeko zehar-lerroak
<i>Euskararen jabekuntza</i> 1. Familia bidezko transmisioa 2. Irakaskuntza 3. Euskalduntze-alfabetatzea	<i>Euskararen aldeko motibazioa</i> 14. Sentsibilizazioa eta motibazioa
<i>Euskararen erabilera</i> 4. Administrazioa 5. Gune geografiko euskaldunenak 6. Arlo sozio-ekonomikoa 7. Aisia eta kirola	<i>Euskararen zabalkundea</i> 15. Barruko proiektzioa 16. Kanpoko proiektzioa
<i>Euskararen elikadura</i> 8. Liburugintza 9. Kulturgintza 10. Publizitatea 11. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea 12. Hedabideak 13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak	

Hondarribiko Udalak 2015eko apirilaren 27an onartu zuen Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren 2015-2017 Plan Estrategikoa (**ESEP 2015-2017**), aurreko Euskara Biziberritze Plan Estrategikoaren (EBPN, 2011-2015) egokitzapena izan zena.

Egokitzapena esatean zera adierazi nahi dugu: aurreko plangintzaldiko jarduerak eta egitasmoak hartu eta plangintzaldi berri honetako esparruetan eta neurrietan txertatu zirela. Plangintza berria diseinatzeko, beraz, ez zen aurreko plangintzetan bezala gizarte eragileek eta norbanakoek osatutako Euskararen Aholku Batzorderik bildu.

Izan ere, Eusko Jaurlaritzak eskatuta, garai berriei egokitutako plangintza berria bultzatu behar zen herrietan eta herri bakoitzak ordurarte zeukana Euskara Sustatzeko Ekintza Plana berriari egokitu.

Gainera, beste helburu bat ere bazen: bai udal barrura begirako Euskararen Erabilera Planen bai udalerriri begirako Biziberritze Planen plangintzaldiak epealdi beretan diseinatzea eta egikaritzea, bi plan horien balorazioa eta ondorioak epealdi berekoak ere izan zitezen.

Hortaz, udal barrura begirako V. plangintzaldiko Euskararen Erabilera Planaren indarraldia 2017an amaituko zenez, udalerriri begirako ESEP plangintza berriaren

iraupena ere urte horretan ezarri zen.

Jarraian, ikus ditzagun **plangintzaldi berri honetarako** (ESEP, 2015-2017) aurreikusitako **jarduerak eta egitasmoak** ESEPen esparruetan banatuta²⁴.

Esan bezala, gehienak aurreko plangintzalditik hartutakoak dira :

1-Familia bidezko transmisioa esparruan: "Kontu txikiak" liburuxka eta CDa banatu aurreko urtean jaiotako haurren gurasoei; Kultura Sailak antolatutako euskal tradizioari lotutako jaialdiak.

2-Irakaskuntza esparruan: Bertsolaritza egitasmoa eta euskal kantuen eta jolasen programa ikastetxeetan.

3-Helduen euskalduntzea esparruan: Mintzalaguna egitasmoa.

4-Administrazioa esparruan. Neurrien artean hauexek hobetsi ziren: Administrazioan euskararen erabilera sustatu eta bermatzea, euskara ere lan hizkuntza izateko neurriak hartzea eta hizkuntzak erabiltzeko irizpideak finkatzea (irizpideen artean kontrataziorako hizkuntza-baldintzak).

5-Arlo sozio-ekonomikoa esparruan: errotulaziorako eta web guneak euskaratzeko diru-laguntzak; hiztegiak.

6-Aisia eta Kirola esparruan: Gazteria Sailak antolatutako Udajolas eta Udabentura udalekuak; Betti-Gotti elkarteak antolatutako udaleku itxiei diru-laguntza.

7-Kulturgintza esparruan: eskolaz kanpoko jarduerak ikastetxeetan eta ipuin kontalariak liburutegian; Bordari-Satarka literatur lehiaketa eta Txiste Grafikoen lehiaketa, Laburbira euskarazko film laburren zirkuitoa.

8-Hedabideak esparruan: Hondarribia aldizkaria.

9-Sentsibilizazioa eta motibazioa esparruan: euskaltegiko publizitate kanpaina; Mintzodromoa; euskaltegiko bekak; udako euskara errefortzua ikastaroak ikastetxeetan, euskaltegitik kanpo ari direnentzat diru-laguntzak; Herri Urrats, Nafarroa Oinez; Liburu azoka; irakurketa tailerrak liburutegian, zinema euskaraz ikastetxeetan, Neguko Jardunaldiak, Kanean Kantuz, udako bertso jaialdia.

²⁴Hondarribiko Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2015-2017: [http://www.hondarribia.eus/dokumentuak/menu/2015624122943_1_ESEPPlanEStrategikoaHon\(beste%20formatuan\).pdf](http://www.hondarribia.eus/dokumentuak/menu/2015624122943_1_ESEPPlanEStrategikoaHon(beste%20formatuan).pdf)

LABURBILDUZ

Aurreko plangintzaldietan bezala, Hondarribiko ESEP 2015-2017 Plan estrategikoan neurri eta ekintza gehiago aukeratu ziren, baina aurrera eramaten diren jarduerak eta egitasmoak arestian zerrendatutakoak dira. Gainerakoak ikusteko Hondarribiko Udalaren web orrira jo daiteke, Euskara Departamentuaren atalera²⁵.

Aukeratutako neurri eta ekintza horiek ez burutu izanaren arrazoiak aurreko atalaren laburpenean aipatu ditugu, hots, baliabide nahikorik ez, elkarlana eta koordinazioa epeltzea...

Garrantzitsua izango da, beraz, inertzietan ez erortzeko eta plangintzak izan beharko lukeen presentzia soziala berreskuratzeko, hurrengo plangintzaldirako beharrezkoak diren bitartekoak jartzea eta elkarlana eta koordinazioa sustatzea.

²⁵ Hondarribiko Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP 2015-2017)

7. EUSKARA DEPARTAMENTUAREN AURREKONTUA ETA GIZABALIABIDEAK

7.1. Euskara Departamentuaren aurrekontua.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Euskara Biziberritze Planetan hiru helburu aipatzen zituen udalerrietan lan eraginkor bat egin ahal izateko eta horietako bat zen euskarako aurrekontua Udalaren aurrekontu osoaren %2ra, behintzat, iristea.

Azter ditzagun, beraz, zenbait urtetako Hondarribiko Udalaren euskararako aurrekontuak:

URTEA <small>26</small>	UDALAREN AURREKONTUA GUZTIRA	EUSKARAREN AURREKONTUA GUZTIRA		Euskararen aurrekontuaren banaketa	
		Aurrekontua	Aurrekontu osoaren %	Euskararen sustapena	Euskaltegia
2001	11.453.129,43 €	418.905,30 €	%3,65	180.303,57 €	237.399,70 €
				Euskararen aurrekontuaren %	Euskararen aurrekontuaren %
				%43	%57
2006	20.286.489 €	523.830,00 €	%2,58	267.564,00 €	256.266 €
				Euskararen aurrekontuaren %	Euskararen aurrekontuaren %
				%51	%49
2007	20.634.097 €	541.230 €	%2,62	298.543 €	242.687 €
				Euskararen aurrekontuaren %	Euskararen aurrekontuaren %
				%55	%45
2016	18.900.000 €	656.592 €	3,47 %	224.815 €	431.777 €
				Euskararen aurrekontuaren %	Euskararen aurrekontuaren %
				%34	%66

²⁶ Informazio iturriak: 2001 (HOND,121.zk.), 2006 (HOND,183.zk), 2007 (HON,194 zk.) eta 2016 in <http://www.hondarribia.eus/listado.asp?menu=534&idioma=eu>

Hizkuntza Plangintza Hondarribian, diakronikoki eta sinkronikoki aztertuta

Taulan ikus daitekeenez, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzaren gomendioari jarraituz, **Hondarribiko Udalak euskarara bideratzen duen aurrekontua Udalaren aurrekontu osoaren %2tik gora** egon da aztertutako urte guztietan, eta aurtengo aurrekontuan ere ehuneko horretatik gora eskaintzen zaio euskararen normalizazioari.

Ondoren, Udalak inbertitzen duen **dirua zer sustatzeko erabiltzen den** aztertu nahiko genuke. Hauexek emaitzak:

Urtea	Euskararen sustapena	Euskaltegia
2001	%43	%57
2006	%51	%49
2007	%55	%45
2016	%34	%66

1) Azken hamabost urteotan euskarako aurrekontuaren erdia euskararen sustapenerako eta beste erdia euskaltegirako, helduen euskalduntzea eta alfabetatzea indartzeko, banatu izan da.

2016an, berriz, desoreka ematen da eta **aurrekontuak nabarmen egin du** euskaltegiaren alde (2015ean ere horrela zen), hots, **euskararen ezagutza sustatzearen alde**.

2) **Dirutan begiratzuz gero**, ikusten da **euskaltegiko** aurrekontua azken hamar urte hauetan **ia bikoiztu** egin dela, **euskararen sustapenera** bideratutakoa **jaitsi** den bitartean: 2006koarekiko %15eko jaitsiera eta 2007koarekiko %24koa.

Urtea	Euskararen sustapena	Euskaltegia
2006	267.564 €	256.266 €
2007	298.543 €	242.687 €
2016	224.815 €	431.777 €

Udal euskaltegiaren aurrekontuaren igoera, berriz, euskaltegiak azken urteotan egindako lanaren ondorioa izan da, izan ere, azken urteotako matrikulazioaren gorakadak nahitaez euskaltegiaren aurrekontua igotzea suposatu du.

3) Bukazteko, euskaltegia alde batera utzita, **euskararen sustapenera** bideratzen den **dirua zer sustatzeko** erabiltzen den azalduko dugu, eta horretarako 2016ko aurrekontua xehatuko dugu (2007koan ere antzeko banaketa egin zen):

2016ko AURREKONTUA (Euskararen sustapena)	Zenbatekoa	Euskarako aurrekontuaren %
1- Euskara Departamentuko langilegoa	59.541 €	%26
2- Idazmena- Irakurmena	62.905 €	%28
3- Ahozkotasuna-Mintzamena	30.872 €	%14
4- Euskalduntzea	15.800 €	%7
5-Kultur jarduerak	26.215 €	%12
6-Hizkuntza paisaia	3.800 €	%2
7-Publizitatea	6.500 €	%3
8-Bestelakoak	19.182 €	%8
GUZTIRA	224.815 €	

OHARRA: taulan bereizitako lehendabiziko sei atalen barruan sartzen diren ekintzak, egitasmoak eta bestelakoak ondoko hauexek dira:

1-Euskara Departamenduko langilegoa: euskara arduraduna eta itzultzailea.

2-Idazmena-Irakurmena: Bordari-Satarka lehiaketa eta lanak argitaratzea, Txiste Grafikoen lehiaketa, Liburu eta diska azoka, Hondarribia aldizkaria.

3-Ahozkotasuna-Mintzamena: Mintzalaguna, Kanean kantuz, Bertsoarritza ikastetxetan eta Urtxintxa programa (euskal kantu eta jolasak).

4-Euskalduntzea: barnetegietara joateko diru-laguntzak eta ikastetxeetako udako ikastaroak.

5-Kultur Jarduerak: Neguko Jardunaldiak, Bertso saioak, eskolaz kanpoko jarduerak (zinea...).

6-Hizkuntza paisaia: diru-laguntzak errotulaziorako eta web orrietarako.

Horrenbestez, langilegoaren ehunekoa aparte utzita, 2016an euskararen sustapenera zuzendutako aurrekontuaren %28a idazmena eta irakurmena sustatzera bideratzen da, %14 ahozkotasuna eta mintzamenara eta %12a kultur jardueretara.

Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren (ESEP) helburu nagusia euskararen erabilera sustatzea baldin bada, eta arreta berezia ahozko erabileran jartzen badu, datu hauei buruzko gogoeta egin beharko litzateke.

LABURBILDUZ

Hondarribiko Udalak bere aurrekontu osoaren %2 baino ehuneko altuagoa inbertitu izan du eta inbertitzen du euskararen normalizazioarako.

Euskararen aurrekontua horren zati bat euskaltegirako eta beste zatia udalerrian euskararen erabileraren sustapenerako bideratzen da. Azken urteotan banaketan desoreka eman da euskararen ezagutza sustatzearen alde.

Azkenik, euskararen erabileraren sustapenera bideratutakoaren aurrekontuaren banaketa dela eta, gehiena idazmena eta irakurmena sustatzera zuzentzen da, ondoren ahozkotatasuna/mintzamena eta azkenik kultur jardueretara.

7.2. Euskara Departamentuaren giza-baliabideak.

LANGILEAK

"Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskara-zerbitzuen dimentsionamendurako egin berri duen azterketaren arabera, Hondarribia bezalako udalerrri bateko Euskara Zerbitzuan **lau langile aritu beharko lirateke**, gutxienez: hizkuntza normalkuntzarako teknikari bi (bata, udal barneko administrazioaren euskara-planaren zereginetan, eta bestea, udalerritari begira kanpoko jardueretarako normalizazio lanetan), itzultzaile bat eta administrari bat."

27

1981etik 2000era langile bakarrak bete ditu goian aipatutako funtzio guztiak. 2000. hamarkadan epealdi ezberdinetan bi pertsona trebatzaile lanetan aritu ziren arren, 2005a arte itxoin beharko da itzultzailearen eta euskara teknikariaren funtzioak bereizteko, urte horretan itzultzaile lanetan aritzeko bigarren pertsona bat hartu baitzen.

Gaur egun, Euskara Zerbitzua bi lagunek osatzen dute: bata, Euskara arduraduna da eta, bestea, itzultzailea.

²⁷ Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Hondarribiko Udalarentzako 2004an egindako txostenetik ateratako proposamena da. Txostena:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (2004). Hondarribia. Udalaren egungo egoeraren diagnostikoa.

Hori dela eta, Euskara arduradunak funtzio hauek denak betetzen ditu: administrariarenak, Udal barrura begirako hizkuntza normalkuntzako teknikariarenak, udalerriri begirako hizkuntza normalkuntzako teknikariarenak eta Euskara Zerbitzuaren arduradunarenak.

Hondarribiko Udalaren web orrian Euskara Zerbitzuko atalean begiratzuz gero, hiru lanpostu ageri dira: Euskara arduradunarena eta itzultzailearena beteta daude eta teknikari trebatzailearena hutsik.

Hortaz, esan beharrik ez dago **gaur egun Euskara Zerbitzua osatu gabe dagoela**. Itzultzaileaz gain, arestian aipatutako funtzio horiek denak betetzen dituen pertsona bakarra dago. Udalerrian nahiz udalean bertan euskararen normalizazioan benetan lan eraginkorra egin nahi bada, gure ustez, lehentasunezkoa litzateke Zerbitzua bera osatzea.

EUSKARA BATZORDEA

1981ean Udal Euskara Azpibatzerdea sortu zen Kultura batzordearen menpe. Handik urte batzuetara, 1987an, Udal Euskara Azpibatzerdea Udal Euskara Kontseilu bihurtu zen.

“Lehen edozeinek parte har zezakeen, orain berriz, talde politiko bakoitzeko ordezkari bat, eskola bakoitzeko ordezkari bat, eta Klink, AEK, eta Habetik beste ordezkari bana dira bertan parte hartzen dutenak.” (HOND (1987), 17. zk.)

Gaur egun, Euskara Batzerdea du izena eta udal zinegotziek osatzen dute. Udalaren web orriko azalpenaren arabera:

“(…) Udalbatzan ordezkatuta dauden talde politiko guztietako zinegotziak izan daitezke bertako kide. Batzerde informatzailea da, bere proposamenak Osoko Bilkurak, Tokiko Gobernu Batzarrek edo Alkatetzak erabaki behar izaten ditu. Euskara Batzordearen bilerak beharren arabera 3/4 egiten dira eta bertan aztertu eta onartzen dira Euskararen Aholku Batzerdeak edo beste edonork egindako proposamenak”.

Egun, urte honen hasieratik Euskara Batzerdea beste sailletako hainbat batzorderekin batera (Kirola, Kultura, Gazteria, Hezkuntza...) Herritarrak izeneko batzordean biltzen da.

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA

Udalaren web orrian Euskara Zerbitzuko atalean honelako azalpena ematen du Euskararen Aholku Batzordeari buruz:

“Batzorde hau herriko hainbat elkarte, talde eta ikastetxetako eta Udal Euskaltegiko ordezkariak osatzen dute euskarako zinegotziaz eta euskara teknikariek gain.

Bilera orokorrak urtean bat edo bi egiten ditu gutxienez, baina lan-taldeka banatuta dago eta hauen bilerek bestelako maiztasuna dute, besteak beste, ikastetxeetako eta euskaltegiko ordezkariak osatzen duten taldea hamabostero, edo beharren arabera, biltzen da.”

Urteotan egindako zenbait bilera:

-2005-2008 Euskara Biziberritze Plan Nagusiaren diseinuan parte hartzeko eta ekarpenak jasotzeko 2004ko ekainaren 21ean Euskararen Aholku Batzordea eratu zen.

“Plan honetan, zeresan berezia du Aholku Batzordeak. Gizartearen parte hartze zabal bat bermatu asmoz, Hondarribiko gizarteko esparru desberdinetako ordezkariak bildu nahi izan dira: irakaskuntza, kirola, aisia, Eliza...”

Horrela, 25 izan dira Aholku Batzorde hau osatzeko deitu izan diren partaideak. (...) Adibide bezala esan, ikastetxeei dagokienez, Talaia, Ama Guadalupekoa eta San Jose bertan egongo direla, kirolari dagokionez Hondartza kiroldegia, Arraun eta Futbol elkarteak, Bizilagunen elkarteak, Kasino Zaharra, Musika Eskola, Ostalaritza elkarteak, eta zenbait elkarte gastronomiko ere, gehienbat hiritarrentzat jarduerak antolatzen dituztenak.” (HOND, 163.zk.)

-2007ko otsailaren 15ean Euskararen Aholku Batzordea bildu zen:

“Batzorde hau herriko ikastetxe, elkarte eta taldeetako ordezkariak osatuta dago, guztira 30 partaide ditu, eta horien iritziak, aholkuak eta ekarpenak beharrezkoak dira Euskara Zerbitzuak urteroko Kudeaketa Planak aurrera eraman ahal izateko, plan horretan sartzen baitira Udalak udalerrian euskararen erabilera bultzatzeko antolatzen dituen ekintza guztiak. Aholku Batzordeak urtean bi bilera orokor egiten ditu, batik bat aurreko urteko Kudeaketa Planaren jarraipena egiteko eta hurrengo urtekoa prestatzeko.

Hala ere, Aholku Batzorde horretako zenbait lan-talde, adibidez Hezkuntza Taldea hamabostero edo beharren arabera biltzen da, berari dagozkion gaiak aztertzeko.

Otsailaren 15eko bilera orokorrean aztertu zen 2006ko Kudeaketa Planaren garapena, eta aurreikusitako ekintza gehienak burutzeaz gainera, aurreikusi gabeko berri batzuk ere abian jarri direla frogatu zen, besteak beste, Klean Kantuz eta

Mintzalaguna izeneko programak eta Arrantza Munduko Esamoldeen bilketa.

Bilera horretan bertan, 2007ko Kudeaketa Plana prestatzeari ekin zitzaion, eta horretarako, bertaratutakoen ekarpenak jaso ziren. Proposatutako ekintza berrien artean, aipagarriena, etorkinei begira antolatu nahi den euskalduntze kanpaina izan zen. (...)” (HOND, 195 zk.)

-2011ko urriaren 5ean Euskararen Aholku batzordea deitu zen Euskara Biziberritzeko 2011-2015 Plan Estrategiko berriari begirako ekarpenak eta iritziak jasotzeko.

Batzordean honako hauek izan zuten ordezkaritza: Udal euskaltegiak, ikastetxeek, Hondartza kiroldegiak, Kofradiak, Arraun elkarteak, Hondarribia Kirol taldeak, Futbol elkarteak, Emeki elkarteak, Klink elkarteak, Ostalaritza elkarteak, Amute-Kosta auzo elkarteak, Irun Iruten euskara elkarteak, EHUko irakasle batek.

Orduz geroztik, Euskararen Aholku Batzordea ez da bildu.

8. ONDORIOAK.

Lan honetan zehar ikuspegi zabalarekin jokatu dugu eta hainbat atal aztertu ondoren, oraingo honetan ondorioetan sartuko gara.

Lehenik eta behin, laburrean, gure iritziz nagusiak diren hainbat ondorio zerrendatuko dugu. Ondoren, ondorio horiek zein bestelako batzuk ere xehakatuago azalduko ditugu bai sarreran planteatutako hipotesiak oinarri hartuta bai urteotan egin den lana esparrutan aztertuta.

HAINBAT ONDORIO LABURREAN

- 1)-Hondarribian Euskararen normalizazioan egin den lana ez da estrategia lan batean oinarritu. Lehentasunezko esparruak aukeratuta, adostasunean eta elkarlanean oinarritutako plangintza bat diseinatzea falta da.
- 2)-Urteotako erronkei aurre egiteko, ez da giza-baliabide nahikorik egon Euskara Zerbitzuan.
- 3)-Egun, Udalak euskarara bideratzen duen aurrekontuaren erdia baino gehiago euskararen ezagutza sustatzera zuzentzen da.
- 4)-Egun, Udalak euskararen erabilera sustatzera bideratzen duen aurrekontuan ehuneko handiena idazmena/irakurmena bultzatzera bideratzen da. Ondoren, ahozkoaren erabilera.
- 5)-Euskararen sustapena ez da Euskara Zerbitzuaren ardura soilik, denona baizik: norbanakoena, gizarte-eragileena, administrazioarena... Egindako lana ez da askotan elkarlanean eta koordinazioan oinarritu.
- 6)-Euskararen Aholku Batzordea 2011z geroztik ez da bildu.
- 7)-Ikastolaren sorreran eta sustapenean lanean aritu zen giza-mugimenduaren ondoren, ez da Hondarribian euskara sustatzearen alde hura bezain giza-mugimendu garrantzitsurik egon 2015ean Blagan euskara elkarte sortu den arte.
- 8)-2011ko datuen arabera, euskaldunen hiztun-multzoa gehiengo da Hondarribian (%60), hau da, biztanleen erdia baino gehiago.

9)-1986-2011 urte bitartean ia-euskaldunen taldea izan da hazi den bakarra. Gainera, hiztun-multzo hau helduen taldean hazi da nabarmen: 17 puntuko igoera

10)-2011ko datuetan oinarrituz, haurren %82 eta gazteen %73 euskalduna da. Hogeita bost urtetan gazteen taldean hazi da gehien euskaldunen ehunekoa: 30 puntu! Hortxe, beraz, zaindu beharreko altxorra.

11)-Adinekoen artean euskaldunen ehunekoa 16 puntu jaitsi da hogeita bost urtean eta egun, erdaldun gehien dagoen adin-taldea da.

12)-1999. urteaz geroztik, ez dugu kaleko euskararen erabilerari buruzko daturik.

13)-2001ko datuen arabera, herritar erdiaren lehen hizkuntza gaztelania da eta beste erdiarena euskara.

14) Etxeko erabilerari dagokionez, gaztelania da erabat nagusi Hondarribiko etxeetan. Haurren eta gazteen adin-taldeetan euskararen erabilerak igoera xumea ezagutu du azken 20 urteotan eta, helduen eta adinekoen artean azpimarratzeko jaitsiera. Azpimarratzekoa ere bada, haurren taldean gaztelaniak izan duen hazkundea. Familia esparruan eragiteko beharra erakutsi dute datuek.

15)-Egun, D eredia da nagusi Hondarribian.

15)-Ikastetxeak guztira hartuta eta zikloka aztertuta, zenbat eta ziklo altuagoa orduan eta ehuneko txikiagoa D ereduan, eta handiagoa B ereduan.

16)-Gaur egun 16-17 urte bitarteko gazteen %47k Batxilergoa A ereduan ikasten du Hondarribian.

17)-Merkataritzako eta, batez ere, ostalaritzako ageriko idatzizko elementuetan gaztelaniaren presentzia nabarmenak herriko hizkuntza paisaia erdalduntzen du.

18)-Azken ikasturteotako euskaltegiko matrikulazioak erakutsi duen goranzko joerak jarraituz gero, euskaltegiak espazio faltagatik ezingo lioke eskaerari erantzun.

ONDORIOAK XEHAKATUAGO

Ondorioen atala eta proposamenena osatzeko, txostenean zehar azaldutakoa izan dugu oinarri, baita eranskinetan topatuko ditugun herritarren iritziak eta hasieran ezarritako hipotesiak ere.

HIPOTESIAK

1. HIPOTESIA:

“Ekintza puntualak eta egitasmoak ugariak dira Hondarribiko hizkuntza plangintzan eta euskararen sustapena/berreskurapena ez da estrategia lan batean oinarritzen.”

a) Azken hogeita hamar urteotako lana aztertu ondoren, gure ONDORIO NAGUSIA da lehenengo plangintzaldiko Euskara Biziberritzeko Plana (EBPN 2005-2008) aurretik sortzen joan ziren egitasmo eta jardueretako asko, gaur egungo plangintzaren neurriei egokituz bertako esparrutan txertatuz joan direla.

Hala nola, Hondarribia aldizkaria, Neguko Jardunaldiak, Bordari-Satarka literatur lehiaketa, Txiste grafiko lehiaketa, Kontu txikiak liburuxka eta CDa, diru-laguntzak (euskara ikasteko, errotulazioa euskaraz jartzeko...), merkataritza eta ostalaritza kanpainak, liburu azoka...

Alderantzizko bidea, hots, herriko egoera eta premiak oinarri harturik, eragin beharreko lehentasunezko esparruetan plangintza bat egitea eta horiekin denekin plangintzaldiko plan estrategikoa osatzea da falta dena.

b) Plangintza horretarako urteotan burututako egitasmo eta jarduera batzuk egokiak izan litezke egungo helburuak betetzeko, baina beste batzuk ez, eta esango genuke zenbaitetan inertziaz jokatzen dela, eta ez dela egitasmoaren egokitasuna eta eraginkortasuna baloratzen.

1986an Hondarribia aldizkaria sortu zeneko garaian herritarrak irakurtzen jartzea baldin bazen erronka edota Bordari-Satarka literatur lehiaketa sortu zenean idazteko zaletasuna sustatzea, ez dugu ahaztu behar gaur egungo erronka nagusia euskararen erabilera sustatzea dela, arreta berezia euskararen ahozko erabilerari eskainiz.

2. HIPOTESIA:

“Udalaren bitartekoak ez dira nahikoak:

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Euskara Biziberritze Planetan hiru helburu aipatzen zituen udalerrietan lan eraginkor bat egin ahal izateko: Euskara Batzordea osatzea, Euskarako Zerbitzua sortzea edo osatzea eta euskarako aurrekontua aurrekontu osoaren %2ra, behintzat, iristea. “

Azter ditzagun banan-banan:

EUSKARA BATZORDEA OSATZEA

Hondarribiko Udalean Euskara Batzordea sortuta dago (gaur egun Herritarrak Batzordean barnebiltzen dena) eta bere osaketaz eta funtzionamenduaz ez dugu aipamen berezirik egiteko.

Bai, ordea, Euskararen Aholku Batzordeari buruz.

Euskararen Aholku Batzordea herriko hainbat elkarte, talde eta ikastetxetako eta Udal euskaltegiko ordezkariak osatzen dute euskara zinegotziarekin eta euskara teknikariarekin batera. Udalaren web orrian azaldu bezala, urtean behin edo bitan biltzen da gutxienez.

Euskararen Aholku Batzorde dinamikoa eta aktiboa izatea garrantzitsua da, baina **2011z geroztik ez da bildu.**

Dakigunez, euskara sustatzearen lana ez da Udalaren lana soilik (ezta Udal barruan Euskara Sailarena soilik ere), denona baizik, norbanakoena, gizarte-eragileena, administrazioarena... eta sustatze lan hau elkarlan batean eta gutxienerako adostasun batean oinarritu beharko litzateke.

Gehitu nahiko genuke eragile horien artean aipamen berezia merezi duela herrian sortu berria den Blagan euskara elkarteak. Gizarte mugimendu hau, besteak beste, euskaltzaleon komunitatea trinkotzeari begira paper garrantzitsua jokatzeko asmoz sortu da.

EUSKARA ZERBITZUA SORTZEA EDO OSATZEA.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) 2004an egindako diagnosian ondorioztatu zuen Hondarribia bezalako herri bateko Euskara Zerbitzuak lau langile izan behar zituela.

HPS-ren gomendioa aintzat hartuz gero, garbi dago gaur egun Hondarribiko Udal Euskara Zerbitzua osatu gabe dagoela, itzultzailea eta euskara arduraduna baino ez baitaude bertan lanean.

EUSKARAKO AURREKONTUA AURREKONTU OSOAREN %2RA, BEHINTZAT, IRISTEA.

Azken hamabost urteotako zenbait aurrekontu aztertuta Hondarribiko Udalak HPSren gomendioa betetzen duela ikusten da, hau da, euskararako aurrekontua Udalaren aurrekontu osoaren %2ra iritsi ez ezik, ehuneko horretatik gora egon da beti eta gaur egun ere halaxe dago.

Bestalde, euskarara bideratzen den ehunekoa bezain garrantzitsua da, ehuneko hori zeren sustapenean inbertitzen den, plangintzak dituen helburuen arabera ezagutza edo erabilera sustatzera bideratu beharko baita.

3. HIPOTESIA:

“ Udal Euskara Departamenduaren aurrekontuan pisu handiagoa du euskararen ezagutza sustatzeak euskararen erabilera sustatzeak baino.”

Arestian azaldu bezala, Hondarribiko Udalak bere aurrekontu osoaren %2a baino gehiago zuzendu izan du eta gaur egun ere zuzendu egiten du euskarara.

Hori pozgarria bada ere, gure hipotesia baieztatze edo ezeztatze aldera, hurrengo pausua izan da diru hori zeren sustapenean erabiltzen den aztertzea.

Hauexek ondorioak:

1) Azken hamabost urteotan euskarako aurrekontuaren erdia euskararen sustapenerako eta beste erdia euskaltegirako banatu izan da.

2016an, berriz, desoreka eman da euskaltegiaren alde: aurrekontuaren %66a euskaltegirako eta %34a euskararen sustapenerako.

2) Dirutan begiraturaz gero, euskaltegiko aurrekontua azken hamar urte hauetan ia bikoiztu egin da, euskararen sustapenera bideratutakoa jaitsi den bitartean.

3) Euskaltegia alde batera utzita, euskararen sustapenerako dirua zertan erabiltzen den aztertuta, ondorioztatu dugu 2016an ehuneko handiena idazmena eta irakurmena sustatzera bideratu dela, ondoren ahozkoatasuna eta mintzamina sustatzera eta azkenik kultur jardueretara.

Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren (ESEP) helburu nagusia euskararen erabilera sustatzea baldin bada, eta ahozkoaren erabilera sustatzeari arreta berezia eskaintzen bazaio, gure ustez badugu zertaz hausnartu.

URTEOTAN EGINDAKO LANA

Hipotesietan azaldu bezala, urteotan baliabide nahikorik izan ez denez, ezin izan zaie erronka berriei ganoraz erantzun. Bestalde, erronka berriei erantzuteko estrategia lanik egon ez denez, ez dira lehentasunezko esparruak aukeratu eta ez da horietan eragiteko planik diseinatu, esparru horietan normalean aurreko urteetatik hartutako ekintza edo egitasmo solteak burutu direlarik.

Halere, azken hogeita hamar urteotan esparru horietan egindako lana aztertzea merezi duela ikusi dugu eta, aurreko ondorio nagusi horretaz gain, bestelako ondorio interesgarriak ere atera ditugu.

Hauexek esparruak eta ondorioak:

1. Familia bidezko transmisioa

Berebiziko garrantzia du **esparru honek**, familia bidezko transmisioak euskararen erabilerarekin lotura zuzena duelako.

Plangintzaldiak aztertuta, Familia esparruan erabileran eragiteko urteotan ekintza solteak eta urteetan errepikatu direnak baino ez direla antolatu pentsatzen dugu.

Gainera, eragile bakoitzak (ikastetxeak, administrazioak, guraso elkarteak...) gehienbat bere aldetik jo duela esango genuke, koordinazio handirik gabe.

Bestalde, 2011ko etxe barruko datu soziolinguistikoetan oinarrituz ikusten dugu:

a) Herritar ia erdiaren lehen hizkuntza gaztelania dela eta ondoren euskara, eta hogeita bost urtean gaztelaniaren aldeko bilakaera eman dela (1986-1996 epealdian gaztelania euskararekiko hamar puntura zegoen).

b) Etxeko erabileran gaztelania dela erabat nagusi. Gainera, hogeita bost urteotan gaztelania beti izan da nagusi Hondarribiko etxeetan, baina 2006tik aurrera are gehiago: egun, hogeita bost puntuko aldea dago gaztelaniaren alde.

BERAZ, urteotan egindako lana eta datu soziolinguistikoak oinarri hartuta ondorioztatu dugu, etxe barruko euskararen erabileran eragiteko plangintza bat lehentasunezkoa dela.

2. Irakaskuntza

A) EREDUKA sailkatuta, Hondarribiko ikasleak guztira hartuta gaur egun **D eredia da nagusi** .

B) Eta azken hamabost urteotako BILAKAERA zikloka aztertuta ondorioztatu dugu, ziklo guztietan **D ereduaren aldeko bilakaera** gertatu dela, **Batxilergoan izan ezik**: Batxilergoan D ereduak hiru puntuko beherakada izan du eta A ereduak hamabi puntuko igoera.

Azpimarratzeko datu bat: *gaur egun 16-17 urte bitarteko gazteen %47k Batxilergoa A ereduan* ikasten du Hondarribian.

C) Bestalde, zenbat eta zikloa altuagoa izan, orduan eta portzentajea txikiagoa D ereduan eta handiagoa B ereduan.

D) 2002an ikastetxeetan egindako neurketa batean datuek erakutsi zuten **ikastetxe barruan euskara ez zela gazteen arteko harremanetarako** hizkuntza: irakasleekin %43,5ek euskaraz, ikaskideekin gelan %18,7k eta patioan lagunekin %12,6k.

Datu berriagorik ez izanagatik, gaur egun hurrek ikastetxean bertan gaztelaniaz gero eta gazteago egiten dutela zabaldua dagoen kezka da.

Hortaz, etorkizuneko erronka da eskolan ikasitako euskara eskolan bertan ere erabilia izatea, euskara eskola barruko harremanetarako hizkuntza izatea.

E) Azkenik, garai hauetan euskaraz komunikatzeko estandarrak malgutzeaz eta aberasteaz hitz egiten da, hau da, dena zuzentasunaren irizpidean oinarritu beharrean **komunikagarritasunari** eta adierazkortasunari garrantzia emateaz.

Horixe ikastetxeen eta denon erronka.

3.Helduen euskalduntzea

A) Urte hauetan denetan matrikulazioak gorabeherak izan ditu: 2001-2002 ikasturtean ikasleak ez ziren 100era iristen eta 2015-2016 ikasturtean ia hirukoiztu egin dira.

Matrikulazioaren igoera honetan arrazoiak aurkitzekotan, besteak beste, bi topatu ditugu:

Bata, Udal euskaltegian bertan irakasle taldeak garaian garaiko premiei egokitzuz egindako lana eta, bestea, Hondarribiko Udalak garaian garaiko beharrei egokitzeko helduen euskalduntzean inbertitu dituen baliabide ekonomikoak nahiz

azpiegiturazkoak.

Halere esan, matrikulazioa ezingo litzatekeela askoz gehiago handitu, euskaltegiak bere goia jo duelako eta ez daukalako jende gehiago hartzeko **azpiegitura nahikorik**.

B) Bestalde, euskaltegiaren helburu nagusia euskara irakastea bada ere, euskal hiztunak ere sortu nahi ditu. Hori dela eta, hainbat urtetan klaseez gain **ekintza osagarri** dezente ere antolatzen zituzten klasetik kanpo euskara erabili ahal izateko, gaur egun pare bat baino ez. Egun, erabilera sustatzeko euskaltegiaren eskaintzarik garrantzitsuen Hondarribiko Udalarekin batera antolatzen duen **Mintzalaguna** egitasmoa da.

C) Azkenik, **beke sistema** dela eta, garaiko beharrei egokitzen saiatzen dela ikusi dugu. 2016tik aurrera, esterako, langabetuek euskara dohainik ikasteko aukera izango dute.

4. Administrazioa

Egun, Hondarribian V. Plangintzaldiko *Hondarribiko Udalean Euskara Normalizatzeko Erabilera Plana 2013-2017* dago indarrean. Horretaz gain, 1992an <<Hondarribiko Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauak ematen dituen Udal Ordenantza>>²⁸ onartu zuen Hondarribiko Udalak.

Bietan udalerrriaren bizitzan eta hizkuntzaren erabileran bete-betean eragiten duten zenbait puntu daude jasota. Hauexek laburrean:

Hondarribiko Udalarengandik diru-laguntza bat jasoz gero edota Udalak utzitako lokal, bulego, egoitza erabiliz gero edota kontratu administratibo bidez esleitutako jarduerak edo zerbitzuak eman behar izanez gero edota udal instalazioak eta materialak erabiliz jarduerak antolatu behar izanez gero, elkarteek eta entitateek, pertsona fisikoek nahiz juridikoek UDALAK FUNTZIONATUKO LUKEEN MODUAN jokatu beharko dute.

Hots, agerpen publiko orotan euskara edo euskara eta gaztelania erabili beharko dute, ahoz zein idatziz, euskarari lehentasuna emanaz. Errotulazio finkorik egonez gero edota noizbehinkako oharra eman behar izanez gero, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz agertuko dira.

Gaur egun, dakigunez, ezin esan diru-laguntza jasotzen duten guztiek, udal

²⁸ Hondarribian euskararen erabilera normalizatzeko Udal Ordenantza(1992): http://www.hondarribia.org/dokumentuak/menu/200942414189_1_Euskara%20E.pdf

egoitza bat erabiltzen guztiek, kontratazio bidez esleitutako zerbitzu bat ematen duten guztiek edota udal instalazioak edo materialak erabiltzen dituzten guztiek ehuneko ehunean goian aipatutako baldintzak betetzen dituztenik.

5. Arlo sozio-ekonomikoa.

A) Hondarribian ez dago enpresetan euskararen erabileran eragiteko **planik**, ezta ere, 2015eko datuen arabera Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzak enpresetan euskara-planak garatzeko ematen duen **diru-laguntza** (LanHitz deialdia²⁹) **eskatu duen Hondarribiko enpresarik**.

B) Ostalaritzan eta merkataritzan euskararen erabileran eragiteko, ordea, 2001etik 2011ra Hondarribiko Udalak herriko establezimenduen hizkuntza egoeraren diagnosiak eta zerbitzu eskaintza egin du ia urtero **"Euskara Merkataritzara"** egitasmoaren bidez.

Egitasmoa urtero egiten bazen ere, bere iraupena oso mugatua izaten zen, hots, diagnosis egiteak eta zerbitzuak eskaintzeak eskatzen zuten adina irauten zuen egitasmoak.

C) Bestalde, urteotan egindako diagnosisen emaitzek garbi erakusten dute merkataritzan eta ostalaritzan eragiteko egitasmoaren beharra.

1988an egin zen neurketan euskararen **idatzizko erabileran** ondorioztatu zena 2016rako balio duela pentsatzen dugu:

"Euskara idatziari zegokionez, "erabiltzen hasi, hasia da (...) Euskara idatzia **borondate huts-hutsaren** gain uzten da. Hala egoeran jendeak sinetsi ere ez du egiten **euskarak funtzionatzeko balio** dezakeenik."

²⁹Halere, Hondarribian lan egiten duten baina egoitza nagusia bertan ez duten hainbat enpresek 2015eko LanHitz deialdiko diru-laguntza eskatu eta jaso dute. Hala nola: Euskadiko Kutxa, Lagun Aro aseguruak, Kutxabank, Orona, Euskaltel, Auzo-Lagun, Ekialdebus...: http://www.euskara.euskadi.eus/r59-14154/eu/contenidos/informacion/baliabideak/eu_00131/hpsren_finantzazio_lerroa.html

6. Aisia eta Kirola.

Euskararen normalizazioan **oinarrizko esparrua**, baita Hondarribian ere. ESEPen³⁰ esparru honetako etorkizunerako erronka zein den horrelaxe azaltzen dute:

"Eskolak herritar asko elebidundu badezake ere, eskolari ezin zaio eskatu erabileran eragin handia duten jarduera ugari bere gain har ditzala. Horregatik da garrantzizkoa eskolaz kanpoko jardueretan -eta bereziki haur eta gazteei zuzentzen zaizkienetan- euskara erabiltzeko aukera zabalak eskaintzea, kirol federazio eta bestelako elkarteekiko lankidetzaren bitartez."

A)- Lankidetzaz ari garela, Hondarribiko Udalak zenbait aisi, kultur eta kirol elkarteekin euskararen erabilera sustatzeko **hitzarmenak sinatu** zituen 2000az geroztik. Ondoko hauekin: Musika Eskola, Pilota eskola, Arraun elkarte eta Hondarribia Futbol elkarte.

Kasu hauetan guztietan ez da ez hitzarmenen **ez planaren jarraipenik eta baloraziorik egin**, gehienbat sinaduran geratu zirela ikusi dugu.

B)-Gazteek aisialdian eta kirol ekintzetan erabiltzen zuten euskara neurtzeko 2002an eta 2004-2005 ikasturtean egin ziren **bi neurketek ez** zuten gazteen euskararen erabilerari buruz oso **emaitza positiborik** eman.

Geroztik, ez da beste neurketarik egin.

7. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea.

2002an Hondarribiko Toponimiari buruzko liburua eta mapa aurkeztu ziren eta 2005ean "Hondarribiko eta Irungo euskara" liburua.

2011n Ahotsak.com proiektuaren barruan 54 hondarribiar elkarrizketatu ziren euren hizkera eta bizipenak jasotzeko.

Ikerketak burututa daude eta ondarea jasota dago.

Baina herritarren gehiengoak gaur egun jarraitzen du bere herriko toponimoak ezagutu gabe eta bere herriko hizkeran hitz egiten jakin gabe.

Toponimia eta herriko hizkera urtez urte eta belaunaldiz belaunaldi transmititu diren herriaren ondare dira. Transmisio hori eteteko arriskuan dago.

³⁰ Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP). Euskararen Aholku Batzordea. Eusko Jaurlaritza. 2013. 22.or.

8. Hedabideak.

1986an Udal Euskara Azpibatzordeak **HONDARRIBIA aldizkariaren** 1. zenbakia argitaratu zuen. Honelaxe dio bere lehenengo orrian:

"Aldizkari batek eragin handia izan dezake gure herrian, eragina euskararen aldetik, noski, euskara utsean izango bait da, eta eragina jendeak irakurtzea lortzen badugu, hauxe bait da kasu honetan daukagun helburua, hondarribiarrak euskaraz irakurtzen jartzea."

Hondarribia aldizkariak, beraz, aurten **30 urte** bete ditu!

Hogeita hamar urte hauetan denetan herriko makina bat informazio jaso da aldizkarian, herriko makina batek parte hartu du bere erredakzioan, herriko makina bat *hondarribiar jarri da euskaraz irakurtzen...*

30 urte asko da eta, dakigunez, ez da **aldizkariaren** beraren funtzioaz, edukiez, parte-hartzeaz, helburuez... aspaldiko urteotan **baloraziorik egin**.

9. Sentsibilizazioa eta motibazioa.

Dakigunez, motibazioak lotura estua du hizkuntzak ikastearekin eta, zer esanik ez, haien erabilerarekin.

Sentsibilizazio eta motibazio esparruan **ekintza gutxi batzuk baino ez dira egin Hondarribian**: 2006an gazteen erabileran eragiteko kanpaina eta, gehienbat, hizkuntza ikasteko motibazioan eragiteko kanpainak.

Funtsezko esparrua da eta **ekintzez haratago plangintza bat eskatuko** lukeena.

Plangintza horretan antolatu beharko diren ekintzetarako gure diskurtsoa eraikitzeke jendearen **jarrerak eta iritziak** ezagutzea komeni da.

2015ean Eusko Jaurlaritzak Euskara. Jarrerak eta iritziak txostena argitaratu zuen eta bertan euskararen gaineko diskurtsoak jasotzen dira.

Hemen Hondarribian, ez daukagu hain datu eguneraturik, duela ia hogeita hamar urtekoa baizik: 1988ko azterketa soziolinguistiko sakonean etorkizunari begira hartu beharreko neurriei buruz galdetu zenean, erantzuna izan zen herritarrek hartu beharreko neurria *euskara dakitenek erabiltzea eta ez dakitenek ikastea zela*. Garai hartan abiapuntu hona, beraz.

10. Gune geografiko euskaldunak.

Euskara Sustatzeko Ekintza Planean (ESEP) txertatutako esparru berria da hauxe, lehen Euskara Biziberritze Planean (EBPN) ageri ez zena.

ESEPen dioen bezala, euskarak, eremu urriko hizkuntza guztiek bezala, arnasmuneak behar ditu eta gune euskaldunenak euskararen birrikak dira.

HONDARRIBIA ARNASGUNEA al da?

A) 2011ko datuen arabera, **euskaldunak eta ia-euskaldunak** batuta, **biztanleen %83** euskal hiztuntzat har genezake.

Gainera, Hondarribiko **haurren %82a euskalduna** eta %12a ia-euskalduna da, **eta gazteen %73a euskalduna** eta %14 ia-euskalduna.

Badirudi etorkizunari itzaropenez begiratzeko moduan gaudela.

B) Halere, 1987ko "Hondarribiaren beste aldea" artikuluan dioen bezala, "kanpotik begiratzuz gero Hondarribia herri euskalduna da, hau da, Hondarribian euskara da nagusi. (...)Gainera, arrantzale herria da, eta badirudi tipikotasun bategatik edo, arrantzale-herrietan euskaraz egin behar dela hitz. (...) Baina hurbiletik begiratzen duenak, ikuspegi tristeagoa jasoko du. Erdara nagusitu egin dela esango genuke gure herrian. (...)"

Eta hitz horiek 2016rako ere balio dutela esango genuke. Hau da:

Gaitasunari dagokionez, 1986-2011 urte bitarteko **BILAKAERAK** erakusten digu hogeita bost urtean **ia-euskaldunen taldea izan dela hazi den bakarra**.

Eta ia-euskaldunen **hazkunde hau nagusiki helduen** adin-multzoan eman da: ia-euskaldunen taldea 17 puntu igo da 1986tik 2011ra!!! Gure ustez, nabarmentzeko datu bat eta herrian hausnarketa bat eskatzen duena.

Hondarribian, beraz, zenbat eta gorago adinean orduan eta jendea erdaldunagoa topatuko dugu, eta zenbat eta beherago orduan eta jendea euskaldunagoa.

C) **Kaleko euskararen erabilerari** dagokionez, **1999. urteaz geroztik, ez da** Hondarribian kaleko euskararen erabileraren **neurketarik egin**, beraz, datua nahiko zaharkituta geratu zaigu: behatutakoen %36,9 ari zen euskaraz.

HORRENBESTEZ, Hondarribia euskararen arnagunea den hasierako galderari erantzunez, esango genuke haur eta gazteen gaitasunari buruzko datuek edota euskal hiztunak %83 direla adierazten duten datuei begiratuz, galderari baietz erantzuteko tentazioa izango genukeela. Baina, bestalde, aurreko esparruetan (familia, aisialdia, lan mundua...) ateratako ondorioek Hondarribia arnagunea izan dadin lan handia dagoela egiteko erakusten digute.

Horra hortxe gure erantzuna eta herrian hausnarketarako aukera ematen duena.

9. GOGOETA ETA AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENA.

Ondoko orriotan lanean zehar ateratako ondorioei erantzuteko, gure ustez aurrera begira egin beharreko lanaren proposamena egitera gatoz.

HIPOTESIAK oinarri hartuta gure proposamenak

1. HIPOTESIA:

“Ekintza puntualak eta egitasmoak ugariak dira Hondarribiko hizkuntza plangintzan eta euskararen sustapena/berreskurapena ez da estrategia lan batean oinarritzen.”

Herriko egoera eta premiak kontuan harturik, eragin beharreko **lehentasunezko esparruak** aukeratu, eta **adostasunean eta elkarlanean** oinarritutako **plangintza** bat osatzea proposatzen dugu.

Plangintza horretako egitasmoak edo ekintzak pentsatu, prestatu, gauzatu eta **ebalatu** egin behar dira, **ziklikoki** eta urteko **kudeaketa plan** batekin.

"Herri gehienetan, ekintza-sorta bat izan ohi da plana. Ekintza sorta horrek, ordea, kasu askotan, plan batek eskatzen dituen hainbat urrats ez ditu betetzen, eta ondorioz, desegokia izan daitekeen urte batetik besterako inertzian bihurtzen da."³¹

³¹ Iñaki Arruti (2013). 5.1. Hizkuntza plangintza udalerrri-mailan. *HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Especialista*. Donostia. Euskal Herriko Unibertsitatea 32.or

2. HIPOTESIA

"Udalaren bitartekoak ez dira nahikoak:

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Euskara Biziberritze Planetan hiru helburu aipatzen zituen udalerrietan lan eraginkor bat egin ahal izateko: Euskara Batzordea osatzea, Euskarako Zerbitzua sortzea edo osatzea eta euskarako aurrekontua aurrekontu osoaren %2ra, behintzat, iristea."

EUSKARA BATZORDEA OSATZEA.

Plangintza estrategiko berria (ESEP 2018-2022) diseinatzeari **begira, 2017an** gizarte-eragileek, herritarrek eta Udalak osatutako **Euskararen Aholku Batzorde aktiboa eta dinamikoa eratzea** proposatzen dugu.

Helburuak:

- Gizarte-eragile bakoitzak bere esparruan euskararen inguruko gogoeta eta diagnostikoa egitea.
- Etorkizunari begira plan estrategikoaren ildo nagusiak adostasunez eta elkarlanean finkatzea.
- Herritarren eta Udalaren artean elkarlanerako gune berriak zabaltzea eta parte-hartzeko kultura sustatzea, euskararen plan estrategikoa egiterakoan herritarrek objektu aktibo bihurtuz.

Azkenik, behin Euskararen Aholku Batzordea eratuta, bileren gutxieneko maiztasuna finkatzea eta urtero bilera horiek burutzea proposatzen dugu.

EUSKARA ZERBITZUA SORTZEA EDO OSATZEA.

Gure ustez, Hondarribian benetan **lan eraginkorra egin nahi bada**, ezin dira funtzio horiek denak (zerbitzuaren arduradunarenak, administrariarenak, udalerritari begirako eta udal barrura begirako normalkuntza teknikariarenak...) pertsona bakarrarengan utzi.

Urteotako egoeran jarraituz gero, oso zaila izango da egoera eta behar berriei, eskaera berriei, egitasmo berriei erantzutea eta normalena litzateke gaudenean jarraitzea.

Geure proposamena da **lehenbailehen Udalak Euskara Zerbitzua osatzeko bideak aztertzea eta horretarako neurriak egikaritzea.**

EUSKARAKO AURREKONTUA AURREKONTU OSOAREN %2RA, BEHINTZAT, IRI STEA

Hondarribiko **Udalak**, garaian garaiko beharrei egokituz, orain arte bezala **euskararen inbertitzen** jarrai dezala.

1988an SIADECOKo Iñaki Larrañaga soziologoak Hondarribia aldizkariko artikuluan idatzi zuenarekin bat gatoz:

“(…) gogora dezagun Hondarribiko hiriaren Alde Zaharra Agintarien aldetik “monumento historico-artístico” bezala kontsideratua eta tratatua izaten ari baldin bada, Hondarribiak duen Euskararen ezagupenaren altxor hori gordetzen ez ezik bere etorkizuna ziurtatzeko ardura ere hartu beharko lukeela eta hori lortzeko behar diren medio eta baliabideak martxan jarri. Izan ere, historian zehar pilatzen joan diren harrien balioa ukaezinezko baldin bada ere herri baten arnasa den hizkuntza ezin joko da balio gutxiagokotzat.” (HOND,24.zk.)

3. HIPOTESIA

“ Udal Euskara Departamenduaren aurrekontuan pisu handiagoa du euskararen ezagutza sustatzeak euskararen erabilera sustatzeak baino.”

Hondarribiko Udalaren Plangintza Estrategikoaren **helburu nagusia** euskararen **erabilera** sustatzea izanik, **erabileraren sustapenera** zuzendutako diru kopurua handitzea proposatuko genuke.

Zenbateko igoera jakiteko, lehentasunak finkatuz herriak dituen beharrei erantzuteko adinako aurrekontua izan beharko luke.

PROPOSAMENA LABURREAN

Hurrengo plangintzaldiari begira, gutxieneko **adostasunean eta herriko eragile guztien elkarlanean** oinarritutako **plangintza** bat osatzea proposatzen dugu.

Horretarako kontuan ere hartu beharko dugu, gizarteak euskararen alde lan egiteko borondatea izanik ere, borondate hutsarekin ezin dela dena egin eta Administrazioak baliabideak izanik ere, gizartearen inplikaziorik gabe ezin duela lan eraginkorrik egin.

Udalari, beraz, **ondoko proposamena** luzatuko diogu: denon artean lan eraginkorra egin dezagun, euskararen erabilera sustatzeko beharrezkoak diren **giza-baliabideetan eta baliabide ekonomikoetan inbertitzea**.

URTEOTAN EGINDAKO LANA oinarri hartuta bestelako proposamenak

1. Familia bidezko transmisioa

PROPOSAMENAK

1) Hondarribiko etxeetan gaztelania dela nagusi abiapuntu hartuta, gure ustez, esparru honetan **plangintza eraginkor bat garatzeak** izugarritzko garrantzia eta lehentasuna dauzka eta horixe, beraz, gure lehenengo proposamena.

2) Plangintza horretan erabilera bultzatzeko egitasmo zehatzen eta familientzako baliabideen eskaintzaz gain, **sentsibilizazioa eta motibazioa** lantzeko kanpainek **lehentasuna** izan beharko luketela iruditzen zaigu.

Familia bidezko transmisioak euskararen erabilerarekin duen lotura zuzenaz familietan gogoeta egitea eta jabetzea izango genuke, beraz, plangintzaren gure lehenengo helburu nagusia.

Honekin loturik, gogoetarako aipu bat:

"(...) saia gaitezen azken 25 urteotako irabazi-galduak aurrez aurre jartzen. Irabazietan, badakizu, eskola jarri ohi dugu lehenengo ilaran. Zertarako ditugu ordea D ereduko ikastetxeak, geure seme-alabekin etxean eta etxe inguruan, lagunartean eta erosketak egitera goazenean, erosotasunez edo ohituraz... nagusiki erdaraz egiten badugu gurasook?"³²

3) Beharbada, Hondarribian ez da eman inguruko edo Euskal Herriko hainbat herritan topatuko dugun euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza baten hazkundea, baina pentsatzen dugu gaia ez dugula bazter batean utzi behar eta, behintzat, honetaz ere **gogoeta egin beharko genukeela**.

³² Mikel Zalbide, Xabier Erize, *Hizkuntza gutxituak* in HIZNET 2013. 1.3 irakasgaia: 51. or.

2. Irakaskuntza

PROPOSAMENAK

- 1)- Hondarribiko ikastetxeetako **eredu linguistiko**ez **hausnarketa** egitea.
- 2)-Irakaskuntzan euskararen alde **egindako lana balorean** jartzea eta ekitaldiren bat antolatzea (Ikastolak 50 urte bete izana aitzakia izan liteke).
- 3)-**Sentsibilizazio eta motibazio** kanpainak eta tailerrak burutzea haurren eta gazteen ikastetxe barruko hizkuntza euskara izan dadin. Adibidez: Zergatik ez? tailerrak, UEMAren hezkuntza proiektua, EBETEren tailerrak eta hitzaldiak...
- 4)-Hizkuntzaren erabilerarekin loturiko egoera berriei aurre egiteko estrategiak lantzeko **irakasleei zuzenduriko ikastaroak** antolatzea.

5)-Komunikagarritasuna eta adierazkortasuna lantzeko J.A.Letamendiak Hondarribia aldizkarian egindako proposamena:

"Hondarribian (eta kanpoan) hizkuntza lehiaketa gehienak idatzizkoak izaten dira. (...) Salbuespena bertsolaritza (...) lehiaketa edo jardun apalagoa proposatzera ausartzen naiz: hizketa lehiaketak antolatzea, antzerki laburren sariketak, bakarkako esatariek ipuinak, bakarrizketak edo txisteak kontatuko lituzkete (...) Gimnasia berri honek mintzamina indartuko luke partaideengan (...)."

Gaur egun, Udalaren laguntzaz Hondarribiko ikastetxe guztietan Bertsolaritza tailerrak antolatzen dira Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailan; ahozkotasuna lantzeko tresna egokia izan liteke eta goiko maila gehiagotara zabaltzea eta eskualdeko Irunabar Bertso Eskolarekin lotzeko aukera aztertzea proposatuko genuke.

Horretaz gain, irrati tailerrak eskualdeko Antxeta irratiarekin elkarlanean, antzerki tailerrak, Oarsoaldeko "Motxian ebay" esketx lehiaketaren modukoak... ere interesgarri suerta litezke adierazkortasuna eta komunikagarritasuna lantzeko.

3. Helduen euskalduntzea

PROPOSAMENAK

1)-Urteotan **egindako bidetik jarraitzea**, hau da, egoera eta behar berriei erantzuteko baliabideak egokituz.

2)-Irakaskuntzan esandakoaren ildotik, helduen euskalduntzean ere **egindako lana balorean jartzeko**, batetik, eta **ikasleak** euskalduntze prozesuan parte **garrantzitsuak direla sentiarazteko**, bestetik, ekitaldi bereziren bat egitea proposatuko genuke. Adibide moduan Lasarteko "Irten armairutik" euskararen maratoia.

3)-**Beka sistema** dela eta, pentsatzen dugu euskara ikasi ahal izateak denon esku egon beharko lukeela eta diruak ez lukeela oztopo izan beharko. 2016tik aurrera, adibidez, herriko langabetuek euskara dohainik ikasteko aukera izan dute Udalaren erabakiari esker.

Ildo horretatik jarraituz, **garaiko premiei erantzuteko beka sistema moldatzea** proposatuko genuke, hau da, euskararen ezagutza eta erabilera sustatu nahi den **ondoko esparruetako gizataldeei** oinarrizkoa den %35eko beka baino ehuneko altuagoa eskaintzeko aukera aztertzea: pentsiodunei, herriko ostalaritzan eta merkataritzan ari diren langileei, haur eta gazteekin lanean ari diren kolektiboek (entrenatzaileak, begiraleak...), gurasoei, herriko elkarteetako zuzendaritza-kideei, Euskal Herrira bizitzera duela gutxi etorritakoei...

4)-**Azpiegiturari** dagokionez, euskaltegiak bere goia jo duela esan dugu. Ikasturte honetan 290 bat ikasle izan ditu euskaltegiak, **espazio mugatua** da eta euskara ikasteko eskaera handituz gero, ezingo liokete erantzun. Euskaltegiak ezin du bere eskaintza zabaldu, gero espazioagatik erantzutea ezinezkoa badu. Komenigarria litzateke **gai honi irtenbidea** ematea.

5)-Irakasteaz gain, euskaltegiaren helburua **euskal hiztunak sortzea** ere badenez, **motibazioan eta erabileran eragiteko** jarduerak/egitasmoak antolatzea eta, ikasleak euskal hiztunen komunitateko partaide senti daitezen, herrian egiten direnetan ere parte hartzera animatzea.

4. Administrazioa

PROPOSAMENA

"Erabakia non, hizkuntza irizpidea han" hizkuntza normalkuntzaren oinarriko irizpide garrantzitsuetako bat da, Udaletako Euskara Teknikarien Sareak (UETS) 1994an zehaztu zuena. Alegia, hizkuntzarik gabeko udal-ekintzarik ez dagoenez, hizkuntza Udaleko atal guztietan izan beharko litzateke gogoan. Erabakiak hartzen diren gune guztietan euskararen erreferentziak egon behar du eta erabakiaren arduraduna da bere ataleko hizkuntza erabileraren arduraduna.³³

Hortaz, Euskararen Udal Ordenantzetan eta V. Plangintzaldiko *Hondarribiko Udalean Euskara Normalizatzeko Erabilera Plana 2013-2017 planean zehaztuta dauden neurriak eta arauak* betearaztea eta betetzen direla ziurtatzeko beharrezkoak diren bitartekoak jartzea proposatzen dugu.

5. Arlo sozio-ekonomikoa.

PROPOSAMENAK

1) Gure proposamena da Udalak "**Euskara Merkataritzara**" egitasmoarekin jarraitzea (azken bost urteotan egitasmoa Udalaren plangintzatik desagertu egin da).

Emitzek erakusten dute orain arte egindakoa eginda ere, erdara dela nagusi batez ere ostalaritzan. Honek gogoeta bat merezi du eta egitasmoa zertan hobetu pentsatu.

2) Ziurrenik ez da nahikoa egitasmoa urtero martxan jartzea soilik diagnostikoa eta zerbitzu eskaintza egiteak eskatzen duen hilabete horietan.

Eraginkortasunari begira, urte osoko eta urteetako egitasmoa izatea proposatuko genuke.

Lana egunerokoa da eta merkatarien eta ostalarien gainean egon behar da beharrak detektatzeko eta zerbitzuak, aholkularitza eta laguntza eskaintzeko. Egitasmoaren atzean laguntza ematen erreferente izango duten norbait dagoela sentitu behar dute.

³³ Iñaki Arruti (2013). 5.1. Hizkuntza plangintza udal-erri-mailan. *HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Especialista*. Donostia. Euskal Herriko Unibertsitatea 31.or

3) Ondorioetan aipatu da euskara idatziaren presentzia **borondate huts-hutsaren** gain uzten dela eta jendeak sinetsi ere ez duela egiten **euskarak funtzionatzeko balio** dezakeenik.

Hortaz, **esparru honetan ere motibazioa eta sentsibilizazioa** landu beharko genuke eta **euskarak ere saldu** egiten duela erakutsi.

Bestela, ikusi besterik ez dago zenbat bezero euskaldun dagoen Hondarribian (2011n %83 euskaldun+ia-euskaldun) eta, horietaz gain, zenbat jende euskaldun ere etortzen den inguruko herrietatik, Gipuzkoatik, Euskal Herriatik egun, asteburu-pasa edo oporretan.

Hauek denek **euren hizkuntzan artatuak** direla eta **euren eskubideak**³⁴ kontuan hartzen dituztela eskertuko dute.

6. Aisia eta Kirola.

PROPOSAMENA

1)- Gure ustez, Hondarribiko Udalak herriko eragileekin batera elkarlanean aisialdian eta kirolean euskararen erabileran eragiteko **plan estrategiko bat** diseinatu eta aurrera eramatea **lehentasunezko** jotzen dugu.

Zenbait herritako esperientziak ezagututa, plan estrategiko hau **HITZARMENGINTZA** metodologian³⁵ oinarri liteke.

Metodologia honen oinarrietako bat entitateekiko eta bertako kideekiko hurbiltasuna da. Entitateari euskararen aldeko konpromisoa eskatzen zaio baina, aldi berean, konpromiso horiek betetzeko behar duen laguntza eta babesa ere ematen zaio, bertatik bertarako harremanaren bidez.

Eta lehentasuna, herrian hurrekin eta gazteekin lanean aritzen diren entitateek edukitzea proposatuko genuke.

2)-Herrian entitate pribatuek nahiz publikoek antolatzen dituzten ekintzetan, prezioa, partaide-kopurua eta abar publikitatean eta informazio-orrietan zehazten den bezala, **ekintza bera zein hizkuntzatan burutuko den aurretik erabakia** egotea eta, informazio hori euskarrietan txertatzea proposatzen dugu.

³⁴ Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren
<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2003/12/0307118a.pdf>

Horrela, besteak beste, ekidingo genuke azken orduko erabakia izatea, erabaki hori begiralearen esku egotea, lehenengo eguneko partaideen erabakiaren baitan egotea ...

3)-Esparru honetan **sentsibilizazioa eta motibazioa** sustatzea garrantzitsua deritzogu: gurasoei begira haur eta gazteentzako euskarazko jarduerak eskatzeko eta daudenetan parte hartzeko, antolatzaileei begira euskarazkoak sustatzeko, begiraleei eta entrenatzaileei begira...

4)-Begiraleen eta entrenatzaileen **euskarazko trebakuntza** sustatu: euskaraz aritzeko estrategiak lantzeko tailerrak, euskarazko materiala ezagutzera emateko, aisialdiko begirale edo zuzendari titulua Hondarribian antolatuz edota horietan parte hartzeko diru-laguntza eskainiz, aisialdiko formazioa hobetzeko ikastaroak...

5)-Helduen euskalduntze-alfabetatze esparruan proposatu bezala, haur eta gazteekin lanean ari diren entitateetako zuzendaritza-kideei eta begirale nahiz entrenatzaileei **euskara ikasteko beka bereziak** eskaintzea (oinarrizkoa den %35eko beka baino ehuneko altuago bat).

6)- **Helduen aisialdia eta kirola** ere ez dugu ahaztu nahi. Txosten honetan esaten aritu garen bezala, hurrek eta gazteek euskarak helduarorako balio duela, helduen hizkuntza ere badela ikusi behar dute, beraz, aurreko bost puntuetan esandakoak balio du honetarako ere.

Kiroldegia, esaterako, **eremu estrategikoa** da euskararen erabileran eragiteko duen garrantziagatik. Azken ikasturteotan informazio-euskarrietan ikastaroak zein hizkuntzatan diren iragartzen hasi diren arren, gaur egun oraindik ere badago zeregina helduentzako ikastaro horien euskarazko eskaintza handitzeko, kiroldegiaren beraren hizkuntz paisaian eragiteko (taberna, adibidez)...

2006an Hondartza Kiroldegian euskararen erabilera sustatzeko egin zen **plana berreskuratu, eguneratu eta jarraipena egitea proposatuko genuke**.

³⁵ Euskaltzaleon Topaguneak 2010ean "Hitzarmengintza: Entitateak euskalduntzeko metodologia" esku-liburua argitaratu zuen.

7. Liburugintza, Kulturgintza, Publizitatea eta Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak esparruak.

PROPOSAMENAK

1)-Euskara Sailak antolatutako zenbait **kultur jarduerak urte asko** dituzte. Gure proposamena da beraien eraginkortasuna eta gaur egun betetzen duten **funtzioa** hausnartzea, **baloratzea**.

Asmoa litzateke egungo helburuak lortzeko balekoak direnekin aurrera jarraitzea eta ez direnekin egindakoa ontzat hartzea eta alde batera uztea.

2)-Beste hausnarketa bat ere planteatuko genuke: **Euskara Zerbitzuak antolatu edo finantzatu** behar al ditu kultur-jarduera horiek denak? Zeintzuk bai eta zeintzuk ez? ala beste udal-departamenturen batek antolatu beharko lituzke? **ala elkarlanean** antolatu eta finantzatu?

3)-Aisialdia eta Kirola esparruan proposatu bezala, esparru honetan ere kulturgintzan diharduten **entitateekin Hitzarmengintza egitasmoa** aurrera eramango genuke.

4)-Udalaren azken plangintzan jasota dauden **haur eta gazteei** zuzendutako **kultur ekoizpenak sustatzea eta euskarazko sorkuntza** sustatzeko neurriak hartzea bultzatzen eta edukiz betetzen jarraitzea.

5)-Hizkuntza paisaian publizitateak duen presentzia gero eta handiagoa dela ikusirik, herriko entitateek egiten dutena **euskarazkoa** izan dadila sustatuko genuke. Horretarako, **diru-laguntza lerro bat** ireki liteke.

8. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea.

PROPOSAMENAK

Gure proposamena da urteotan egindako toponimiari eta herriko hizkerari buruzko ikerketa lan horiek oinarri hartuta, batetik, eta hizkeraren kasuan gaur egun oraindik ere bertakoa hitz egiten duen jende-multzo garrantzitsua egon badagoela kontuan hartuta, bestetik, **lehenbailehen plangintza bat** diseinatzea ondare hori datorren belaunaldira transmiti dezagun.

Plangintza horretan **jarduera/egitasmo** hauek txerta litezke:

1)-Ikerketak oinarri hartuta **material didaktiko** bat diseinatzea proposatu genuke, ikastetxeetan irakasleek eta ikasleek hizkera landu eta ikas dezaten.

2)-Material didaktiko hori oinarri hartuta, **herrian ikastaroak** ere antola litezke.

3)-Ikasi praktikatzuz egiten denez, **Mintzalagunaren aldaera** antola liteke herrian.

4)-Herriko hizkerak prestigio gutxi duela entzuten da eta hori omen da ez hitz egitearen arrazoietakoa bat. Hortaz, **herriko hizkerari merezi duen prestigioa emateko kanpainaren** bat egitea proposatuko genuke.

Kanpaina horretan, agian, kanpotik etorritako euskaldunak eta bertakoak elkar litezke, eranskinetan topatuko dugun iritzi-emaile batek (10.2.23 zenbakiduna) esan duen moduan "Hondarribiko euskaldunen (orokorrean hartuta) eta **Hondarribiko bertako euskaradunen arteko hurbilketa beharrezkoa eta oso positiboa izango litzatekeela uste dut** euskararen mesedetan. Bertako euskarari eta euskaradunei merezi duten aitortza egitea urrats bat izan liteke horretarako."

5)-**Bertako hizkera gazteei** hurbiltzeko modua bilatu beharko litzateke. Bertako hizkera **identitate marka** izan liteke beraiantzat, beste herrietako gazteengandik bereizteko balioko diena.

9. Hedabideak.

PROPOSAMENA

Hogeita hamar urte hauetan denetan herriko makina bat informazio jaso da aldizkarian, herriko makina batek parte hartu du bere erredakzioan, herriko makina bat *hondarribiar jarri da euskaraz irakurtzen...*

Agian, bada garaia **urteurrena aprobetxatuz**, Hondarribia aldizkariari buruzko **balorazioa egiteko eta etorkizuneko aldizkaria** nolakoa nahi den denon artean erabakitzeko.

Horixe, bada, gure proposamena.

10. Sentsibilizazioa eta motibazioa.

PROPOSAMENA

Gure proposamena litzateke sentsibilizazioan eta motibazioan eragiteko **plangintza bat diseinatzea**. Esparru hau ere **lehentasunezko** jotzen dugu.

Plangintza honetara bilduko genituzke orain arte aurreko esparruetan euskara ikastera animatzeko, hizkuntzen erabileran gertatzen diren egoerak kudeatzeko estrategiak eskaintzeko, euskara erabiltzeko argudioak emateko eta abarrerako azaltzen joan garen kanpainak eta jarduerak.

Horiek eta beste batzuk laburbildurik:

- 1-"Zergatik ez?" eta "¿Compartimos?" tailerrak (Euskaltzaleon Topagunea).
- 2-EBETEn hezitzaileentzako, gurasoentzako, irakasleentzako formazio-saioak eta tailerrak.
- 3-EMUNen TELP tailerra. Donostiako Egia auzoan "Egian Euskaraz Bizi Nahi Dugulako" ekimenarekin lotu dute.
- 4-Hondarribiko hizkerari prestigioa emateko kanpaina.
- 5-"Euskarak 365 egun" kanpaina (Euskaltzaleon Topagunea)
- 6-"Zer ikusi, hura egin" kanpaina (Debagoieneko Udalak).
- 7-"Euskararen Kriseilua" (Euskaltzaleon Topagunea).
- 8-"Irten armairutik!" euskararen maratoia (Lasarte)
- 9-Arnasguneak (UEMA): hitzaldia, tailerrak, erakusketa, hezkuntza proiektua...
- 10-"Hizkuntz-ekologia" jardunaldiak (Euskaltzaleon Topagunea eta Kutxa Ekogunea) (Oarsoaldea 2013).
- 11-"Hizkuntza-ekologia" erakusketa (Ekogunea parkea,Donostia)

10. Gune geografiko euskaldunenak

Lehenengo begirada batean Hondarribia euskararen arnagunea dirudi, horixe da orokorrean, behintzat, zabaldua dagoen pertzepzioa. Sakonean begiratuz, ordea, arnagune izan dadin zeregin handia dagoela ondorioztatu dugu.

PROPOSAMENAK

1)-Haur eta gazteei begira erakunde edo eragile publikoek nahiz pribatuek antolatzen dituzten **jarduerak gehienbat euskaraz** izatea proposatuko genuke, baita bereziki gazteei zuzenduriko publizitatea ere.

2)-**15-34** urteko gazteei begirako euskararen aldeko **sentsibilizazio kanpainak** antolatuko genituzke. Batzuk guraso izateko adinean daude, beste batzuk batxilergoan/lanbide heziketan/unibertsitatean hasiko dira, beste batzuk egunerokoan erabiliko duten hizkuntza erabakitzeko adinean daude...

3)-Hondarribian **helduen** adin-taldean **ia-euskaldunen hazkundearen arrazoa** zertan den **hausnartu** beharko genuke hondarribiarrok.

4)-**Ia-euskaldunen** hiztun-multzoan **lanketa berezia** egin beharko litzatekeela pentsatzen dugu eta egiten den edozein plangintzatan kontuan hartu.

Ia-euskaldunen taldea euskararen **normalizazio prozesuan sentsibilizatu, konplize eta partaide egin, motibatu eta baloratu** egin beharko genuke.

5)- **Helduak eta adinekoak** batuta, Hondarribiko biztanleen **%65a** osatzen dute.

Batetik, hauek dira haurren eta gazteen **eredu** ("zer ikusi, hura ikasi") eta, bestetik, **%65** horrek egiten duena edo ez duena da hurrek/gazteek jasoko dutena.

Hortaz, **herriko egoeraz gogoeta egitea eta kontzientzia hartzea lehentasunezko zat jotzen dugu.**

7)- Euskararen **Kale Erabileraren neurketak** oso tresna baliagarriak izaten dira Inkesta Soziolinguistikoekin batera herriaren euskararen egoerari neurria hartzeko, batetik, eta, bestetik, emaitzek berebiziko garrantzia izaten dute euskararen erabilera sustatzeko diseinatzen eta egikaritzen diren plangintzetan neurriak eta jarduerak erabaki ahal izateko.

Gaur egun, Soziolinguistika Klusterra arduratzen da bost urtean behin neurketak egiteaz. Hurrengo neurketa 2011ko udazkenean izango da. Horrenbestez, Hondarribiko Udalarari proposatuko genioke **aurten neurketa hori herrian burutzea**, eta, baita **datozen urteetan ere** bilakaerari buruzko datuak eduki ahal izateko.

PROPOSAMENA LABURREAN

"(...) esan dezakegu egungo baldintza soziolinguistikoekin euskararen erabilerak goia jo duela.

Ez dago hobekuntza tarterik euskal hiztunen kopuruak nabarmenki gora egiten ez badu eta, aldi berean, hiztun berri horiei euskarazko harremanetan txertatzeko aukerarik eskaintzen ez bazaie.

Hau da, erabilerak ezin dezake gora egin elebidunen masa soziala eta euskararen erabilera ahalbidetzen duten sare zein guneen kopurua handitzen ez badira."³⁶

HORTAZ, euskararen erabilera ahalbidetzen duten sare zein gune horien kopurua handitzeko, zein esparru diren lehentasunezkoak erabaki beharko da eta horietan eragiteko plangintza egin.

³⁶ Olatz Altuna eta beste, *Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak* in HIZNET 2013. 2.1 irakasgaia: 88.or.

10. ERANSKINAK

10.1) HISTORIKOA. 1986-2005 URTEETAN EUSKARAREN NORMALIZAZIOAN EGINDAKO LANA. INFORMAZIO-ITURRI NAGUSIA: HONDARRIBIA ALDIZKARIA.

10.2) IRITZIAK, PERTZEPZIOAK.HONDARRIBIAN BIZI (IZAN) DEN EUSKARAREN EGOERARI BURUZ.

A)-Hondarribia aldizkarian jasotakoak.

B)-Gaur egun jasotako beste hainbat.

10.1. HISTORIKOA. 1986-2005 urteetan euskararen normalizazioan egindako lana. Informazio-iturri nagusia: Hondarribia aldizkaria.

1981 Hondarribiko Udalak itzultzailea kontratatu zuen.

80. hamarkadan Udal Euskara Azpibatzordea sortu zen Udal Kultura batzordearen menpe.

Azpibatzordea sortu ondoren, itzultzailea euskara teknikari ere bihurtu zen.

1986 Udal Euskara Azpibatzordeak "Hondarribia" aldizkariaren 1. zenbakia argitaratu zuen. Honelaxe dio bere lehenengo orrian:

"Aldizkari honen sorrera zertarako, batek baino gehiagok galde dezake, eta erantzuna zera izango litzateke, gure herria euskalduna dela inork ezin du ukatu. Adituek, eta azterketak esaten dutenez herri honen biztanlegotik %70 bat euskalduna da, baina euskaldun izatea ez da hitz egiten jakitea bakarrik, euskaldun izateko euskaraz bizitu behar da, eta gaur egun, zoritxarrez, hori ez da Hondarribian gertatzen.

Udaleko Euskara Azpibatzordea sortzeko arrazoia horixe izan zen, gure herriko biztanleak euskaraz bizitzeko laguntza emateko, eta euskararen bitzita bultzatu eta zuzpertzeko. (...)

Aldizkari batek eragin handia izan dezake gure herrian, eragina euskararen aldetik, noski, euskara utsean izango bait da, eta eragina jendeak irakurtzea lortzen badugu, hauxe bait da kasu honetan daukagun helburua, hondarribiarrak euskaraz irakurtzen jartzea."

1986 Eusko Jaurlaritzako proiektu bat zela eta, Udal Euskara Azpibatzordeak Hondarribiko euskaldun familiei dei egin zien euskara ikasten ari zirenak udan etxean hartzeko, euskara praktika zezaten. (HOND, 2.zkia.)³⁷

1986 III. "Bordari" ipuin lehiaketa eta "Satarka" poesia lehiaketa antolatu zituen Udalak "euskararen zabalkunderako eta idazle berriak sortu nahian." (HOND,3.zkia). Lehiaketara 9 ipuin eta 4 olerki aurkeztu ziren "iaz (...) hogeiren bat lan (...). Beherakada hau zergatik ote den aztertzen badu nahiko lan (...)" (HOND, 7.zkia.)

1986 "HEZKUNTZA KONTSEILUA. Kontzejal eta eskoletako ordezkariak osatzen dute kontseilua. Kontseilu honen barruan ere eztabaidak omen dira. (...) Ba, halaxe da kontseilu honek ere euskararen arazoa plazaratu duenean.

³⁷ HOND, Hondarribia aldizkaria da.

Orain arte euskara baztertua egon dela eta Institutuan giroa aldatu behar dela planteatu denean, betiko aitzakiak atera dituzte erdararen aldekoek.” (HOND, 4.zkia.)

1986 Hondarribia aldizkarian euskara ikasteko deia:
“Baina, gizon edo emakume jakitun hauei bi gauza esan nahi genieke: batetik, gure AMA EUSKARA ere ikasi eta landu egin behar dela, euskara ongi menderatzen ez duen edozeini, asko falta zaiolako oraindik.
Hondarribian asko dira, zoritxarrez, euskaraz mintzatzeko kapaz ez diren ikasleak. Guraso batzuk ez diete irakatsi euskara beuren seme-alabei; eskolarako orduan ere, ez dituzte ikastolara bidali; kalean eta etxean erdaraz egiten dute barra-barra; eta orain adin heldura iristen direnean, ez dira mintzatzeko gauza.
Beste batzuk badakite, bai, euskaraz hitz egiten; baina ez dakite euskaraz idazten eta irakurtzen. (...)
Guzti hauei egiten diegu deia, gure euskara ikasi eta landu dezaten. Bada aukera hartarako hemen herrian bertan: AEK, gau eskolak.” (HOND, 7.zkia.)

1986 “Trafiko seinaleak euskaraz. Uztaileko gure alean, berri bitxi bat jaso genuen euskarari buruz, alegia, Euskara Azpibatzordeak eskatuta, Hondarribiko Udalak Gipuzkoako herri guztietara eskutitz bat bidali zuela, trafiko seinale guztiak euskaraz jarri zitzaten erregutuz (...) Hondarribian bertan bada lan ederra trafikoko seinaleak euskaratzen (...)” (HOND,7.zkia.)

1986 Jose Mari Etxaburu “Kamiñazpi”k *Ondarribiaco condaira* liburua argitaratu zuen. Urte hauetakoa ere bada, Juan Jose Irazusta jaizubiarraren *Nork bere bidea* eleberria, "Kritikaren Saria" jaso zuena.

1986 Juan San Martinek herriko toki-izenak galzorian zeudela eta era jatorra berreskuratzeko eskaera egiten dio Udalari (HOND, 8.zkia.)

1986 “EUSKAL IHARDUNALDIAK. Kulturaz mintzaten garenean, geure kulturaz behar genuke mintza, batez ere. Geurea euskara da, eta gure kultura, euskal kultura.
Hondarribiko herri euskaldun erdaldunduan beharrezko egiten dira, hala ere, Euskal Ihardunaldiak, eta horixe da Udal Euskara Azpibatzordeak antolatu duena Azaroaren 11tik 14ra.” (HOND, 9.zkia.).
Antolatutakoa honako hauxe: kirolari buruzko mahai-ingurua, afarria bertsolari eta txiste kontalariekin, pailazoak, Tasio pelikula Patxi Biskert bertan zelarik, bertsolariak, Bordari eta Satarka sarien banaketa.

1987 Udal lanpostuetarako euskara: “ (...) hemendik aurrera Udaletxerako, euskara eskatzen den lanpostuetarako, horren azterketa lehenengoa izango zela erabaki zuen Udalak (...)” (HOND, 10. zkia.)

- 1987 Martxoko alean ondoko informazioa irakur liteke:
"1.979ko maiatzeko plenoan, Hondarribiko Udalak inoiz ez bezalako erabakia hartu zuen: "Hondarribiko Udalaren Hizkuntza Ofiziala Bakarra EUSKARA izango zela".
1.983ko Abuztuaren 28ko plenoan, Hondarribiko Udalak beste erabaki hau hartu zuen: "Herriko Kartel Guztiak Euskaraz Jarriko Zirela"." (HOND, 11.zkia.)
- 1987 Euskara Azpibatzerdeak urteko egitarau edo programa aurkeztu zuen:
"a) Diruetxeetako kanpaina. Banketxe edo Aurrezki Kutxa guztietara deia zabalduko da, bezeroei bidaltzen dizkien inpresio guztietan euskara erabil dezaten anima ditzaten.
b) Euskararen aldeko kanpaina. Udalaren errezibo guztiak euskaraz bakarrik egingo dira, eta jendeak ongi ulertu dezan hiztegi txiki bat ere zabalduko da. Erdarazko erreziboak hartu nahi dutenek, eskatu egin beharko diote Udalari.
d) Txekeak euskaraz. Txekeak euskaraz betetzen dituztenen artean, sari batzuk banatzea proposatzen da. Sari hauek 10 euskarazko liburu eta kasetak izango dira.
e) Euskararen Erabilpen Normalaren Plangintzari buruz, apirilaren 16rako Batzorde bat izendatu behar du Udalak, gutxienez hiruk eta gehienez hamabik osatuko dutena. Alkatearen eskuetan dago izendapena.
f) Eskolarteko Jaialdia. Maiatzaren bukaera aldera Hondarribiko ikastetxe guztietako hurrek parte hartuko dutelarik, euskarazko jaialdi eder bat nahi da antolatu, jolas, dantza, antzerki, etabar. Txaranga batek ere alaituko du eguna." (HOND, 12. zkia.)
- 1987 "Hondarribiko Hiriko eskudoan, euskarazko orla jarriko da, honako titulu hauek agertuz: "HONDARRIBIKO HIRI OSO PRESTU OSO LEIAL OSO ADORETSU ETA BETI OSO ZINTZOA". Hala erabaki zuen Udalak apirilaren 30ko plenoan.
Komentario gisa hau esango genioke Udalari: lehendabizi "Zorionak!" euskarazko orla jarri behar duelako. Bigarren, lehendik euskarari buruz hartutako erabakiak ea noiz betetzen dituen. Denok gaudela zai". (HOND, 13. zkia.)
- 1987 Irailaren 16an Udal Euskara Azpibatzerdea Udal Euskara Kontseilu bihurtu zen. "Lehen edozeinek parte har zezakeen, orain berriz, talde politiko bakoitzeko ordezkari bat, eskola bakoitzeko ordezkari bat, eta Klink, AEK, eta Habetik beste ordezkari bana dira bertan parte hartzen dutenak." (HOND, 17. zkia.)

- 1988 Udalak Hondarribiko azterketa soziolinguistiko sakon bat egitea erabaki zuen. Siadecok egin zuen:
“Azterketa honetan bereziki ikertuko diren alorrak honako hauek dira:
1.-Zenbat jendek dakien euskara Hondarribian eta jende horrek zein neurritan ezagutzen, mintzaten, irakurtzen eta idazten duen izkuntza.
2.-Zenbat erabiltzen den euskara. Nork, noiz, nola eta zertaz hitzegiteko erabiltzen den.
3.-Zer nolako iritzi, jarrera eta balorapen egiten den herriko jendeak Euskararekiko. Nola ikusten den euskararen etorkizuna eta nolakoa izatea nahi luken.” (HOND, 19. zkia.) Ikusi emaitzak Datu soziolinguistikoak atalean (...or.)
- 1988 1988ko Udalaren aurrekontua guztira 918 milioi pezeta; hortik, Euskara Kontseiluarena 8,5 milioi pezeta. Horretaz gain, Udalak datorren ikasturterako Euskaltegi publiko bat irekitzeko asmoa erakutsi zuen. “Horretarako Euskara Kontseiluak Hondarribiko AEK, HABEko inspektorearekin eta Irungo Udalarekin izan ditu elkarriketak.” (HOND, 20.zkia.)
- 1988 “BATEGINIK” kanpaina: Euskal herri mailako kanpaina honen helburua euskararekiko ardura berpiztea izan zen, hizkuntz egoeraren kezka eta kontzientzia indarberritzea... Diru eta sinadura bilketak egin ziren kanpainan eta Hondarribian ondoko hauek egin zuten bat: “Saski Baloitalka, Esku Baloikoa, Kirol Elkartea, Arraun Elkartea, Txirrindulari Elkartea, Judokoa, Xakejoko, Marlaxka, Txanpa, Eskifaia, Haizehots, Garikoitz, Ama Guadalupeko ikastetxea, Biteri eskola, Ikastola, Amute-Kosta auzo elkartea, Gazteen Asanblada, Amnistia Batzordea, Euskal Herrian Euskaraz, AEK, HABE eta Udal Euskara-Kontseilua (...)” (HOND, 21. zkia.)
- 1988 Maiatzaren 5eko Plenoko puntuetako bat euskaltegiari buruzkoa izan zen: “(...) Harresilandako etxea euskaltegi bihurtzeko projektua (...) HBko ordezkariak etxe hori Amuitzak, Euskal Herrian Euskaraz, eta AEKri zor zaiela defenditu zuten. Azkenean, ordea, beste taldeen botuez onartu zen euskaltegia egiteko projektua, baina gela banaketa HABE legeak eskatzen dituen arauak egokitzeko baldintzarekin. (...)” (HOND, 22. zkia.)
- 1988 “ESKOLA ARTEKO JAIALDIA. Euskara Kontseiluak antolatuta maiatzaren 29an Eskola arteko Jaialdia izan genuen. Antzerkia, bertsolariak, txontxongiloak, eskulanak, e.a. Haizehotsen gidaritzapean (...)” (HOND, 23. zkia.)
- 1988 “HAURRENTZAKO UDALEKUA (...). Aurreko urteetan bezala udaleku ireki bat eratu du Udalak uztaileko eta bertako jardunak Haizehots taldeak antolatzen ditu. Euskaraz da eta hizkuntz eredu guztietarako haurrentzat dago irekia eta moldatua.” (HOND, 23. zkia.)

1988 "Hitzez hitz" lehiaketa:

"HONDARRIBIA" aldizkarian lehiaketa bat hasten da zenbaki honetatik aurrera hurrengoetan jarraitzeko asmoz. Lehiaketako gaia Hondarribiko euskara izango da. Urtean bi aldiz gutxienez sariak banatuko dira asmatzaileen artean. (...) Oraingoan bost hitz hauen esan-nahia azaldu behar duzu: 1) "aieka" 2) "abantian" 3) "aiua" 4) "apasta" 5) "ataule" (HOND, 24. zkia.)

Lehiaketak parte-hartze eskasa jaso zuen eta aldizkariko 31. zenbakian bertan behera uzten zutela adierazi zuten: "(...) bestelako edukia ematea komeni ote den aipatu da, hizkuntzazkoa soilik izan beharrean Hondarribiari buruzko bestelako jakingarriak galdetu eta jende gehiagok parte hartuko duelakoan." (HOND, 31.zkia.)

1989 "HONDARRIBIKO HERRI EUSKALTEGIA" ren 1. ikasturtearen balantzea egin zuten Hondarribia aldizkarian: 140 ikasle, 11 talde (5 goi-mailakoak), 6 irakasle izan ziren 1988-89 ikasturtean. Ikasleen adina, bataz beste, 25 urte eta hondarribiarrak jaiotzez ikasleen %54. Azkenean, neguan Mugaire etxeko 3 gela eta Biteri eskolako gela bat erabili bazuten ere, "uda ikastaroak behar legez emateko eta behin betirako kokalekua izango delakoan, Polikiroldegiaren ondoko Alondegia egokitu zitzaigun."

Udalak ikasturte honetarako eta hurrengoetarako beka sistema bat antolatu zuen. Baldintzak:

"a.-Langabetua izan eta langabe txartela ekartzen duenari matrikularen laurden bat bueltatuko zaio.

b.-Ikasturte osoan zehar %80 asistentzia izan eta ebaluaketa frogak egin dituenari matrikularen laurden bat bueltatuko zaio ikasturtearen amaieran." (HOND, 33. zkia.)

1990 "Kurtso amaiera institutuan. (...) batxilerra euskaraz egiten duten ikasleen kopurua gero eta handiagoa dela Institutuan. Aurten U.B.I.-ko talde euskaldun bakarra bazen ere, datorren urtean bi izango dira segur aski, eta lehen kurtsoko matrikula gainezka dago dagoeneko bi taldeak osatzeko, kurtso bereko erdaldunak baino gehiago direla." (HOND, 39. zkia.)

1990 Hondarribiko herri euskaltegiak bere bigarren ikasturtearen balantzea egin zuen (ikasle eta talde gehiago aurrekoan baino) eta "eskererakutsia eman nahi genieke gure aurretik euskeraren beharra (praktikoa eta bestelakoa) herritarrari helarazten saiatu den edonori, eta nola ez euskera erakusten aritu den orori. Guztiak aipatu nahi ditugu: Auzo elkarteetan klaseak eman zituztenak, Institutoan eman zituztenak, zenbait Elkarteren bidez (Klink, Marlaxka, Kerizpe...) eman zituztenak, eta batez ere Ikastolan, Gau eskoletan eta AEKn klaseak ematen aritu direnak." (HOND, 40.zkia.)

- 1991 Udalak Hondarribiko azterketa toponimoa egiteari ekin zion eta lan horretarako filologo bat hartu zuen. (HOND, 44. zkia.)
- 1991 "Gipuzkoako lehen txiste lehiaketa" (...) Eratu berria den "Branka Gazte Elkartea"k antolatua, udaletxearen babesarekin, eta zenbait merkataletxe eta erakundeen laguntzari esker, "Gipuzkoako Lehen Txiste Lehiaketa" ospatuko da ezin egokiagoa den abenduko 28an. Txisteak bai euskaraz bai gaztelaniaz izango dira, eta txiste kontalarien era, keinuak eta grazia argi eta garbi ikus daitezzen, pantaila handi bat kokatuko da kiroldegi bertan." (HOND, 45. zkia.)
- 1992 "Hondarribiko Udalak 1992an onartu zuen «Hondarribiko Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauak ematen dituen Udal Ordenantza» eta hori da gaur egun indarrean dagoena. Baina Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren Plan Estrategikoan aurreikusita dago Udal Ordenantza hori eguneratzea." (www.hondarribia.eus)³⁸
- 1992 IX. Bordari eta Satarka Literatur lehiaketan inoiz baino lan gehiago aurkeztu omen ziren, guztira 47 lan.
- 1993 "II. Euskal Txiste Grafiko Lehiaketa. Lehiaketa honetan parte har dezakete Hondarribian jaiok edota bertan bizi edo ikasten ari direnek. Lehiaketak hiru maila izango ditu: A, 16 urtez gorakoentzat (...) B, 12 urtetik 16 bitartekoentzat (...) D, 12 urtez beherakoentzat." (HOND,51.zkia.)
- 1993 Abenduaren 23tik urtarrilaren 5a arte bigarren urtez haurrentzako ludoteka bat antolatu zen. (HOND, 52.zkia.)
OHARRA: Zein hizkuntzatan ez du zehazten artikuluan.
- 1994 "V. Herri Kanta Jaialdia. (...) Abesbatza bakoitzak jaialdian zehar hiru kanta eta beste abesbatza guztiekin batera "Agur Jaunak" kantatuko ditu. Era berean, herri bazkariaren ondorengo jaialdian beste bi kanta abestuko ditu. Abestu guztiak, euskal herri kantak eta euskaraz kantatuak izango dira." (HOND, 53. zkia.)
- 1994 "Uda euskaraz" liburuxka: "Gipuzkoar kostaldeko zenbait Udalen inizatibaz sortu eta Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak argitaratu duen "Uda Euskaraz" deituriko liburuxka, kalean da jadanik." Bertan bost hizkuntzetara euskarazko hiztegi txiki bat eta Euskal Herriari eta hizkuntzari berari buruzko informazioa biltzen zituen eta kanpotik etorritako turistek begira argitaratu zen. (HOND, 54. zkia.)
- 1994 "Hondarribiko Ikastolako txikiak, Satarkan. (...) Sei urtetik beherako 140 bat haur euskaldun biltzen dituen Hondarribiko ikastolako SATARKA eraikina martxan dago jadanik. (...) azken urtetan puntalean izan den

³⁸ Hondarribian Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Ordenantza: www.hondarribia.eus
(<http://hondarribia.eus/ficha.asp?menu=159&idioma=eu&padre=801&volver=1>)

Satarka haurtzaindegian eta Arma Plazako ikastolan ere biltzen ziren haur eta irakasleak bilduko dira hemendik aurrera. (...) zero urtetik sei urtera bitarteko ikasleak arituko dira hain zuzen, ondoren Baserritar Etorbidean kokatua dagoen BORDARI Ikastolara pasatzeko." (HOND, 54. zkia.)

1994 Udal Euskara Kontseiluak lehen aldiz, uztailean zehar egonaldiak antolatu zituen herriko baserrietan hamalau urtetik hogeita bostera bitarteko gazteentzat. 1995ean ere, arrakasta ikusita, berriro antolatu zuen.

"Euskara Kontseiluak honen bitartez lortu nahi duena zera da: alegia, bertan bizi eta egunean zehar euskara praktikatzeko ia aukerarik ez duenak, benetako euskaldun giro batean jardun ahal izatea, egunean zenbait orduz behintzat. Ikasle guztiei gutxienezko euskara maila bat eskatzen zaie, izan ere hizkuntza ikastera baino, praktikatzera baitijoazte hain zuzen egonaldi hauetara." (HOND, 54.zkia)

1994 Bi urte ondoren, Hondarribiko Ikerketa Toponimikoari amaiera eman zioten. Lanaren emaitzen berri emateko auzoz auzo aurkezpenak egin ziren. Aurreagoko helburuak Mapa Toponimikoa kaleratzea eta Euskaltzaindiaren Onomasticon Vasconiae sailean fitxategia argitaratzea.

1994 Udako Euskal Unibertsitateko ikastaroetan parte hartuz gero, diru-laguntza eskaintzen du Udalak: "Hondarribiko Udalaren laguntza beraz, aurreko urtetan izan den bezala, ordainketa horren zati bat, %50, hau da erdiaren eskaintza izango da aurten ere. " (HOND, 54.zkia.)

OHARRA: barnetegietara joateko diru-laguntza ere ematen zuen Udalak.

1994 Bertso Eskola: hirugarren ikasturtez martxan jarri zuen Udal Euskara Kontseiluak. Lehenengo bi ikastaroetan klaseak Saindian eman ziren eta azken hau Bordari ikastolan. Bertso Eskolan hiru maila: "haurrentzako ikastaroa Miren Legorburuk eskaintzen du, gaztetxoena berriz Mayi Izak, eta helduen irakaslea, azkenik, Carlos Aizpurua oiartzuarra (...)" (HOND, 56.zkia.)

Ikasturte honen aurretik Andoni Egañak lau bat saioko ikastaro bat eman zuen eta Manolo Arozenak eta Sebastian Lizasok ondoren, ikasturte oso batean aritu ziren irakasle.

1995 Neguko Jardunaldiak: "(...) astebetetz luzatu diren ekitaldi ezberdinek osaturiko euskal astea guztiz arrakastatsutzat jo dute (...).

Aurten lehen aldiz antolatu den ekitaldi bat da hala eta guztiz ere antolatzaileen esanetan aste osoan zehar arrakastatsuena izan dena. Alegia, Hondarribia euskaraz izenez aurkeztu zen marathoi delakoa. Larunbata goizean hasi eta arratseraino iraun zuen saio luzean, antzerki, abesti, kontzertu, dantza, bertsoak...ikuskitun ezberdin eta bariatua eskaini ziguten Hondarribiko talde ezberdinek." (HOND, 63.zkia.)

1996 "Norberaren abizena euskal grafiaz idatzita." Udal Euskara Zerbitzuak iragarri zuen tramiteak egiteaz arduratuko zela. (HOND, 64.zkia.)

1996 Txantxangorri aisialdi taldea: "Lau neska jarri zuten martxan proiektu hau duela urte bete, eta gaur egun neska-mutilen aisialdirako alternatiba bilakatu da. Zazpi urtetik hamabi bitarteko 60 neska-mutil eta hamabost begirale dira horren lekuko. Txantxangorri, Gazte Asanbladako talde bat dugu eta Saindua Gaztetxean biltzen da. (...) gastuak ordaintzeko urteko kuotatxo bat kobratzen dietela gurasoei, horretaz gainera Hondarribiko Udalak ere dirulaguntza bat ematea onartu omen du eta lasterjasotzea espero dute." (HOND, 66.zkia.)

OHARRA: artikuluan ez dute jardueraren hizkuntza zehazten.

1996 Euskara zinegotziak, Euskara Azpibatzordearen ekintzen-egitasmoen berri eman zuen: ikastetxeetako udako ikastaroak, Neguko Jardunaldiak, Bordari eta Satarka Literatur Lehiaketa, Bertso Eskola, Txiste grafikoen lehiaketa, euskaltegia, Satarkaren jaiotzaren urteurrena zela eta ekitaldi ezberdinak, abizenak euskal grafian kanpaina, "Udala eta Herria bera ere euskalduntzeko plangintza bultzatuz gabiltza ere, besteak beste." (HOND, 71.zkia.)

1996 Hondarribiko Biteri-Soroeta Eskola, Hondarribiko Ikastola eta Institutua batu egin ziren. "Hondarribian D eredu hutsa erabiltzen duen bakarra eta esan bezala publiko bakarra ere badena." (HOND, 71.zkia.)

OHARRA: TALAIA izena jarriko zioten sortutako ikastetxe berriari.

1997 Poltsikoko egutegia: "Urtero bezala, Udal Euskara Azpibatzordeak kaleratu du 1997. urteko poltsikoko egutegi txikia. Dakizuenez, egutegiaren alboan telefono zenbaki zerrenda luzea agertzen da (..)" (HOND, 74.zkia.)

1997 Eusko Jaurlaritzaren "Ahoz aho, belaunez belaun" erakusketa ibiltaria Zuloaga etxean Udal Euskara Azpibatzordeak antolatuta. Erakusketaren helburua: "Euskararen erabileran familiak duen garrantziaz jabetzea eta guraso nahiz gurasogaien euskararen aldeko jarrerak sendotzea". Erakusketarekin batera hainbat ekintza antolatu ziren. (HOND, 76.zkia.)

1997 Olagarro elkarteak bigarren aldiz antolatuta, euskarazko Maitasun Gutunen Lehiaketa burutu zen. (77.zkia.)

1999 San Jose ikastetxeko gurasoentzat euskara ikastaroa antolatu zen ikastetxean bertan. Euskaltegiko irakasle batek eman zituen klaseak. Beste ikastetxeetara zabaldu nahi zen. (HOND, 98.zkia.)

1999 Kirol begirale poltsa osatzeko deialdia egun zuen Udalak. "Haurren artean euskara bultzatzen ari dira indartsu azken urteotan bi Udalak³⁹, eta hori dela eta, kirola egiten ari direnean monitore euskaldun bat izatea

³⁹ Bi Udal horiek Irungo eta Hondarribiko Udalak dira.

- garrantzitsua litzateke helburu honetara iristeko." (HOND, 100.zkia.)
- 1999 Euskararen Astea San Jose ikastetxean: "1997. ikasturtean Hizkuntza Normalizazioan sartu ginenetik, Euskararen Astea ospatzen dugu gure ikastetxean." (HOND, 102.zkia.)
- 1999 Guraso taldea euskaltegian: "Transmisio taldea: maiatzean egindako kanpaina intentsibo baten ondorioz, euskara ikasi edo hobetu nahi duen guraso ugari eman du izena Euskaltegian. Hiru talde egingo dira (...)" (HOND, 106.zkia.)
- 1999 Gipuzkoako Foru Aldundiaren "Kirola euskaraz" programa. Bidasoa bailarako kirol lan mahaiak epe motzera ondoko helburuak zehaztu zituen: "diagnosi bat egitea, kalitatea hobetzea eta sentsibilizatzeko bidea aztertzea." (HOND, 108.zkia.)
- 1999 Udal langileen euskara maila hobetzeko trebatzaile bat kontratatu zuen Udalak. "Kontratazio hau Udalak "Bai Euskarari" Euskararen aldeko akordioan eginiko sinaduraren barnean ezarri behar da." (HOND, 108.zkia.)
- 2000 Udalak Erabilera Plana egitea erabaki zuen "erakundearen eguneroko jardueran euskara normalduz joateko, normalkuntza osoa erdietsi arte. Baina normalizazio osoa lortzeko urratsez urrats (...) aritu beharra dagoenez, hiru ataletarako erabilpena plana egitea erabaki du: 1.Kultura 2.Udaltzaingoa 3.Kontuhartzailletza. (...) Atal horiek euskaraz aritzeko beregaintasuna lortzen dutenean, gauza bera egingo dugu beste atal batzuetan." (HOND, 110.zkia.)
- 2000 Mintzalaguna: Udal Euskara batzordeak eta euskaltegiak euskaraz hitz egiten zekitenei dei egin zieten euskara ikasten ari zirenen laguntzaile edo mintzalagun izateko. (HOND, 111.zkia.)

2000 SIADECOK 1999an egindako Euskararen Kale Erabileraren Neurketaren emaitzak ezagutzera eman ziren. "(...)duela 11 urte* elkarre berak eginiko ikerketan lortutako datuek okerrera egin dutela ikus daiteke. Euskararen erabilera-indize orokorrak beherakada xume bat jasan du, eta orain %36ak egiten du euskaraz kaleetan.

Ondorioz, euskararen erabilera Hondarribiko kaleetan minoritarioa da oraindik. Azterketa egin zen egunetan (...) hitzegiten zeuden 8 pertsonetatik 3 ari ziren euskaraz eta beste 5 erdaraz.

Erabilera-indizek altuena pertsona zaharren artean neurtu da (...) %51,4ak euskaraz egiten du. Dena den, 1988an (...) %67,1ekoa zen. (...) Haurrak lirateke bigarren erabiltzaile nagusiak, heldu gazteak ondoren (25-39 bitartekoak), heldu nagusiak (40-59) eta gazteak azken tokian (15-24)."
(HOND,111.zkia.)

Ikusi datu gehiago Datu soziolinguistikoak atalean (...or.)

*Orduan euskaraz ari zirenen kopurua %38,3koa zen.

2000 Azaroaren 4tik abenduaren 4ra "Euskal jaiak" ospatu ziren. Asmoa zen 1975ean ospatu ziren haien sena eta esanahia berreskuratzea; antolaketan zenbait elkartek, ikastetxek eta euskal kulturako norbanako batzuek hartu zuten parte. Egitarauan, besteak beste: duela 25 urte antolatu zutenei omenaldia, txirrinda martxa, pailazoen emanaldia, Euskaltzaindiako Literatur batzordeko kideen bilera, Bordariren omenezko erakusketa eta omenaldia, euskal liburu eta diska azoka, Bordari-Satarka lehiaketa...
(HOND, 119.zkia.)

2000 2001eko aurrekontuak: guztira 1.905.641.008 milioi pezeta.

Euskarak guztira 69,7 milioi pezeta (euskararen sustapena 30 milioi pezeta; euskaltegia 39,5 milioi pezeta. Hau da, aurrekontu osoaren %3,65 euskararako. (HOND, 121.zkia.)

2001 Txomin Sagarzazuk Hondarribiko eta Irungo euskara aztertzeke J.A.Loidi beka jaso zuen. (HON, 122.zkia.)

- 2001 Euskara Hondarribiko Merkataritzara: SIADECOK burutu zuen lana. "(...) datozen hilabetetan; Hondarribiko merkataritza guneetan euskara indartzeko apustua egingo da, bezeroa eta merkatarien arteko euskara sustatu asmoz. (...) Ia 400 establezimendu bisitatuko dira banan bana (...) establezimendu hortan euskararen egoera zertan den aztertuko da. Udalak, euskara indartzeko baliagarriak diren materialak eskainiko dizkie (...) hala nola, "zabalik", "itxita", "merkealdiak", "ordutegia"...eta antzeko kartelak. Aukera gehiago eskaintzen dira plan honetan. Komertzianteari, kanpo errotuloak euskaraz jartzeko diru laguntzak emango zaizkio, baita dendari hori euskaraz trebatzeko ikastaroak, hiztegi espezifikoak, fakturak eta albaranak euskaraz egiteko aukera...
- Geroago egingo den bigarren bisita batean, komertziantek horrek lehen bisitan eskatu dituen materialak emango zaizkio, eta hizkuntza konpromiso bat egingo da berarekin. Dendariak daukan hizkuntza gaitasunaren arabera, konpromiso desberdinak egingo dira." (HOND, 132.zkia.)
- 2001 6-16 urte arteko gazteek eskola orduetatik kanpo erabiltzen zuten hizkuntza aztertzeko SIADECO kontratatu zuen Udalak. "Ikerketa burutuko duen elkarteak, SIADECOK, ondoren planteamendu bat egingo dio Udalari, ondoren zer nolako pausu eman behar diren jakiteko." (HOND, 132.zkia.)
- 2002 Txomin Sagarzazuk Hondarribiko hizkeraren ikerketarako beka deialdia irabazi zuen. "Berak esan bezala, "gure herriko gizataldeetatik ezagunaren hizkera aztertuko da. Portuko hizkera-ezaugarriak aztertu nahi dira, lan monografiko batekotz gaia ematen dutelako, eta bestetik, herriko hizkera behar bezala ezagutu eta deskribatzeko ezinbestekoa delako". (HOND, 134. zkia.)
- 2002 "4 establezimendutik 3tan euskara erabiltzeko aukera badago Hondarribian" dio Hondarribia aldizkariako artikulua izenburuan. SIADECOK burututako ikerketan 268 establezimendu bisitatu ziren.
- Emaitzak labur-labur: 955 pertsonetatik %55 euskalduna da, eta horien erdia alfabetatua. "Lan guztiaren ondorio bezala, ikusi ahal izan da Hondarribiko 4 establezimenduetatik ia 3tan (%72) euskara erabiltzeko aukera badagoela ahozko harremanetan (...) 10 establezimenduetatik 3 erabat euskaldunak dira (%31), beste 4 mistoak dira (%40). Azkenik, 4tik 1 (%28) langile erdaldunek osatzen dute." (HOND, 138.zkia.)
- Ikusi datuak osatuago lan honen Datu soziolinguistikoak atalean (...or.)
- 2002 Azaroaren 27an Neguko Jardunaldien barruan, Hondarribiko Toponimiari buruzko liburuaren eta maparen aurkezpena egin ziren. (HOND,143.zkia.)

- 2002 2002. urte amaieran Bidasoa-Txingudi Partzuergoko Euskara lan taldea sortu zen, bertan Hendaia, Irun eta Hondarribiko euskara ordezkariak eta euskara teknikariak biltzeko asmoz."(...)bere helburu nagusia txinguditarrek (haur eta gazteek nagusiki) eskola ordutegitik kanpo ere euskara erabiltzea da." (HOND, 167.zkia.)
- 2003 Euskara Merkataritzara Plana bigarren fasean sartu zen.
1.fasea (2001eko azarotik 2002ko apirilera): establezimenduak bisitatu ziren eta %86k adierazi zuen euskara areagotzeko neurriak hartuko zituela.
2.fasea: "2002ko abenduan hasi zen eta bost urrats desberdin izango ditu. Egun lehen urratsean gaude, dendariei dirulaguntzak, zerbitzu eta materialak eskainiz. Bigarreanean, euskararen erabilera sustatzeko kudeaketa plana indarrean jarriko da eta ebaluaketak egingo. Hirugarren urratsean, merkataritza euskalduntzeko bi plan integral burutuko dira, eta ondoren, merkataritza adar jakinetan modu espezifikoan eragiteko ekintzak egingo dira. Azkenik, txikizkako merkataritzan euskara marketingeko elementu gisa erabiltzeko aukerak aztertu eta aukera horietaz baliatzea bilatuko da." (HOND, 146.zkia.)
- 2003 Hondarribiko toponimiari buruzko liburua kaleratu zen Euskaltzaindiak argitaratzen duen Onomasticon Vasconiae bildumaren barruan (23. alea). (HOND,148.zkia.)
- 2003 "Egunkari berriaren alde lanean. (...) Hondarribian, Euskal Herriko beste hainbat herritan bezala, Herri Batzordea jarri genuen martxan joan den maiatzean. Talde hau arduratu da Berria egunkari berrirako diru bilketa Hondarribian bideratzeaz. (..)" (HOND, 151.zkia.)
- 2003 Saindua Gaztelekuan 2003-2004 ikasturte hasieran izango diren ikastaroen eta tailerren berri ematen da (perkusioa, gitarra, argazkilaritza, antzerkia...). Horietako batzuk 12-17 urte bitarteko gazteentzat ziren eta Hondarribia aldizkariko artikuluan ez da aipatzen zein hizkuntzatan izango ziren. (HOND, 154.zkia.)
- 2003 Euskarazko jardueren gida: "Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak, Bidasoa-Txingudi eskualdean euskaraz egin daitezkeen jarduerak bilduko dituen gida bat argitaratzeko asmoa du eta horretan dihardu lanean." (HOND, 154.zkia.)
"Badian Euskaraz" izeneko gida 2004ko urrian argitaratu zuen Partzuergoko Euskara lan taldeak.
- 2003 Neguko Jardunaldien barruan, Hondarribiko Mapa toponimikoaren aurkezpena egin zen. (HOND, 155.zkia.)

- 2003 Txingudiko Bertso Eskola berria: "Bidasoa Txingudi Partzuergoa da proiektu honen sortzaile eta sustapen ekonomikoa daramana. Eskualdeko bertsozaleekin elkartu eta mintzatu ondoren, Partzuergoko lan taldeko kideak konturatu ziren haurrek ikastoletan bertsolaritza ikasteko eta praktikatzeko aukerak bazituztela, baina gazte eta helduentzat ez zegoela egiturarik. (...)
- Irunen larunbatetan dozena erdi bat lagun bildu ohi ziren bezala, Hondarribian bazen Udalaren laguntzaz abiatu zen bertso eskola bat, baina duela bi urte itxi zen (...)Beraz, Txingudiko Bertso Eskolak hiru herrietako bertsozaleak bilduko ditu, Irun Irutenek hartuko duelarik bultzatzaile lanak. Hamalau urtetik gorako gazteei eta helduei zuzendua egongo da, Irunen du egoitza, EKT elkartearen lokalean (...)" (HOND, 155.zkia.)
- 2004 Txomin Sagarzazuk Irungo eta Hondarribiko hizkerari buruzko 10 orduko ikastaro bat eman zuen.
- 2004 KZgunean euskarazko hiru ikastaro antolatu ziren: "Antolatzaileen asmoa hiru ikastaro hauek euskaraz ematea da, baina talderik osatuko ez balitz, klaseak gaztelaniaz izango lirateke." (HOND, 161.zkia.)
- 2004 Udal Gazteria Sailak antolatu zituen udaleku irekiei buruzko informazioa eman zuen: "Euskara hutsez egingo da, eta berez, partehartzaileek bere taldekide zein monitoreekin euskaraz jarduteko gai izan behar dute." (HOND, 162.zkia.)
- Orri berean, aipatzen dira Hondarribia Futbol elkarteak 6 eta 14 urte bitarteko gazteei begira uztailean antolatu zituen II.Futbol Hobekuntza Ikastaroak. Hauek zein hizkuntzatan izango diren ez da adierazten.
- 2004 Hondartza Kiroldegiak udan antolatu behar zituen ikastaroen berri eman zuen, baina ez zuen adierazi ikastaroak zein hizkuntzatan izango ziren. (HOND, 163.zkia.)
- 2004 Udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzeko asmoa agertu zuen eta 2004ko ekainaren 21ean "Horretarako Aholku Batzorde bat eratu da herriko esparru guztietako ordezkariekin." (HOND, 163.zkia.)
- 2005 2004ko abenduaren 27ko Osoko Bilkurak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartu zuen. "Plan Estrategikoak lau urteko iraupena izango du, 2005etik 2008 bitartekoa. (...) Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, Udalarena ez ezik, gizarte osoarena ere izango da, hori garatzeko ezinbestekoak izango baitira Udalaren konpromisoa eta gizartearen partaidetza eta lankidetzeta." (HOND, 171.zkia.)

10.2. IRITZIAK, PERTZEPZIOAK...HONDARRIBIAN BIZI (IZAN) DEN EUSKARAREN EGOERARI BURUZ.

Hasieran, Hondarribia aldizkaritik jasotako iritziak ekarri ditugu hona, eta ondoren, gaur egungo iritziekin osatzeko Google Driven sortutako galdetegi baten bidez lortutako iritziak.

Denak irakurrita zenbaitetan badirudi urteak ez direla pasa. Izan ere, horietako iritzi eta ideiak batzuk errepikatu egiten dira, nahiz eta tartean hamar-hogei-hogeita hamar urte egon.

Iritziak irakurtzera gonbidatu baino lehen, eskerrak eman nahi dizkiegu gure galdetegiari erantzun dioten guztiei, baita hortik kanpo ahoz euren iritzia eman digutenei ere. Horiek denak lagungarri izan zaizkigu gure lanean.

A)-HONDARRIBIA aldizkarian jasotakoak.

10.2.1 1980an Euskaltzaindiak Hondarribiko udaletxean bilkura ireki bat egin zuenean Fernando Artolak, Bordarik, Hondarribiko mintzairan bertako berri⁴⁰ izeneko hitzaldian esandakoa:

"Guré herri hontan baserritárrak eta arrantzáliak gorde dute gehien bat gure mintzaira. Neré ttiki dénboetan⁴¹ kastillánoz tútik etzékiten arrantzále ta baserritár askó zirén hemén. Oáñdik ezer gutxi dakitén batzuek izango dire.(...)

Gu ttikiyak giñénian karabinéro-kume guziyak euskéraz ikasten zuten. Biharko, gurékiñ ibiltzekotan! Pako Peto'k (Pako Prieto) iyá, iyá kastillánua antzi zuen. Gero Pasaira fantzen bizítzera ta bertako iñ. Pillotári ona, arraunlári hobia, gizon jatorra. Euskaldún odolik etzuela, lagun báti "euzkotar odola" eskatu ziyon ta bere zánetan sartú arazi. (...)

Dénak ikásten zutén guk bezéla euskáraz. Bértako egitten ziren denak. Oáñdik bizi diré batzuek Irun'en. Elkar topatzen euskáraz mintzatzen dugu. Oañ, beráka haundíya hartu du euskarak. Negar éitteko moduan. Bestélakuan, arrantzáliak eta baserritárrak oáñdik euskáraz mintzátzen dira. Portu aldi horrétan, belarriak erne ibillitare, ez duzu konprendittuko zer esaten duten batzu-batzuek. Apettittu

⁴⁰ Fernando Artola, Bordari (1980): *Hondarribiko mintzairan bertako berri* In: EUSKERA XXVI, 297-303. or. Euskaltzaindia.net (<http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51011.pdf>)

⁴¹ Fernando Artola 1910ean jaio zen Hondarribian.

haundikuak dire'ta hitzak jan egitten dittuzte. Horrégatik daude an gizon ederrak.
(...)

Bukátzera nua. Agintzen duénak gogor jótzen baldin bádu, Hondarribiyan ez dá euskára galdúko. Erárian sartúak, euskáraz mintzátzen gara. Ikastóletako haurttoak ere gu ttikíttan bezala arí dire, jostátzen arí direlare: euskaldunez. Berrogeí urtéko zolúa, hondó haundiko erreka; Askatasun eguzkiak eta itxásuak ekárriko duen euskal-ondárrak beteko du; dabéneko entzúten da "Urrezko trunpeta". "Jaiki, jaiki etxékuak gure mintzáiraren párekorik ez da múnduan".

10.2.2. Jose Mari Etxaburuk, Kamiñazpik, 1986an argitaratu zuen Ondarrabiaco Kondaira liburuan honelaxe deskribatzen du euskararen egoera:

"Dana dala, iru-lau mendetan gaskoin izkera zerbait edo gehiago bertan erabilli arren, emengo izkuntza, euskaldun endakoena beiñepein, euskera izan dala beti baieztatu daiteke. Gaur ere bai, gaur ere Ondarrabia ´n, jatorriz bertakoak diranak, bear bada aurren batzuk ez, baiña, guztiak dakite euskeraz eta itz egiten dutenak ere ez dira gutxi. Baiña kalean erdera da nagusi.

Beti euskeraz mintzaten diranak, naiz eta erdera jakin, arrantzaleak dira. Ordea, arrantza sendietako neska gazteek erderaz itz egiten dute, atso-agure ta aurrekin izan ezik. Basarrietako gazte eta aurren artean ere erdera ari da nagusitzen, erri urbillekoetan behintzat."⁴²

10.2.3. Hondarribia aldizkariko 1987ko 15.zenbakiko artikuluan batean honelaxe dio:

"HONDARRIBIAREN BESTE ALDEA

(..)Oso zabaldua dago Euskal herri guztian gure herria ikusgarria dela, zabala, atsedengarria... (...)

Asko eta asko azaleko aurpegi edo aldearekin bakarrik geratzen dira, eta hauen

⁴² Jose Mari Etxaburu, Kamiñazpi (1986): Ondarrabiaco Kondaira. Itxaropena SA. Zarautz. 178. or.

inpresioa ezin hobea da, noski. (...)

Kanpotik begiratzuz Hondarribia herri euskalduna da, hau da, Hondarribian euskara da nagusi. Herriaren sarreran jarririk daude kartel handiak:

“Gu euskaldunak gara”, “Guk euskaraz, zuk zergatik ez?, etabar...

Gainera, arrantzale herria da, eta badirudi tipikotasun bategatik edo, arrantzale-herrietan euskaraz egin behar dela hitz. (...)Hala, kanpotik datorren asko, lehendabizi, euskeraz hasten da hizketan, hartara beharturik balego bezala.

Herriaren izena bera Fuenterrabiatik Hondarribiara aldatu zen. Kale-izenak ere euskara hutsean jarri ziren. Eta oraintxe bertan errepide ea inguruetarako kartelak ere euskaraz bakarrik jarri dira. Hau lorekia!!!

Baina hurbiletik begiratzen duenak, ikuspegi tristeagoa jasoko du. Erdara nagusitu egin dela esango genuke gure herrian. Zaharrek, helduek, eta haurrek ezik, ia inork ez duela egiten euskaraz.

(...)

Zergatik ez dugu euskaraz bakarrik egiten, euskaraz dakigun guztiok? (...)

Gure bildurra, ordea, hauxe da: euskaraz jakin eta euskaraz egiten ez badugu, guk galduko dugula euskara.

Aldizkari honen bidez egiten dizuegu, beraz, deia euskaldun guztioi: zure espainetan EUSKARA izan dadila lehendabizikoa eta betikoa!!” (HOND, 15. zkia.)

10.2.4 “HAURRAK EUSKALDUNTZEN” artikulua Hondarribia aldizkariako 1988ko 21. zenbakian:

“Duela zazpi urte, 1981. urtean hain zuzen, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak euskararen eta euskarazko irakaskuntza bideratzeko hiru eredu desberdin proposatu zituen Komunitate Autonomoko ikastetxe publikoetan irakasteko.

(...)

Hondarribiko herria herri euskalduna dela kontutan izanik, hau da lurraldetasunaren arabera, ikastetxe guztietan D eredia irakatsi beharko litzateke. Irakaskuntza euskaraz eman beharko litzateke. Biteri ikastetxeak ausardi haundiz

egin zuen salto kualitatibo hori, duela, urte batzu, D ereduan irakaskuntza osoa egitea ekin ziolarik.

Bete zenbait ikastetxe, A ereduarekin hasi eta poliki poliki B eredura pasatzen ari dira.

(...)

Ikastetxeak ahal dutena egiten ari dira, baina ez dakigu zihur Hondarribiko haurrak zein epetan euskalduntzea proiektatuta dagoen. Epeak plangintzaren ezinbesteko atala dira.

Epe luzeegiak aspergarri eta zapuztzaile bihurtzen dira praktikan. Herriko haur guztiak euskalduntzeko plangintza eraginkor eta zehatzak ahalik eta epe motzenetan euskara ikas dezaten bultzatzea behar-beharrezkoa da. Eta horretan Udaletik bertatik ere ahalegindu beharko litzateke.

Inaxi Lazkano"

(HOND, 21. zkia.)

10.2.5. Jaiak direla-eta, Alfonso Oronozek 1988ko Hondarribian aldizkariaren 24. alean egindako agurra:

"(...) Aldizkariak urte guzian barrena euskaldun izaten lagundu nahi digu: familia eta lagunarteko txokoetan ez-ezik, baita Udalerriko bizitza osoan ere.

Hondarribia, aspalditxotik muga herria denez, hizkuntza diferenteen bilgune eta topaleku aberatsa gertatu da. Hala ere, nekazari, arrantzale eta herrikide gehienen harremanetan berezko tokia izan du euskarak mendez mende. Udalaren ardura da euskal izate horri uko ez egitea eta ondorengoetara indartsu eta osasuntsu igaro araztea. Euskarak lotzen gaitu aurreko hondarribiarrekin eta gaurkoekin . Lotu gaitzala gerokoekin ere. Ez dadila guregatik katea eten, hauxe bait da historia eta herrien arteko kulturarekiko daukagun zorra eta erantzunbeharra; festa egunetan eta gainerakoetan. Ez dezagula huts egin.

Agur bero bat eta ondo igaro ditzazuela jaiak!

Zuen Alkateak

Alfonso Manuel Oronoz Alkain"

(HOND, 24. zkoa.)

10.2.6. SIADECOKo Iñaki Iarrañagak 1988ko azterketa soziolinguistikoaren 1. fasearen laburpenean honelako iritzia eman zuen Hondarribia aldizkarian:

"(...) gogora dezagun Hondarribiko hiriaren Alde Zaharra Agintarien aldetik "monumento historico-artístico" bezala kontsideratua eta tratatua izaten ari baldin bada, Hondarribiko duen Euskararen ezagupenaren altxor hori gordetzen ezezik bere etorkizuna ziurtatzeko ardura ere hartu beharko lukeela eta hori lortzeko behar diren medio eta baliabideak martxan jarri. Izan ere, historian zehar pilatzen joan diren harrien balioa ukaezinezko baldin bada ere herri baten arnasa den hizkuntza ezin joko da balio gutxiagokotzat.

Azkenik, aipamen berezi bezala, ardura berezi bat merezi lukeen eta hizkuntza altxorrek oharri bitxi bat den Hondarribiko arrantzaleen euskara berezia, bildu, aztertu eta indarberritzeko bideak egin beharko lirateke. Merezi du horretan txanpon batzu gastatzea ezezik, ahaleginik sendoenak egitea." (HOND, 24.zkoa.)

10.2.7. SIADECOK 1988ko azterketa soziolinguistikoaren 2. fasearen laburpenean hauxe idatzi zuen Hondarribia aldizkarian :

"Euskara idatziari buruz bi hitzetan esan dezakegu: uda garaian desagertu egiten da, Aurrezki Kutxetako inpreso elebidunak salbuespen direlarik. Beraz, Hondarribiko gizarte zerbitzuak udan hondarribiarrei zerbitzatzeari baino udatiar eta turista erdaldunei begira gehiago jartzen dira. Kontzientziazte falta nabari da gizarte zerbitzuetako alor ezberdinen aldetik, bere lehen helburua hondarribitarrei

zerbitzatzea izan behar bait du eta hori ezinezkoa bait da erdaraz bakarrik eginez lortzea.” (HOND,27.zkia.)

Artikuluaren bertan herriko elkarteei buruz diharduenean hauxe dio:

“Elkarte hauetako bazkideek euskararekiko dituzten jarrerak gehienbat baikorrak badira ere, gero erabilpen datuetan ez da hori isladatzen eta horrek esan nahi du nahi hori bideratzeko eta mamitzeko biderik ez dutela aurkitzen gizartean eta berroren antolamenduan eskeintzen dizkieten bitartekoetan.

Dena den, sektore osoa euskalduntzeko egitasmoren bat egin beharra dago hain herri euskaldun eta hain elkarte euskaldunari legez zor zaiona bait da. Euskarari lehentasuna ematea eta elkarte askotan ere euskara bakarrik erabiltzea izan behar luke helburua.” (HOND,27.zkia.)

Eta bukatzeko:

“(…) Euskal Herriko beste hiri eta herrietan gertatzen den antzera, eta agian nabarmenago, Hondarribiko hiria kontraesan batean murgildurik aurkitzen dela esan beharra dago, jendeak euskara jakin arren, bizitza sozialeko alor edo espazio gehienetan erdara nagusitzen bait da, inertzia guztiek erdararen alde jotzen dutelarik eta hori gertatzen da, ez bakarrik gizarteko zerbitzuen sektorean, baizik eta orain arte guztiz euskaldun izan diren nekazari eta arrantzaleen munduan ere. Eta urtean zehar horrela bada zeresanik ez udaldiko hilabeteetan, orduan erdara guztiz nagusitzen bait da.

Ezagupen maila eta erabilpen mailaren artean dagoen desoreka nabarmen honi irtenbideak bilatzea izango da etorkizunari begira Hondarribiko Udal Euskara Kontseiluak ezezik hondarribiar guztiek eskuartean duten apusturik gogorrena.”

(HOND, 27.zkia.)

10.2.8. SIADECOK 1988ko azterketa soziolinguistikoaren 3. fasearen laburpenean ondokoa azaldu zuen Hondarribia aldizkarian :

“(…) neguko hilabeteetan euskarak badu bere lekua alor guztietan, bat edo beste guztiz euskaldun direlarik. Uda partean, ordea, euskara baztertuta geratzen da, bazterreratu egiten da alor guztietan eta zenbait kasutan ia desagertzeraino

iristen delarik.

Ez da ahanzi behar udako hilabeteak erdaraz hitzegiten igaro ondoren, ez dela batere erraza neguan berriro euskaraz hitzegiten hastea. Izan ere, euskara herdoildu eta azkenik galtzeko une egokiak dira horrelako aldaketak.

(...)

Kanpotarrek Hondarribian erdal giroa ezarri ordez, Hondarribiak kanpotarrei euskal giro orokor bat, ez bakarrik folklore mailakoa, eskaintzea lortuko lukeen neurrian udako hilabeteek, lehenaz gainera Hondarribiako giroa euskalduntzeko eta udatiarren artean aurkitzen diren euskaldunen hizkuntza beharrei erantzuteko balioko lukete.

(...)

Konklusio gisara eta labur bildurik esan genezake Hondarribiko hondartzan ez dela euskara erabiltzen herrian erabiltzen den tamainan. Hondartzako euskararen erabilera Hondarribian ematen den euskararen erabilera baino gehiago inguruko herrien erabilera hurbilduko litzateke. Are gehiago, Hondarribiko hondartza udan, udatiarrenaz gain inguruko herri guztietako jendearen atsedean eta denborapasako leku da, herri horiek Hondarribia baino askoz erdaldunagoak direlarik.

Nolanahi ere Hondarribiko Udala saiatu beharko litzateke hondarribitar izaera berpizten hain leku xarmangarrian, leku hontara hurbiltzen diren guztiak nabari dezaten "Hondarribian" daudela eta Hondarribia, noski, udalerrri euskalduna dela. Horretarako, Hondarribiko udalak udako hilabetetan giro euskalduna sortzeko plangintza edo proiektu orokor bat burutu eta bideratu beharko luke." (HOND, 33.zkia.)

10.2.9. Jexuxmari Mendizabali, Bizargorri, Hondarribia aldizkarian 1988an egindako elkarrizketan euskarari buruz esandakoa:

"(...) Zera esan gabe ez dut geratu nahi inola, alegia, Hondarribiko arrantzaleen euskara (bai baserritarrena ere, bere moduan) oso berezia dela, aparta!, inguru guztian parekorik ez duena; asko ari dela galtzen gure aurrekoetatik guregana bitartean; gure seme-alabek eta Euskal Herri osoak deus jasoko badute "gure-gure" honetatik, norbaitek (Bordariri jarraiki) ekin beharko liokeela, orain ia!, biltze

lanari.(...)” (HOND, 27. zkia.)

Oharra: urte batzuk geroago Irungo eta Hondarribiko euskarari buruzko ikerketa egin zuen Txomin Sagarzazu izan zen elkarrizketatzailea.

10.2.10. Martin Iturberi 1989ko irailean egindako elkarrizketa batean:

“(…) Baina Hondarribira etorri nintzenean txoke bat jaso nuen . Lehendabizi hizkelkia berexiagoa da, batez ere lehendabiziko harridura hitz egiten erabiltzen den doinu-giro horrek eman zidan. Ta doinu hori nahi ta nahiez, bertan jaiotakoak belarriratzen du, kanpotik etorritakoari ez zaio belarrira sartzen.

Beste aldetik, neretzat gauzarik nabarmenena izan zen, garai hartan behintzat, eta orain dela hogeitaz urte ari naiz, hondarbitarrek euskerari buruz izugarrizko irudipen iluna zeukatela. Hemengo euskera txarra zela, eta Goierriko euskera, hura zela ona. Beraz, gertatu zen han talde bat, hemezortzitik hogeitabost urte edo aldi hortako jendeak, euskeraz ere ez zekiten, arrantzale umeak eta, eta lotsagatik izan zen.

(…) Nik hortaz lan luzea eta isila egin dut nere aldetik, eta buruan sartu arazi Hondarribiko euskera ona dela. Hondarribiko euskera hitz egin beharra dagoela, eta gero landu, sakondu, aberastu, beste edozein lekutakoa bezala.

(…) baina aurrerapena ere egin da irizpide hortan hondarribitarrak bere buruari eta bere lekuko hizkelkiari dioten begirapuntuari berritze bat eman zaiola azkeneko hogeitaz urteotan pozgarri zait, atsegin zait.

H.: Eta euskararen eboluzioa, garapena, oro har?

(…) hemen azken aldera gertatu diren gorabehera hauetan ikusi ditudanak, lehendabizi, bildurrezko egoera bat izan genuen hartan zaletasun bizia zutenak isilea edo gauza behintzat landu egin zuten.

Gero, irekitasun bat etorri zen garaian jendea irauli zen euskera ikasi euskera lantzerantz. (…)

Gaur, nik uste dut patxada gehiago dagoela, patxada bi alderditatik esango nuke: alderdi batetik, eragin-indarren bultzagarri hori halakohalako gogortasun edo behar itogarri hortan ez dagoelako; baina, bestetik, pasotismo pixka bat ere bai.

Hau da, erosotasun edo erosokeriara erori ote geran, gaur oso errez hitz egiten da erderaz, lasaitasunez hitz egiten da, jabetasun edo kontzientzia hori moteldu egin da, eta inori ez digu min haundirik ematen euskaldun hutsak direneko taldean umeak edo gazteak erderaz ikustea.

Orduan, alderdi pozgarria izan bada, zabaldu egin dira euskerazko gauzak ikasteko, lantzeko, publikazioak, ugaritu egin dira denak, pozgarria den bezela, nik uste dut oso kontutan hartu beharreko gaitz iluna eta izkutukoa izango dugula lasaikeria hori. Orduan nik ez dakit martxa zer izango den, baina beste garaialdi batek etorri beharko du, lasaitasun batez jabetu edo kontzientziatu gaitzela nor geran, non gauden eta zer daukagun esku artean eta orain hemen zimentuak sendo bota behar ditugu, eta izango dira jabetasunaren zimentuak, kontzientziarenak, eta orduan seriotasunarekin aurrera, eta ez dut esan nahi orain arte seriotasunik izan ez denik.

Neri bildurrik gehiena horrek ematen dit, moteltasunak. Gogor egitea, eta bata bestearen iritzi ezberdinak izateak ez dit bildurrik ematen lanbidea eta egiteko eragina baldin badute. Moteltasunak ez du eginbiderik, ez batetik ez bestetik, hori da txarra, eta giro hortan egon gintezke, seguru asko.”

(HOND, 33. zkia.)

10.2.11. 1991n Hondarribia aldizkarian J.A. Letamendiak mintzamena hobetzeko proposamen bat egin zuen:

“Egungo gaitza (...). Belaunaldi berriko euskaldun askok ba omen dakite h non ezarri, baita ekuazio, inekuazio eta buruketa bihurriak euskara zaluz ebatzen (...) baina hala eta guztiz motz dabilzkizu (gabilzkizu) poz-haserreak euskaraz adierazi edota txiste arrunt bat kontatzeko garaian. Nolabait, premiazkoa genuen ikasgelako euskara aseptikoa lortu dugu baina bitartean bizitzakoa indargabetzen utzi dugu. (...)

Hondarribian (eta kanpoan) hizkuntza lehiaketa gehienak idatzizkoak izaten dira. (...) Salbuespena bertsoarritza (...).

(...) lehiaketa edo jardun apalagoa proposatzera ausartzen naiz: hizketa lehiaketak antolatzea, antzerki laburren sariketak. Bakarkako esatariek ipuinak, bakarrizketak edo txisteak kontatuko lituzkete; bi lagunetik gora izanez gero

elkarrizketa genuke, antzerkia, beraz.

(...) Gimnasia berri honek mintzamina indartuko luke partaideengan (...).”
(HOND, 43. zkia.)

10.2.12. 1992an Txomin Sagarzazuk hauxe idatzi zuen “Alberto Lasa eta Florentino Portu gogoan” artikuluaren:

“(…) kultur-ekitaldi suspertzaile eta antolatzaile izan da Alberto: inguru hurbilean sortutako ekitaldiak Hondarribira egokitzeko eta aurrera ateratzeko kemen paregabea izan du. (...) Gure arteko harremana euskaraz izan da aspalditik. Duela urte gutxiko giro nagusia –eta oraingoa, esateko tentaziorik falta ez den arren, ez diot amor emango esateari- gaztelaniaz egiten zen Hondarribian. Giro horren baitan beti izan dut Albertorekin euskarazko harremana. Eta giza-harremanak hizkuntza ezberdinetan finka daitezkeen arren, ez dut ukatuko euskarazkoak sentiarazten duen hurbiltasuna.” (HOND, 46.zkia.)

10.2.13. 1994an Mikel Maiozek “Polikiroldegia ala Polideportivo?” artikulua idatzi zuen:

“Esana digute: aurki, bizpahiru urte barru, kirol egiteko aukera izango dugu Hondarribiak merezi bezalako instalazioetan (...)

Bistakoa da, jaioberri guzietan dagokien bezala, polikiroldegia tankera askotakoa etor litekeela. Izan, ordea, modu batekoa bakarrekoa izango dugu. Hartara, posible da, -zergatik ez?-polikiroldegi euskalduna izatea. Alegia:

Polikiroldegiko idatzi guztiak euskaraz egotea. Ez bakarrik errotulazioa, inprimakiak, kartelak, zerbitzuen berri ematen duten panelak, baita maiz, aldiro-aldiro sortzen diren testu idatzi guztiak ere, hala nola: igerilekuko ordutegia aldatu berria dela adieraziko diguna, pintatze lanak direla-ta squashean jolasterik ez dagoela (...)

Monitoreak edo dena-delakoak, euskaldunak izatea eta, jakina, egin behar duten lanaren araberrako hizkuntza-gaitasuna izatea. Ez bakarrik lan-kontratu

egitean, baita bertara joango diren haurrei instrukzioak emango dizkieten guztietan.

Polikiroldegiko administrazioa eta zerbitzuak euskaldunak izatea. Gerentetik hasita, jakina. Zerbitzu publiko horretako lan-hizkuntza euskara izan dadin.

Horrek guztiak, beharbada, ametsa irudi lezake. Baliteke. (...)

Erabileraz ere erruz hitz egiten da gaur egun. Nork uka lezake polikiroldegiaren garrantzia euskarari behar-beharrezko zaizkion esparruak aukeratzekoan? Izan ere, adin guztietakoak aurkituko ditugu bertan (...)

Polikiroldegiak, ikuspuntu soziolinguistikotik begiratuta, izugarritzko garrantzia izan lezake euskararen erabileran eta, azken batean, hizkuntzaren transmisioan. Alegia, bertan biltzen diren agenteengatik –familiak, lagunak, gazteak eta zaharrak- eta bertako iharduerengatik –aisia eta lana- bazter utzi ezinezko esparrua da Hondarribiko euskaltzaleontzat. " (HOND, 56.zkia.)

10.2.14. M. Karmen Balerdik, 25 urtez ikastolako irakasle izandakoak, 1996an egin zitzaion elkarrizketa batean adierazitakoa:

"Hizkuntzari dagokionez, nabaritu al duzu urte guzti hauetan ikaskuntza arloan euskararen zabaltze edo hedapenik?

Zerbait lortu dugula argi dago. Jende asko euskaratu da, eta egia esango dizut, hogeita bost urte hauetan positiboena iruditu zaidana ikastolak Hondarribian eman eta bultzatu duena da. Baina ez irakaskuntzan bakarrik, kultura mailan ere asko landu da; dantza taldea dela, oro har ikastolak Euskal Herriko kulturari aportatu diona balio handikoa iruditzen zait. Batez ere herri honetan egin denaz ari naiz. Alegia, ni ikastolan sartu aurretik eta, gazte nintzela, herrian oso aukera gutxi zegoen euskararen inguruan ekintzak burutu edota antolatzeke, eta ikastolaren lana horretan ezinbestekoa izan da. (...)

Azken bi urtetan Udal Euskara Batzordean sartuta ibili zara ere, ezta? Zer egiten du batzorde honek?

Euskararekin zerikusia duten ekintza eta ekitaldi ezberdinak antolatzen ditugu; beno, guk proposatu eta aurrekontua onartzen denean, aurrera eramaten ditugu

proiektuok. Aldizkari hau bera, Neguko Jardunaldiak, Abizenak euskal grafiaz idazteko kanpaina ere guk bultzatu dugu, herriko komertzio eta jatetxeetatik ere pasatu izan gara, errotuloak euskaratu nahi izanez gero gure zerbitzuak eskainiz...” (HOND, 66.zkia.)

10.2.15 Kote Gebararen, Udal liburutegiko arduradunaren, iritzia 1996an egin zitzaion elkarrizketa batetik jaso:

“Asko irakurtzen al da euskaraz?

Nahiko gutxi egia esanda. Umeek batez ere euskaraz irakurtzen dute, gazteek ere zertxobait, baina hogeita bost urtetik gorako gazte eta helduek berriz, gaztelaniazko liburueta jotzen dute. Gainera, gaur egun gehien irakurtzen dena merkatal literatura da, komertziala; (...) eta Atxaga izan ezik, gehien bat idazle amerikarrak edota espainolak ere aukeratzen dituzte irakurleek, euskarazko itzulpenik ez duten liburuak alegia.” (HOND, 68.zkia.)

10.2.16. Jesus Mari Mendizabalen, Bizargorri, “Ahoz aho, belaunez belaun” iritzi artikulua 1997an:

“Izan ere, zer ari da gertatzen gurean? Zer ordea? Lotsa zenbaitek, “pelotas fuera” batzuek, zaila omen dela besteek.

Lotsa. Gure hizkera baldar-itsusia duk; gureak sukalde zokorako balio dik, ez bestetarako...Tolosakoa bai polita! (...) Urrutikoa goretsi, etxekoa apaletsi. Ederra andarea...! (...) Lotsak ez du deustako balio eta denerako da traba.

“Pelotas fuera”. Nik ez diat bizitzeko euskararen beharrik gaurgero. Eskolak eta ikastolak hor zeudek haurrei irakasteko. Umeek, denek ikasiko dutenean, egingo ditek eta kito. (...) Mas vasco que yo...?! Eta segi jo-take erdaraz, gero besteek egingo dutela eta. (...)

Zaila. Oraingo euskara hori arrunt diferentea baita. (...) Gure itxian ez da horrela esaten. Gisa honetara mintzo direnak euskara batua botatzen dute brankara. Eskusa bat besterik ez da, zirkinik ere ez egiteko zertxobait ikaste

alde.

(...)

Hitz bakarrean esanda, eta hirurak ere koadrila bereko jarrita: horixe duk, ba, arrantzara larrera joatea! Euskara gora eta euskara beheara, baina erderaz mintzo beti edo gehienez. (...)

Aitortu beharrean nago, azkenik, hemengo euskarak jasotzen duen txaloa eta estima baino askoz ere handiagoa merezi duela. (...) ken diezaiogun isilarena eta mintza dezagun kalerik kale, bazterrik bazter, batere lotsarik gabe.

(...) Eta mintza dezagun, batez ere, itxian. Etxe zokoan, batik bat. Horixetik dator-eta hizkuntzaren arnasa; eskolak soilik ez du-eta ekarki hizkuntzaren salbamendurik. (...)

Etxean, ari-ta-ari, erabili beraz; baina ez etxe zokoan gorde, gero! (...)"

(HOND, 76.zkia.)

10.2.17. "Hainbeste ordenantza eta arau, zertarako? iritzi artikulua 1997an:

"Basket Elkarteari Udalak eskainiriko omenaldi honetan (...) Aitor Kerejeta zinegotziak eman zion hasiera ekitaldi honi, eta jokalariei euskaraz zuzendu zitzaizkion normaltzat jo nuen hura, ez gauza polit edo bitxi bezala, eguneroko gauza arrunt eta normaltzat baizik.

Bestalde, handik aurrera bozgorailuaren aurrean jarri ziren guztiak, alde batekoak zein bestekoak, erdara hutsean aritu ziren (...)

Nire kezka, ordea, ez da horretan geratzen. Erabat harrিতuta, Udal ordenantza delako arauetan honi buruz zerbait azaltzen ote den begiratzera joan naiz udaletxera. Kirolaren gaiari dagokion atala irakurri eta, bertan topatu ditudan lerrook hementxe berridaztea interesgarria iruditu zait, baztertuta dauden arau horiek, udaletxetik atera gabe ere baliogabetzen direnak, zertarako ote dauden ezarrita neure buruari behin eta berriro galdegin ondoren. Horra ordenantzak dioena: "...Udalarengandik laguntza jasotzen duten kultur, kirol edota aisi elkarteek, ospakizun konkretuetan, bozgorailu bidez ematen dituzten mezuak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dituzte. Euskaraz eta gaztelaniaz egiten

diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko zaio lehentasuna, euskarazko adierazpenez jabe litezkeenak elebidunak baitira." A.M. " (HOND, 78.zkia.)

10.2.18. Ikastolaren sorreran egindako lanari buruzko iritzia 1998ko artikuluan batean:

"Gaur egun Hondarribiko Ikastola garai onean aurkitzen da denon zorionerako. Baina hori ez da egun batetik bestera lortzen den zerbait.

Hainbat eta hainbat pertsona egon dira lanean Ikastola sortu zenetik hau horrela izan dadin. Beronen sortzaileek daukate seguruenik meriturik handiena.

Franco-ren garai latzetan horrelako egitasmoak edukitzea eta aurrera eramatea benetan da aipagarria.

Ikastolaren hasieretan gizon-emakume hauek egindako lana ikaragarria izan zen, eta badirudi inork ez diela behar duten bezala eskertu.

(...)

Lan handia egin duen jende asko dago, ezer kobratu gabe, eta lanordutik kanpo. Hori gutxi balitz, Ikastolaren alde berriro ere inoiz ikusiko ez zuten dirua jarritz.

(...)

Gaur egun ixilpean dauden pertsona batzuei esker da hori, eta denok egon behar genuke betirako eskertuak horregatik. (...) I.Nogeras" (HOND, 92.zkia.)

10.2.19. Txomin Sagarzazuk Hondarribiko eta Irungo euskara aztertzeke Loidi beka jaso zuen 2001ean.

Horrelaxe dago jasota Hondarribia aldizkarian: : ""Hemengo jende askok oso euskara ona dauka, eta berak uste du ez dela horrela" dio Sagarzazuk. "Jendeari hori sinistarazi behar diogu, hala da eta." " (HOND, 122.zkia.)

Hiru urte beranduago, 2004an, Txomin Sagarzazuk Irungo eta Hondarribiko hizkerari buruzko 10 orduko ikastaro bat eman zuen eta azalpen hauek eman zituen:

“Sagarzazuren ustetan, “han bildutako jendeari ikastaroak balio izan zion guk ezagutu dugun euskara bere neurrian estimatzeko. Askotan esan da gure euskara beste batzuekin konparatuta beheragoko maila batean dagoela; nire ustez ez da horrela (...)” Gainera, nolabaiteko proposamen bat egin zen Irun eta Hondarribiko eskoletan egiteko. “Hau ez da bat-batean egin beharreko zerbait. Ideia oso ona dela uste dut, baina pausuak ondo neurtu ondoren egin behar da. Haurrei eskoletan gure euskara irakastea oso gauza ona dela” dio Txomin Sagarzazuk.” (HOND, 160.zkia.)

10.2.20. Kattalin Noblia, Euskara Zinegotziak “Hondarribia atzerriko hizkuntzen herria uda garaian?” iritzi artikuluan honelaxe zioen 2005ean:

“Azken ikerketen arabera, herrian aztertu den euskararen ezagupen orokorra %60koa da, eta erabilera aldiz %30ekoa (etxeke erabilerari dagokionez).

Zifra hauek kezkarriak baldin badira, udan herrira hurbiltzen zaizkigun turistak eta bisitariak kontuan izanik, egoera zaildu eta nahasi egiten da (...). Bat-batean herriko hizkuntza paisaia arrotz bihurtzen zaigu (...) eta herriko eremu gehienetan euskararen presentzia murrizten da.

Baina, herrira udaro etortzen den giza marea horren eragina, gure umeak eskolara itzultzen diren garaian bukatzen al da? (...)

Zer nolako neurri har dezakegu udako atzerriko korrante horren eragina ahal den azkarren eta sakonen ezabatzeko? Euskara ezagutzen, ikasten eta praktikatzen dugun guztion ardura nagusia, erdarara erraz pasatzeko tranpa horretan erori gabe, geureari eutsi eta euskara beti erabiliz; eguneroko borroka hau udan larriago bihurtzen baita; horregatik, fenomeno inbaditzaile horren kontzientzia eta sentikortasuna erne eduki behar ditugu, urteroko marea berriak urtean zehar lortzen ditugun aurrerapen txikiak desagerrarazi ez ditzan.” (HOND, 177.zkia.)

10.2.21. Txomin Sagarzazu euskara zinegotzi berriaren

agurra 2011ko irailean.

“EUSKARA ZINEGOTZIAREN AGURRA

Joan den maiatzaren 22ko udal hauteskundeetan izandako emaitzen arabera osatutako Hondarribiko Udalbatzan Euskara saileko arduraduna nauzu, irakurle.

Udalak alor honetan datozen urteotarako duen asmo nagusia euskararen gizarte-erabilera areagotzea sustatzea da, eta horretarako, 2011/2015 aldiari dagokion Plan Estrategikoa jorratzeko lanei ekin diegu dagoeneko. Plangintza horrek hizkuntzaren erabilera-eremu guztiak hartuko ditu kontuan (familia-transmisioa, euskalduntzea eta prestakuntza, irakaskuntza, administrazioa, lan mundua, aisia, kirola, kulturgintza, komunikabideak eta teknologia berriak) eta eremu bakoitzeko helburuak zehaztutakoan, horiek lortzeko estrategia eta ekintza egokienak proposatuko ditu.

Asmo hori betetzeko gure erakundearen egitekoa plangintza horren gidaritza eramatea izango da, beti ere gizarte-eragileekin batera ahalik eta adostasun handienean oinarrituta. Hortaz, Euskararen Aholku Batzordean hainbat elkarte eta herritarrek egingo dituzten proposamenak jaso, beste udal ordezkariekin aztertu eta Udalbatzak finkatuko du datozen urteotarako gure norabide nagusia.

Inguru horretan kokatu behar dugu Udal Euskara Zerbitzuak argitaratutako Hondarribia herri-aldizkaria. 1986 ezkerostik herritarren arteko komunikazio idatzirako erreferentziazko tresna dugunari irakurgarritasun, hurbiltasun eta bizitasun handiagoa eman nahi genioke datozen urteotan ere, herriko irakurleentzat atsegingarri eta idazle eta kazetariarentzat erakargarri gerta dadin. Begi bistakoa da, irakurle, helburuok zure parte hartzearekin bakarrik beteko ditugula, ondo xamar baitakigu gure hizkuntzaren bizia hiztunok gizarte-eremu guztietan naturaltasunez erabiltzetik heldu dela.

Eta ondo irago herriko jaiak!

Txomin Sagarzazu

Euskara Zinegotzia “(HOND, 237.zkia.)

Bestalde, 2012ko otsaileko Hondarribia aldizkarian, berriz, honelaxe baloratzen zuen Txomin Sagarzazuk Euskara Biziberritze Plan Estrategiko berria Udalbatzak

aho batez onartu izana:

“Abenduaren 20ko Udalbatzan, Euskararen Plan Nagusiaren ildoak onartu ziren, aho batez gainera. Zer esaten dizu honek? Zeintzuk dira euskarak Hondarribian dituen indargune eta ahuleziak?

Gure herrian eta Euskal Herrian oro har zaila izaten da alderdi politiko guztiak zerbaitetan ados jartzea. Hondarribian hori euskararekin lortzea oso garrantzi-tsua eta positiboa dela uste dut. Euskaren Plana ez da Euskara sailaren egitekoa, Udalaren zeharkako lan ildo eta helburua baizik, hizkuntzaren erabilera hobetzeko helburu nagusia. Euskararen aldeko sentibilizazioa badago Hondarribian eta hezkuntza sistemari ondo txertatuta dago. Baina askotan, eta ez gazteek bakarrik, alde batera uzten dugu euskara. Denon lana da joera hori aldatzea eta Udala gidari izanik hori aldatzen joan behar dugu.” (HOND, 243. zkia.)

B)-GAUR EGUN JASOTAKO BESTE HAINBAT IRITZI

Aurreko iritziak osatze aldera, batetik, eta, bestetik, aurreko zenbait iritzi irakurrita gaur egun ere entzuten direla edota gaur egungo egoerara deskribatzeko balio dutela frogatzeko, galdetegi bat sortu genuen Google Driven eta hainbat erantzun jaso genituen.

Galdetegiaren helburua gaur egungo iritzi eta pertzepzio batzuk jasotzea zen, eta ez, erantzuten zutenek datuetan oinarritutako analisi sakona egitea.

Hiru galdera orokor planteatu genituen: bata, egindako lanari buruzkoa, bestea, gaur egun egiten den lanari buruzkoa eta, azkenekoan, etorkizunean egin beharrekoari buruzko iritzia ematea eskatzen zitzaien.

HAUEXEK GALDERAK:

1)-EGINDAKOA

Nola baloratuko zenuke azken 30 urteotan Hondarribian euskara sustatzearen alde egindako lana? Zer nabarmenduko zenuke?

2)-GAUR EGUNGO LANA

Nola baloratuko zenuke gaur egun Hondarribian euskara sustatzearen alde egiten den lana? Zer nabarmenduko zenuke?

3)-ETORKIZUNARI BEGIRA

Datozen bost urteotan, zure ustez, zertan egin beharko litzateke lan Hondarribian euskara sustatzeko?

HAUEXEK ERANTZUNAK:

1)-EGINDAKOA

Nola baloratuko zenuke azken 30 urteotan Hondarribian euskara sustatzearen alde egindako lana? Zer nabarmenduko zenuke?

10.2.22)-Ba nere ustez, guaindela 30urte inguru aek herrian bazegoen eta bertan euskaraz ikasteko kanpainak eta ondo bultzatzen ziren (gazte asko jun ziren ikastera).Ta beste alde aritzen ginen billeretan eta pankartak jartzen, biñon askoz gehio ere ez genun egin. Egondu ziren udaletxetik eta beste zenbait gauza bainan ez nuke jakingo guain esaten.

10.2.23)-Adibidez, gaur egun, bertako ikastetxe guztiak B edo D ereduan ematen dute eskola. Hori urrats oso garrantzitsua da. Teorian, behintzat, Hondarribiko gazte guztiek euskaraz badakite eta horrek gauzak asko errazten ditu. Bestetik, haurrentzako ekintzetan, adibidez, orain dela 30 urte erderaz, euskaraz ez zekienak egiten zuen, eta orain berriz, monitoreak etab. ikusten ditugu gazteei erderaz mintzatzen... Konpromiso maila jaitsi egin da...

10.2.24)-Egokia. Udal ordenantzak, normalkuntza eta erabilera plangintza egitasmoak. Ahotsak.com egitasmoaren baitan gauzatutakoa

10.2.25)-Ekintzak egin, egin dira baina pertsonen atxikimendua ez da nahikoa izan.

10.2.26) -Euskera erabilerarako Udal araua egin izana ondo dago; nahiz eta, nire ustez, ez den behar bezala betetzen

-Hondarribia aldizkariaren presentzia

-Euskera gehiago ikasi, ikasi egiten da. Erabili??

10.2.27)-Hainbat ekintza planteatu dira eta ekintza horiek errotuta daude, hori positiboa da, baina gauza berriak sor litezke.

10.2.28)--Udaletxearen aldetik bakarrik eman den zerbait. Hasieran 80. hamarkadan zerbait piztu zen (ikastolak eta abar) eta gero maila hori mantendu beharrean, pixkanaka jaitsi da dena. Udalak eta beste erakundeak ez dute berriitu eta egokitu bere plangintza. Ez dute eta ez dugu sarerik sortu ez. Euskara hor zegoen eta euskaldun ginen besterik gabe.

10.2.29)-Ez baitut neure burua gai ikusten galdera mardul horri erantzuteko eta ez baitut inoren lan zintzoa gutxiesten ibili nahi, geure buruari egin beharko genizkiokeen galdera batzuen bitartez erantzungo diot nola edo hala zure eskaerari: Horrenbeste urteren ondoren, aurrera edo atzera egin ote dugu 'familia' bidezko transmisioan? Aisialekuetan eta jolas nahiz kirol esparruetan euskara entzumenaren gozagarri ote dugu? Euskarak bereganatu ote du lekurik lehenagotik arrotz zitzaizkion esparru formal eta ezformaletan?

10.2.30)--Ez dut ezagutzen zehaztasun handiz azken 30 urtetako lana. Azken 15 urteetan jaso dudan inpresio orokorra hauxe da: Hondarribian hizkuntzaren biziberritzearen aldeko lana nahikoa apala izan dela. Herri euskaldun gisa hartu izan da eta euskararen aldeko lana helduen euskalduntzean eta eskoletan zentratu da. Beste alorrak oso puntualki eta hausnarketa handirik gabe garatu dira: merkataritza, ostalaritza, aisialdia, kirola, kultur-ekoizpenak... Nire ustez Hondarribiko iruditegi kolektiboan "herri txiki, herri euskaldun" irudia oso txertatua dago (baina ez da hain herri txiki eta ezta hain euskaldun ere), eta horrek euskararen inguruko lanketa erlajazio moduko giroak sortu izan du.

10.2.31)- Ezin dut azken 30 urteetako lana baloratu, adinagatik, oso gaztea bainintzen duela 30 urte baina azken urteotako joerari dagokionez, pentsatzen dut, euskara kontuetan, "lan guztiak eginak dauzkagu eta Hondarribia euskalduna da" ideiak gailendu direla eta, ondorioz, lasaitzea gehiegizkoa izan dela. Hala, inoiz baino Hondarribia erdaldunagoa daukagu eta, okerreana, herritar eta politikari asko

ez da euskararen erabileraren gainbeheraz ohartzen edo paso egiten da.

10.2.32)-Ez dut baloratzeko informazio nahikorik, ez dut azken 30 urteetako ibilbidea asko ezagutzen.

10.2.33)-*OHARRA*: ez dio galdera honi erantzun.

10.2.34)-Egin direnetan, Ikastola: 50 urte! Meritu izugarria dute hasierako guraso eta irakasleek.

2)-GAUR EGUNGO LANA

Nola baloratuko zenuke gaur egun Hondarribian euskara sustatzearen alde egiten den lana? Zer nabarmenduko zenuke?

10.2.22)-Oso ondo baloratuko nuke guantxet egiten ari diren ekimenak Blaganen aldetik, oso dinamika polittik ,desberdinak, berriak eta nabarmenduko nukeena, hainbeste jende gauza berian lan egiteko prest egotia.

10.2.23)-Sentsazio bat daukat, ez dakit zuzena izango den guztiz, baina aztertu beharrekoa dela iruditzen zait behintzat. Bertako hizkerarekin konplexu handi samarra dago (edota egon izan da). Bertako euskara baino hitz egiten ez zekienak erdara ikasi duenean, hizkuntza horretara jo du. Bestetik, Hondarribiak azken hamarkadetan jende asko jaso du Euskal Herriko leku askotatik, eta uste dut euskalzaletasunaren garra mantentzeko orduan hauek paper handia jokatzen dutela (eta jokatu izan dutela), baina bertakoenganako hurbilketa falta izan dela susmoa daukat. Hondarribiko euskaldunen (orokorrean hartuta) eta Hondarribiko bertako euskaradunen arteko hurbilketa beharrezkoa eta oso positiboa izango litzatekeela uste dut euskararen mesedetan. Bertako euskarari eta euskaradunei merezi duten aitortza egitea urrats bat izan diteke horretarako.

10.2.24)- Gaur egun diozunean, zein epetaz ari gara? Aurten bada, Blagan euskara elkartearen sorrera iruditzen zait aipagarriena

10.2.25)-Betiko pertsonak eusten diote eta lan egin ere baina zoritxarrez, ez da gehiegi kutxatzen. Arrantzaleak adibidez erderaz entzuteak mina egiten dit

10.2.26)--Azpimarratzeko, Blagan euskera elkartearen sorrera. Oso garrantzitsutzat jotzen dut, bertan, norbanako guztien indarrak, gogoak, ilusioak, ahaleginak...batu eta indarra handitu egiten delako. Herrian euskarak presentzia gehiago izango duelakoan nago.

-Aurten Mintzalaguna, barrutik ezagutu dut; ekimen bikaina iruditu zait euskerarekiko maitasuna pil- pilean sumatu dudalako . Polita!

10.2.27)-Aurretik egindakoaren jarraipena. Giza baliabide gehiagoren beharra.

10.2.28)-Mintzalaguna bezalako programa hor dabil Baita Blagan ere sortu da, baina guzti hau gutxi dela ikusten da. Bakoitzak bere gerra egiten gara, eta goitik etorri behar diren agingu gomendio eta arauak ez dira etortzen eta bitartean, gizartea pixkanaka erdalduntzen.

10.2.29)-Astindu baten premian dagoela iruditzen zait. Uste dut Udalak baduela ahalmenik zenbait arlo garrantzitsutan esku-hartzeko, eta, bestalde, urteko egutegian badira jarduera jakin batzuk nire ustez errutina hutsez egiten direnak eta gutxienez aztertu beharko litzateke onurarik ba ote dakarten.

10.2.30)- Udal aldetik, lehen aipatzen nuen ildotik doala uste dut. Kanpora begira, gutxienez (administrazio barneko plangintza ez dut ezagutzen) urtero oso plangintza antzekoa errepikatzen da, nahiko azalekoa eta hausnarketa/ebaluazio handirik gabe. Nabarmenezkotan eskolek egiten duten lana nabarmendu beharko litzatekeela uste dut. Azken urtean herrian sortu den Blagan euskara elkarteak, Hondarribian euskara biziberritzeko prozesuari bultzada berria emango diola uste dut.

10.2.31)- Udalaren aldetik oso eskasa eta azalekoa dela deritzot: oso errepikakorra eta itxurari lotua egiazko erabilerari baino. Uste dut badela garaia lanaren norantza aldatzeko edo beinpin eguneratzeko. Euskara taldea sortzeak, bestalde, aldaketa hori eragin dezake baldin eta gauzak modu egokian planteatzen badira. Positiboa izan liteke Udaletik zenbait arlotan euskara sustatzeko dagoen nolabaiteko beldurra baretzeko ere.

10.2.32)-Nahiko eskas. Uste dut, araudiak eta irizpideak aspalditik zehaztuta dauden arren, ez direla betetzen, eta gutxiago betearazten. Axolagabekeria edota utzikeria hitzarekin laburbilduko nuke egun egiten den lana: asmo onak bai, baina ez dira gauzatzen.

10.2.33)-*OHARRA*: ez dio galdera honi erantzun.

10.2.34)-Egiten direnetan, Blagan-en indarra. Eta Olinpiadak.

3)-ETORKIZUNARI BEGIRA

Datozen bost urteotan, zure ustez, zertan egin beharko litzateke lan Hondarribian euskara sustatzeko?

10.2.22)-Euskarak duen garrantziaz lanean aritu, ahal den eta jende gehienetara zabaldu eta dinamika berriak asmatzen jun haurrak eta gazteiei erakargarri ikus dezaten euskara, eta bertako euskalkiekin bada okigo!

10.2.23)-Nik uste, neurri handi batean, gutariko bakoitzarengan dagoela ardua. Euskara erabili, euskaraz galdetu, euskaraz erantzun, ikasi... Banako konprometituen mrkroekintzen potentzian sinesten dut, eta hauek mugimendu kolektibo bilaka daitezkeela. Horregatik, BLAGAN oso ekimen interesgarria dela iruditzen zait eta itxaropentsu nago. Blaganek Hondarribiar arruntari gogoratuko dio: "Aizu, eta euskara zer?" "Zaindu maite duzun hori", edo bere buruari geldetzea eragingo dio "Zuk euskararekiko zer nahi duzu? Eta zure ekintzekin zer lortuko da? Bat al datoz nahi duzuna eta egiten duzuna?"

10.2.24).- Lan eta bizi esparru guztietan, modu koordinatuan eta komunikazio hurbilpena gogoan izanda

10.2.25)-Erabilpenean. Erakunde desberdinek, kirol guneek... benetako konpromezua hartuz euskeraz aritzea.

10.2.26)-Senzibilizazioa

-Kolektibo desberdinei kasu egin: euskera ez dakiten gurasoak, etorkinak...

-Kalean presentzia gehiago (ostalaritzan, komertzioetan...)

10.2.27)-Euskara zerbitzua beharrezkoak diren giza baliabidez hornitzea.

10.2.28)-Blagan bezelako taldea indartuz. Udalari eskatuko nioke, denda, taberna, jatetxe eta komertzio guztiei euskaraz ipinaraztea bere errotulo, agiri, karta eta abar. Paisaia euskalduntzea. Kaletar, portuar eta baserritar euskaldun sare bat osatzea. Hiriaren sarreretan (Hemen euskaraz hitz egiten dela) kartelak jartzea. Baita Hendaiatik datorren txaluparen kaian ere.

10.2.29)-Ezagutza bermatuta balego bezala 'erabilera' jainkotu dugun honetan, ezinbesteko ditugun esparruak lehenetsi beharko lirateke, eta horietan eragin. Esaterako, frogatuta dago eskola ez dugula aski euskararen geroa ziurtatzeko, ez eta, nire iritziz, aisialdiko eskaintza handitzea ere; harago jo beharra daukagu, eta helduetan eragin behar dugu nola edo hala. Ez dezagun ezjakinarena egin, nik argi dut: edo helduok euskara darabilgu eta umeek zein gazteek ikusten duten euskarak zeozertarako balio duela, edo jai daukagu. Helduon esku dago geroa: umeek ez dute egingo, guk egiten ez badugu. Eta horretaz kontzientzia hartu neharra dago: eskoletan gurasoekin landuz, aisialdiko eta kirol-alorreko esparruetan hizkuntz

irizpideak ezarriz, kultur programazio koherente bat asmatuz eta antolatuz...

10.2.30)- Arlo gehienetan lan handia dagoela uste dut. Euskararen prestigioa handitu beharra dago Hondarribian. Askotan ekitaldi publikoetan gaztelaniaren erabilia askoz handiagoa da euskarazkoa baino. Arlo hauek iruditzen zaizkit bereziki garrantzitsuak Hondarribiak dituen ezaugarri kultural eta sozio-ekonomikoengatik: 1. Ostalaritza 2. Kirola 3. Asialdia eta kultur-ekoizpenak Euskalduntze prozesuan (helduena eta haurrena) ere lanean jarraitu behar da prozesu berriak sortuz eta erraztasunak ematen herritar guztiek euskara ikasteko.

10.2.31)- Nire ustez, kale erabileran eragin beharko litzateke eta, horretarako, besteak beste, hitzarmengintza planak-egiazko lankidetzak eta jarraipenak eginez abian jarri. Arlo honetan kirola lehenetsi beharko litzateke. Bestalde, sentsibilizazioa ere oso garrantzitsua da: Hondarribitarrei datu zehatzen bidez egungo gure herriko euskararen egoera zein den azaldu beharko litzateke - bat baino gehiagok sorpresa ederra hartuko luke- eta bakoitza bere etxean lanean hasiz gero, garaiz gaudela kontuari buelta emateko ikusarazi.

10.2.32)-Lehenik, indarrean dagoen araudia bete eta betearazi. Ondoren, behin Udalarik dagozkion esparruetan (Udalean bertan eta harekin edonolako lotura duten erakundeetan) euskara bermatutakoan, errealitatearen arabera eta esparru bakoitzean ahal den erritmoan, euskara lehentasunezko hizkuntza ("hegemonikoa" izan daiteke hitza?) bilaka dadin aurrerapausoak ematen hasi.

10.2.33)- Daturik gabe, nik azkeneko galdera besterik ez nuke erantzungo. Zertan egin beharko litzateke lan euskara sustatzeko?

- Hondarribian, arazoa batez ere bertakoek euskara ez erabiltzea da, nere ustez, eta uste dut hori gutako gehienontzat nahiko argi dagoela. Hortaz, berez lan handiena jende hori konturaztea eta jende horrek euskaraz egitea lortzea da. Baina baita lan zailena ere; azken batean, jende askok euskara jakin badakielako, eta, azken batean, norbere aukera delako...

Sentsibilizazio-lana izango litzateke egin beharrekoa. Arbasoetatik urtetan iraun duen ondare gisa euskarak ze balio duen ikustea. Beste lurraldeetako kulturak, museoak, artea, filmak, musika, antzerkia..., hori dena baloratzen duen batek nolatan ez du hizkuntza berezi hau eta honen historia baloratzen?

- Helduek euskaraz egiten ez badute, zaila euren seme-alabek egitea.

Iruditzen zait gazteengan euskara sustatzeko askotan "euskaraz egin" esan besterik ez dela egin, eta denborak erakutsi duela horrek ez duela balio izan. Garai batean gaztelania bezala, sentitu dezakete hori inposatzea dela; zergatik ezin da nahi den hizkuntzan aritu?

Helduen eredu txarraz gain, beharbada umeei eta gazteei euskaraz aritzeko esatearen arrazoa azaltzea falta izan dela iruditzen zait... Horretan lan egin beharko litzatekeela uste dut.

- Kanpotarrak. Oso zaila da kanpotarrak hona bizia irabaztera etorri eta beraiek euskaraz aritzea lehentasun gisa jartzea beste arazo eta zailtasun guztien gainetik, are gutxiago gizartean beharrik sentitzen ez badute eta bertakoek gaztelania erabiltzen dutela ikusten badute.

Bidea ireki behar zaiela uste dut. Bertako jende askorentzat gure ama hizkuntza euskara dela eta hizkuntza horretan bizitzen jarraitu nahi dugula, kanpotarrek hori jakiteko lana egin beharko litzateke; hau da, gure hizkuntzaren eta kulturaren berri eman, hurbildu, hitz eta esaldi errazak edo euren interesekoak erakutsi.. (seguru guk ere gauza interesgarri asko ikasiko genituzkeela bide horretan)

Gainera, kanpotarrek euskara ikasten dutenean, oso eredu onak izaten dira bertakoentzat...

- Garrantzitsua iruditzen zait euskaldunok gure eskubideak zeintzuk diren jakitea eta haserrerik gabe defendatzen jakitea, sentitzen duguna azalduaz; batzuetan jendea ez da euskaldunak sentitzen duenaz konturatzen, hurbildik entzuten duen arte. Bi munduak bananduta daude. TELP ikastaroaren modukoa interesgarria iruditzen zait

- Eta horietaz gain, Blaganen dauden ideia pila-pila-pila.....

10.2.34)-Egin daitezkenetan, Irungo bertso eskolaren martxa asko gustatzen zait.

Aparte: Harrigarria zait Hondarribiaren euskaldun fama, hain erdalzalea izanda.

11. BIBLIOGRAFIA

ALTUNA, O. eta BESTE (2013): 2.1. *Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak. HIZNET Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista*. Donostia. Euskal Herriko Unibertsitatea.

ARRIETA A., FERNANDEZ I. (2013). 1.6. *Komunikazioa euskara sustatzeko. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista*. Donostia. Euskal Herriko Unibertsitatea.

ARTOLA, F. *Bordari* (1980): *Hondarribiko mintzairan bertako berri* In: EUSKERA XXVI, 297-303. or. Euskaltzaindia.net <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/51011.pdf>

ARRUTI I. (2013). 5.1. Hizkuntza plangintza udalerrri-mailan. *HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista*. Donostia. Euskal Herriko Unibertsitatea

ETXABURU, J.M. Kamiñazpi (1986): *Ondarrabiako Kondaira*. Itxaropena SA. Zarautz. 178. or.

EUSKALTZALEON TOPAGUNEA (2010) "Hitzarmengintza: Entitateak euskalduntzeko metodologia" esku-liburua.

Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. http://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/eu/contenidos/informacion/941/eu_2383/eu_12372.html

Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza: Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP). Euskararen Aholku Batzordea. Kultura Saila. 2012ko iraila. [http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/esep_sarrera/eu_esep/adjuntos/Euskara%20ustatzeko%20Ekintza%20Plana%20\(ESEP\).pdf](http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/esep_sarrera/eu_esep/adjuntos/Euskara%20ustatzeko%20Ekintza%20Plana%20(ESEP).pdf)

Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (2004): *Hondarribia*. Udalaren egungo egoeraren diagnostikoa.

Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza: *LanHitz deialdia 2015* http://www.euskara.euskadi.eus/r59-14154/eu/contenidos/informacion/baliabideak/eu_00131/hpsren_finantzazio_lerroa.html

HONDARRIBIA ALDIZKARIA (HOND) 1986-2016. 1-295 zenbakiak. Hondarribiko Udala.

HONDARRIBIKO UDALA Hondarribian Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Ordenantza (1992): <http://hondarribia.eus/ficha.asp?menu=159&idioma=eu&padre=801&volver=1>

HONDARRIBIKO UDALA. Hondarribiko Udalean euskararen erabilera normalizatzeko plana V. plangintzaldia – 2013-2017 urtea.

http://www.hondarribia.org/dokumentuak/menu/20131226132335_1_PLANA%202013-2017.pdf

HONDARRIBIKO UDALA. Ordenantza fiskalak 2016.

http://www.hondarribia.eus/dokumentuak/menu/20161511427_2016%20Ordenantza%20Fiskalak.pdf

HONDARRIBIKO UDALA: Hondarribiko Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2015-2017:

[http://www.hondarribia.eus/dokumentuak/menu/2015624122943_1_ESEPPlanEStrategikoaHon\(beste%20formatuan\).pdf](http://www.hondarribia.eus/dokumentuak/menu/2015624122943_1_ESEPPlanEStrategikoaHon(beste%20formatuan).pdf)

HONDARRIBIKO UDALA: . Euskara Saileko aurrekontua 2016

<http://www.hondarribia.eus/listado.asp?menu=534&idioma=eu>

IURREBASO I. (2015): Udalerrri euskalduna EAEn: egoera eta bilakaera, 1981-2011. Soziolinguistika Klusterra. Andoain.

SIADeco (1988). Gazte eta helduen euskalduntze-alfabetatzea IN Hondarribiko Azterketa Soziolinguistikoa. II. ZATIA: Euskararen presentzia bizitza sozialean. 1. liburusk. 130. or. 1988ko uztaila. Donostia.

SIADeco (1988): Hondarribia. Hizkuntz egoeraren diagnostika eta euskararen normalizazio prozesua bideratzeko norabide nagusiak. Donostia.

SIADeco (2005), Eskola Kiroleko kalitatea hobetzeko programa Bidasoaldean. 2004-2005 ikasturteko datu-bilketaren emaitzak. Hondarribiko Udala.

SIADeco (2010): "Euskara Hondarribiko merkataritzara" egitasmoa. Ostalaritza establezimenduak. Hondarribiko Udala.

SIADeco (2011): "Euskara Hondarribiko merkataritzara". 2011ko lan-egitasmoaren ebaluazio txostena. Hondarribiko Udala.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA. Datu soziolinguistikoak bilduma. Hondarribia 1986-2011.

http://www.gipuzkoaeskara.eus/eu/datu_soziolinguistikoak#.V5UtMvmLTIV

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2011). Hizkuntzen Kale-Erabilera VI.

Neurketa, 2011. Andoain. <http://www.soziolinguistika.eus/files/VI%20Kale%20Neurketa-%20Emitzen%20txostena.pdf>

ZALBIDE M., ERIZE X.(2013): 1.3.*Hizkuntza gutxiak. HIZNET Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista*. Donostia. Euskal Herriko Unibertsitatea